

2014 BAROMETROA

Atzerriko immigrazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
Familia Politikako eta Komunitate
Garapenerako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES
Dirección de Política Familiar
y Desarrollo Comunitario



ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

eman 14 2008 2020



Universidad del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL



2014 BAROMETROA

Atzerriko immigrazioaren inguruko
pertzepzioak eta jarrerak



ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

ÓÚÉÇá|ã ç &æV) ã^!• äæãæÁ

8\$% Barometroa [Recurso electrónico] : atzerriko immigrazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak / Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokiak [egindakoa]. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2015. – 1 recurso en línea : PDF.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-9082-203-6.

1. Inmigrantes - Opinión pública. 2. Inmigrantes - País Vasco - Siglo XXI. 3. País Vasco - Emigración e inmigración - Siglo XXI. I. Ikuspegi, Observatorio Vasco de Inmigración.

314.7 (460.15)

325.1 (460.15)

Argitaldi elektronikoa

Argitaraldia: 2015eko iraila

Argitaratzailea: Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

ISBN: 978-84-9082-203-6

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

Aurkibidea

Sarrera	5
Metodologia	9
1. Kopuruak	11
2. Atzerritarrei buruzko iritziak eta jarrerak	17
2.1. Etorkinen presentziaren pertzepzioa: bolumena	17
2.2. Etorkinen presentzia arazotzat hautematea	22
2.3. Euskal gizartean duen eragina	28
2.4. Komunitate hartzailearen eta etorkinen komunitatearen arteko bizikidetza eta integrazioa	42
2.5. Immigrazio-politika	74
3. Immigrazioarekiko Tolerantzia-Indizea: tipologia bat	81
4. Euskal biztanleriaren talde handiak	95
5. Ondorioak	107
Eranskina	109
Eranskina: Galdetegia	113
Eranskina: Grafikoa	119

Sarrera

“Atzerriko immigrazioarekiko jarrera eta pertzepzioak EAEn” azken barometrotik urtebete igaro den honetan, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak egindako 2014ko Barometroaren emaitzak aurkeztuko ditugu ondoren. María José Martín Herrero, José Antonio Oleaga Páramo, Gorka Moreno Márquez, Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe, Maite Fouassier Zamalloa, Iraide Fernández Aragón, Julia Shershneva eta Beatriz Otero Gutiérrez arduratu dira 2014ko Barometroaz. Horiez gain, Taide Arteta Esnal arduratu da txostena lantzeaz, eta Antonio Gómez Parada dokumentazio eta bibliografia euskarriaz.

Txosten hau eginda, helburu hauek bete nahi izan ditugu:

1. 2014ko Barometroaren datuak aurkeztea. Euskal gizarteak atzerriko immigrazioarekiko dituen jarrera, sinesmen, iritzi, balio eta abarren deskribapen panoramikoak jasotzen du barometroak, eta aldagai soziodemografiko garrantzitsuenak nabarmentzen ditu.
2. Jarrera eta iritzi horien bilakaera aztertzea, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak 2004. urteaz geroztik egindako barometroak oinarritzat hartuta. Hain zuzen, 2004. urtean egin zen gai horiei buruzko lehen azterlana. Gaur egungo barometroen aurrekaria izan zen 2004ko hura, eta 2007az geroztik urtero egiten da, metodologia eta eduki aldetik gaur egungo formatuari jarraituz.
3. Krisi garaian edo ekonomiaren goranzko zikloaren amaieran jarrera eta pertzepzio horiek okertu egingo zirela iragartzen zutenen iritzia edo ustea zenbateraino betetzen den ala ez detektatzen saiatzea.
4. Euskal gizarteko talde batzuen eta besteen artean, jokabide aldetik alde esanguratsuak daudela egiaztatu arren, antzekotasunak diferentziak baino gehiago direla nabarmentzea: izaera soziodemografikoa duten aldagaien bidez agerikoak diren zenbait diferentzia baino ezin dira azaldu, eta diferentzia horiek gehiago dira banakoen artekoak taldeen artekoak baino. Oro har, aurreko barometroetan bezala, biztanle gehienak anibalenteak direla esan dezakegu (diskurtso kontrajarriak ditugu) eta taldeen artean dauden desberdintasunak ez dira muturreko jokabideen adierazgarri; aitzitik, gehiago dira ñabardurazko edo intentsitatezko aldeak. Hori ondorioztatzen da, 2007tik gaur egunera arte egindako immigrazioarekiko tolerantzia-indizearen azterketetatik.

5. Euskal populazioaren tipologia bat eraikitzea zenbait talderen artean nabarmendu ditugun eta estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak adierazteko; baina, ere berean, azpimarratzea, gure tolerantzia-indizearen arabera, desberdintasun horiek taldeen arteko intentsitate-desberdintasunak direla, baina ezin dela esan muturreko talde kontrajarririk edo polarizaturik dagoenik. 2013ari dagokionez Tolerantzia-indizeak hobekuntza bat adierazten du euskal gizartearen irekitze-mailan.

2014ko Barometro txostena bost zatitan egituraturik dago:

- Lehen zatian, EAEko bertako biztanleei eta etorkinei buruzko **informazio objektiboa** aurkezten da, nazionalitateen eta haien bilakaeraren arabera. Eta egoera hori estatuko gainerako erkidegoetan gertatzen ari diren aldaketekin alderatzen da.
- Bigarren zatian, **informazio subjektiboa** aztertzen da: bertakoek immigrazioarekiko dituzten iritziak eta jarrerak. Gai nagusiak lau blokeren inguruan egituraturik daude: bolumenaren pertzepzioa; immigrazioa arazotzat hartzea; immigrazioak euskal gizartean dituen eraginak –ekonomikoak, ongizateari loturikoak, hizkuntzaren erabilera eta hedapenari loturikoak, euskal nortasunari eta abertzaletasunaren garapenari loturikoak eta harremanei loturikoak–; komunitate hartzaile eta etorkinaren bizikidetzeta eta integrazioa, zenbait alderdi oinarritzat harturik aztertuta: bizikidetzeta-ereduak, estereotipoak eta aurreiritziak, eta eskubide eta zerbitzuak eskuratzeko aukera. Lau bloke horietako bakoitzean eskema bera erabili da: lehenengo, iritzi eta jarreretako emaitzen aurkezpena eta interpretazioa kode ebolutiboan, bigarren, indize sintetiko bat prestatzea dimentsio bakoitzerako, eta emaitzen azterketa talde desberdinen arabera - hemen euskal gizarteko talde desberdinak eta profilak izango dira kontuan - eta, azkenik, dimentsio bakoitzaren laburbilketa eta laburpen bat.
- Hirugarren atalean, bertakoen Tolerantzia Indizea aztertu dugu, pertzepzio eta jarrerei buruzko azterlanean jasotako datuetan oinarrituta.
- Laugarren kapituluan, laburbilduz, euskal gizartean dauden talde handiak aurkeztu ditugu, tolerantzia-indizea eta identifikazioarekin loturiko aldagaiak aintzat hartuta.
- Bosgarren atalean, amaitzeko eta laburpen moduan, ondorio nagusiak aurkeztu ditugu.

2014ko Barometroaren datuak 2013koak baino hobeak dira, nahiz eta oraindik krisiaren eragina sumatzen den. 2014ko Barometroa egiteko, egokia iruditu zaigu zenbait berrikuntza sartzea. Hauek dira, besteak beste, aurreko egindako aldaketa nabarmenenak:

- Lehenengo, etorkinekiko jarreraren modulazioan krisialdi ekonomikoak eragin nabarmena duela pentsatzen dugunez, aurreko, eta lehenengo aldiz, galdetu dugu krisialdi ekonomikoak zenbateraino eragiten dion inkesta erantzuten ari den pertsonari.
- Bigarren, galdera berriak gehitu ditugu, eta horien artean nabarmendu behar dugu Eusko Jaurlaritzak antolatu eta sustatutako “Aurre egin zurrumurruari” kanpainan jasota ageri diren zurrumurruren zerrenda (11 zurrumurrut), udalerrian edo auzoan zenbateraino entzuten diren ezagutzeko. Gainera, BOEkin, osasunarekin eta DBErekin zerikusia duten estereotipo eta aurreiritziei buruzko hainbat galdera berri gehitu ditugu.

- Komunitate hartzaile eta etorkinaren bizikidetzaren eta integrazioaren atalean, kolektibo desberdinetako sinpatia-mailaren galderan pakistandar nazionalitatea gehitu da, izan ere, gaur egun hamar nazionalitate nagusien artean dago EAEn.
- Amaitzeko, inkesta egin duten herritarrek beste herrialdeetako pertsona batzuekin duten harreman-mailari buruzko galderak gehitu dira, eta baita bertako herritarren eta etorkinen arteko bizikidetzaren eta harremanen giroari buruzkoak ere.

Metodologia

Euskal gizarteak immigrazioaren inguruan dituen jarrereri, sinesmenei eta pertzepzioei buruzko txostena da 2014ko Barometroa, eta diseinu metodologiko kuantitatibo batetik abiatuta egin da. Erdi egituratutako galdera-sortaren teknika erabili dugu (txosten honen amaieran jaso dugu galdera-sorta hori), eta eskura banatu ditugu galdetegiak. Urtero egiten dugu Barometroa, helburu nagusi hauekin: EAEn immigrazioaren fenomenoari buruz gehiago jakitea, euskal gizarte osoari gai horren inguruko informazioa ematea, eta, azken batean, fenomeno sozial hori kudeatzen lan egiten duten pertsona eta erakunde guztiei immigrazioari buruzko ezaguera sakonagoa izaten laguntzea.

Horretarako, 1.200 inkestako lagin bat diseinatu genuen (EE = %95, sigma = 1,96 eta Akatsa +/- %2,82) bere garaian. 400 Araban egin genituen (+/- %4,9), 400 Gipuzkoan (+/- %4,9) eta 400 Bizkaian (+/- %4,9). Etxez etxeko banakako inkestak egin genizkien EAEn bizi ziren (bertako populazioa) 18 urtetik gorako pertsoneri, eta, aukeratutako laginketa habitat-, adin- eta sexutamainan oinarritutako kuoten araberako esleipen proportzionalaren bidez estratifikatutakoa izan zen.

Etxeen aukeraketa ausazko ibilbideen sistemaren bidez egin zen, 29 udalerritan banatutako 61 laginketa-puntutan (6 Araban, 11 Gipuzkoan eta 12 Bizkaian). Txosten honetan, gainera, osotasunean garatuko dugu 2014ko Barometroko informazioa, eta azpimarratu egingo dugu euskal biztanleria bereizten duten aldagaiak aurkitzearekin eta gure herrialdean immigrazioaren fenomeno hobeto ulertzen lagunduko diguten tipologien lanketarekin lotutako guztia.

1. Kopuruak

2014ko urtarrilaren leian, EAEn erroldatutako biztanleen % 6,5 atzerritarra da (141.316). Datu horiek beste ikuspegi batetik begiratzen baditugu, zortzi urte atzera eginda, 2006 urtean, ikusiko dugu orduan 85.542 pertsona atzerritar bizi zirela EAEn. Zortzi urte geroago, % 65,2 handitu da biztanle atzerritarren kopurua (ikus 1. taula).

Lurralde historikoen arabera, Bizkaia da oraindik ere erroldatutako atzerritar gehien duen probintzia, 68.159 pertsona (% 48,2), eta jarraian Gipuzkoa eta Araba, 46.464 (% 32,9) eta 26.693 (% 18,9) pertsona atzerritar izanik hurrenez hurren.

1. taula. EAEko biztanleria atzerritarra, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. 2006 eta 2014

	2006					2014					
	Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak	Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	K	%	K	%	K	K	%	K	%		
Espainia	4.144.166		2.215.469	53,5	1.928.697	46,5	5.023.487	2.570.247	51,2	2.453.240	48,8
EAE	85.542		43.494	50,8	42.048	49,2	141.316	71.624	50,7	69.692	49,3
Araba	16.857		9.123	54,1	7.734	45,9	26.693	14.250	53,4	12.443	46,6
Gipuzkoa	25.290		13.042	51,6	12.248	48,4	46.464	23.499	50,6	22.965	49,4
Bizkaia	43.395		21.329	49,2	22.066	50,8	68.159	33.875	49,7	34.284	50,3

Egiaztatu dezakegun moduan, herritar atzerritarren ekarpena erabakigarria da oraindik ere demografia aldetik. 1998tik 2014ra, bertako herritarren kopurua murriztu egin da, 35.761 pertsona gutxiago dira, baina EAEko biztanleria gehitu egin da, 90.357 pertsona gehiago dira. Atzerriko nazioetatik 126.118 pertsona etorri direlako gertatu da hazkunde demografiko positibo hori. Horrenbestez, etorkin atzerritarren gehikuntza garbi ikus daiteke biztanleria guztiaren gehikuntzan eta baita biztanle atzerritarren gehikuntzan ere; hori kopurutan jarrita EAEn biztanleria guztiaren % 6,5 da eta Espainian, berriz, % 10,7.

Azken urteetan eta nazionalizazio-prozesuaren baitan, atzerritar nazionalitateko biztanleen parte bat naturalizatu egin da eta, horren ondorioz, jada ez dira atzerritar biztanle gisa agertzen estatistiketan. 2. taulan, ikus daiteke atzerrian jaiotako biztanleek izandako bilakaera eta horiek guztizko biztanleriarekiko duten pisua gutxi gorabehera bi puntu handiagoa dela, bai EAEn bai Estatuan.


2. taula. Bertako eta atzerritar biztanleriaren bilakaera, eta EAEko eta Espainiako atzerritarren ehunekoak. 1998-2014

	Biztanleria EAEn				Atzerritarren tasa	
	Guztira	Bertakoa	Nazionalitate atzerritarra		EAE	Espainia
	K	K	K	Hazkundera		
1998	2.098.628	2.083.430	15.198		0,7	1,6
1999	2.100.441	2.083.648	16.794	1.596	0,8	1,9
2000	2.098.596	2.077.456	21.140	4.346	1,0	2,3
2001	2.101.478	2.074.040	27.438	6.298	1,3	3,3
2002	2.108.281	2.069.873	38.408	10.970	1,8	4,7
2003	2.112.204	2.062.973	49.231	10.823	2,3	6,2
2004	2.115.279	2.056.113	59.166	9.935	2,8	7,0
2005	2.124.846	2.051.952	72.894	13.728	3,4	8,5
2006	2.133.684	2.048.142	85.542	12.648	4,0	9,3
2007	2.141.860	2.043.336	98.524	12.982	4,6	10,0
2008	2.157.112	2.039.775	117.337	18.813	5,4	11,4
2009	2.172.175	2.039.310	132.865	15.528	6,1	12,1
2010	2.178.339	2.038.970	139.369	6.504	6,4	12,2
2011	2.184.606	2.039.350	145.256	5.887	6,6	12,2
2012	2.193.093	2.041.199	151.894	6.638	6,9	12,1
2013	2.191.682	2.042.805	148.877	-3.017	6,8	11,8
2014	2.188.985	2.047.669	141.316	-7.561	6,5	10,7
1998-2014	90.357	-35.761	126.118		5,7	9,1

	EAE atzerrian jaiok		Atzerrian jaiotakoena eta nazionalitate atzerritarra dutenen arteko aldea	Jaiotza %	
	K	Hazkundera		EAE	Espainia
1998	26.334		11.136	1,3	2,9
1999	29.023	2.689	12.229	1,4	3,1
2000	35.143	6.120	14.003	1,7	3,6
2001	43.823	8.680	16.385	2,1	4,8
2002	55.868	12.045	17.460	2,6	6,2
2003	67.529	11.661	18.298	3,2	7,7
2004	78.206	10.677	19.040	3,7	8,6
2005	94.028	15.822	21.134	4,4	10,0
2006	108.094	14.066	22.552	5,1	10,8
2007	122.196	14.102	23.672	5,7	11,6
2008	142.484	20.288	25.147	6,6	13,1
2009	159.637	17.153	26.772	7,3	13,8
2010	167.382	7.745	28.013	7,7	14,0
2011	175.039	7.657	29.783	8,0	14,2
2012	183.772	8.733	31.878	8,4	14,3
2013	183.283	-489	34.406	8,4	14,1
2014	181.717	-1.566	40.401	8,3	13,4
1998-2014	155.383			7,0	10,5

Gainera, EAE izan da 2014 urtean atzerriko biztanleen beherakada erlatibo txikiena izan duen autonomia-erkidegoa. Beherakada horren arabera zenbaki absolututan 7.561 atzerritar gutxiago daude erroldatuta EAEn.

1. grafikoa. Atzerriko biztanleen urtetik urterako hazkundea EAEn, lurralde historikoetan eta Espainiako zenbait erkidegotan, eta biztanle atzerritarren ehunekoa (%) haietan guztietan



3. taula. Atzerriko biztanleria EAEn, nazionalitate-eremuen arabera eta lurralde historikoen arabera. 2014

	EAE		Lurralde historikoak					
	K	%	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	K	%	K	%	K	%	K	%
EB 25	17.022	12,0	2.865	10,7	8.024	17,3	6.133	9,0
EB 28ra handitzea	18.274	12,9	2.055	7,7	5.750	12,4	10.469	15,4
Guztira EB	35.296	25,0	4.920	18,4	13.774	29,6	16.602	24,4
Gainerako Europa	4.469	3,2	1.149	4,3	1.979	4,3	1.341	2,0
Europa guztira	39.765	28,1	6.069	22,7	15.753	33,9	17.943	26,3
Magreb	25.000	17,7	7.900	29,6	7.636	16,4	9.464	13,9
Gainerako Afrika	12.305	8,7	2.913	10,9	2.140	4,6	7.252	10,6
Afrika guztira	37.305	26,4	10.813	40,5	9.776	21,0	16.716	24,5
AEB eta Kanada	920	0,7	106	0,4	356	0,8	458	0,7
Latinoamerika	51.007	36,1	7.165	26,8	16.044	34,5	27.798	40,8
Amerika guztira	51.927	36,7	7.271	27,2	16.400	35,3	28.256	41,5
Txina	5.232	3,7	843	3,2	1.156	2,5	3.233	4,7
Gainerako Asia	6.904	4,9	1.661	6,2	3.306	7,1	1.937	2,8
Asia guztira	12.136	8,6	2.504	9,4	4.462	9,6	5.170	7,6
Ozeania	132	0,1	4	0,0	63	0,1	65	0,1
Herrigabeak	51	0,0	32	0,1	10	0,0	9	0,0
Guztira	141.316	100,0	26.693	100,0	46.464	100,0	68.159	100,0

Hau da biztanleria atzerritarren osaera, jatorri-eremuaren arabera (3. taula):

- Latinoamerikako nazionalitatea du EAeko atzerriko biztanleen % 36,1ek.
- Ipar Amerikak –Kanada eta AEB– % 0,7ko ekarpena du.
- Afrikatik etorritakoa da etorkinen % 26,4, eta, haien artean, magrebtarrak gehiengoak dira, atzerritar guztien % 17,7 baita magrebtarra.
- Asiatik etorritakoa da atzerritarren % 8,6, eta kontinente horretako etorkin gehienak Txinakoak dira, % 3,7 hain justu.
- EAeko biztanle atzerritar guztien % 28,1, berriz, europarra da. 2007an Errumania eta Bulgaria Europar Batasunean sartu zirenetik, Europar Batasuneko biztanleriaren pisu gero eta handiagoa da: EAeko atzerriko biztanleen % 25 da Europar Batasunekoak, eta % 3,2 Europar Batasunetik kanpoko europarra.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan, nabarmena da europarren ehunekoak (% 33,9). Araban, Afrikako biztanleen kopurua nabarmenagoa da (% 40,5), eta horien artean asko eta asko (% 29,6) magrebtarrak dira, EAeko (% 17,7) batez bestekoaren ia bikoitza. Bizkaian, atzerriko hamar biztanletatik lau (% 41,5) latinoamerikarrak dira jatorriz.

4. taula. Gaur egun EAEn dauden hamar nazionalitate nagusien bilakaera. 1998-2014

	1998		2000		2002		2004		2006	
	K	Posizioa	K	Posizioa	K	Posizioa	K	Posizioa	K	Posizioa
Atzerritarrak guztira	15.198		21.140		38.408		59.166		85.542	
Maroko	1.615	2	2.179	2	3.742	3	5.505	3	7.582	3
Errumania	100	29	212	22	699	15	2.652	5	6.265	5
Bolivia	41	40	39	51	143	32	1.505	11	6.016	6
Kolonbia	280	14	1.058	5	6.466	1	9.044	1	11.086	1
Portugal	3.241	1	3.906	1	4.317	2	4.607	4	6.265	4
Aljeria	163	20	339	15	1.010	11	1.936	8	2.315	10
Txina	423	10	739	9	1.152	8	1.558	10	2.530	9
Paraguai	17	59	22	63	53	54	213	35	1.141	18
Nikaragua	27	48	40	48	55	53	84	54	253	38
Brasil	439	9	974	6	1.855	5	2.269	7	3.790	7

	2008		2010		2012		2013		2014	
	K	Posizioa	K	Posizioa	K	Posizioa	K	Posizioa	K	Posizioa
Atzerritarrak guztira	117.337		139.369		151.894		148.877		141.316	
Maroko	10.270	4	14.447	2	17.832	1	18.214	1	18.421	1
Errumania	12.843	1	15.217	1	17.598	2	17.375	2	17.106	2
Bolivia	11.898	3	12.048	4	11.718	3	11.319	3	10.116	3
Kolonbia	12.159	2	12.845	3	11.162	4	9.757	4	7.654	4
Portugal	8.784	5	9.350	5	8.426	5	8.014	5	7.326	5
Aljeria	3.090	9	4.676	8	5.965	6	5.807	6	5.569	6
Txina	3.282	8	4.338	10	5.203	10	5.280	8	5.232	7
Paraguai	2.994	11	4.627	9	5.546	9	5.458	7	5.103	8
Nikaragua	1.120	23	2.267	15	3.878	12	4.390	11	4.730	9
Brasil	5.125	7	5.824	7	5.554	8	5.077	9	4.517	10

4. taulan EAEko hamar nazionalitate garrantzitsuenak ageri dira. Horietatik bost Latinoamerikakoak dira: Bolivia, Kolonbia, Paraguai, Brasil eta Nikaragua. Boliviako biztanleak nabarmen ugartu dira azken bederatzi urteotan: 2003an 428 pertsona ziren, eta 2014an, berriz, 10.116 dira. Biztanle-kopuruaren aldetik, EAEko hirugarren nazionalitate ugariena izan da 2013an. Magrebeko bi nazionalitate ere badira –Maroko eta Aljeria–, Europar Batasuneko bi –Errumania eta Portugal– eta Asiako bat –Txina–.

5. taula. 2014ko nazionalitate nagusien bilakaera. 2003-2014

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Nazionalitate nagusiak	6.397	7.333	9.718	14.225	22.256	29.286	36.327	45.585	54.730
Gainerako nazionalitateak	8.797	9.452	11.422	13.213	16.152	19.945	22.839	27.309	30.812
Guztira	15.194	16.785	21.140	27.438	38.408	49.231	59.166	72.894	85.542
Nazionalitate nagusiak	42,1	43,7	46,0	51,8	57,9	59,5	61,4	62,5	64,0
Gainerako nazionalitateak	57,9	56,3	54,0	48,2	42,1	40,5	38,6	37,5	36,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Nazionalitate nagusiak	65.061	78.006	87.764	90.778	92.617	94.673	91.017	85.774
Gainerako nazionalitateak	33.463	39.331	45.101	48.591	52.639	57.221	57.860	55.542
Guztira	98.524	117.337	132.865	139.369	145.256	151.894	148.877	141.316
Nazionalitate nagusiak	66,0	66,5	66,1	65,1	63,8	62,3	61,1	60,7
Gainerako nazionalitateak	34,0	33,5	33,9	34,9	36,2	37,7	38,9	39,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

2014ko urtarrilaren 1ean, 141.316 atzerritar daude erroldatuta EAEn, eta horietatik 122.994k egoitza-baimena edo -txartela dute. Horrenbestez, erre-regularizazio-tasaren kalkuluak adieraziko luke erroldatutako atzerritarren % 87k duela egoitza-baimena. Atzerritar gehienak administrazio-egoera irregularrean daudelako uste zabalduaren kontrakoa erakusten du datu horrek.

6. taula. Erregularizazio-indizea EAEn. 1998-2014

	Erroldatuak	Baimena	Erregularizazio indizea
1998	15.198	15.647	1,03
1999	16.793	16.995	1,01
2000	21.140	18.622	0,88
2001	27.438	18.822	0,69
2002	38.408	19.515	0,51
2003	49.231	24.201	0,49
2004	59.166	28.600	0,48
2005	72.894	37.150	0,51
2006	85.542	57.395	0,67
2007	98.524	64.228	0,65
2008	117.337	83.875	0,71
2009	132.865	96.635	0,73
2010	139.369	106.658	0,77
2011	145.256	110.063	0,76
2012	151.894	119.984	0,79
2013	148.877	123.484	0,83
2014	141.316	122.994	0,87

2. Atzerritarrei buruzko iritziak eta jarrerak

Egoera zein den jabetzeko balio duten datu horiek ikusita, 2014ko Barometroan lortutako informazioa aztertuko dugu: bertako jendeak atzerriko immigrazioari buruz dituen jarrerak, usteak, balioak eta iritziak adierazten ditu lan horrek. Azken urte hauetan denetan pilatutako esperientzia dela eta, jarrera eta iritzi horiek nondik nora egin duten ikusteko modua daukagu, azken urteetako barometroekin alderatuta, eta ikus dezakegu zenbateraino betetzen den ala ez krisi-garaian jarrera eta pertzepzio horiek okertu egingo zirela ziotenen iragarpena. “Atzerritarrei buruzko iritziak eta jarrerak” kapitulu honen egitura bost bloketan banaturik dago:

- Etorकिन presentziaren pertzepzioa: bolumena
- Etorकिन presentziaren pertzepzioa: arazo moduan
- Immigrazioak euskal gizartean duen eragina, hainbat arlotan: ekonomian, ongizatearen dimentsioetan, nazionalitatearen helburuetan, nortasunean, hizkuntzaren erabileran eta bilakaeran, harremanen bilakaeran.
- Komunitate hartzailearen eta etorkinen komunitatearen arteko bilakaera eta integrazioa: bizikidetzaren ereduak; estereotipoak eta aurreiritziak, zurrumurruek; eskubideak eta zerbitzuak izatea
- Immigrazio-politika: sartzea, bertan gelditzea eta kanporatzea

Bost blokeetan egitura berari jarraitu diogu:

1. Iritzi eta jarrerari loturiko emaitzak eta horien bilakaera (%) aurkeztu eta interpretatu da.
2. Dimentsio bakoitzaren indize sintetikoa landu dugu, alde esanguratsuak dauden profileen artean berezia jarrita.
3. Aztertutako bloke bakoitzaren ondorioak atera ditugu.

Etorकिन presentziaren pertzepzioa: bolumena


Inportantea da jakitea zer pentsatzen duten biztanleek pertsona immigranteen bolumenari buruz; izan ere, pertzepzio horrek aukera ematen du jakiteko immigrazioaren fenomenoaren tamaina berez dena baino handiagoa ikusten den ala ez, horrek eragina izan baitezake immigrazioarekiko jarrera on edo txarretan.

Lehenik eta behin, atzerritarren bolumenaren pertzepzioari buruzko datuak jaso ditugu, EAEn bizi diren etorkinen kopuru zehatza jakin aurretik eta jakin ondoren. Bigarrenik, etorkinen bolumenaren pertzepzioari buruzko indizea landu dugu eta, indize horretatik abiatuta, pertsona tole-ranteagoen edo uzkurragoen profila zehaztu dugu, beti ere kontuan hartuta ezaugarri soziodemo-grafikoak, sozioekonomikoak, identitate eta ideologiari loturikoak, nortasunari loturikoak eta elkarreragin eta kulturartekotasunarekin zerikusia dutenak. Azkenik, kapituluaren ondorio nagusiak jaso ditugu.

Baietz adierazten dute emaitzek, biztanleriak uste baitu egiaz daudenak baino immigrante gehi-ago daudela. 1. grafikoan ikus dezakegun moduan, euskal gizartearen gehiengoak (% 37,7k) pen-tsatsen du atzerritar gehiegi bizi dela EAEn, edo atzerritarren kopurua nahikoa dela (% 29,5ek). Bestalde, % 2,3k soilik uste du gutxi direla, edo ez direla nahiko (% 0,2k), eta % 26,1ek uste du atzerritarren kopurua egokia dela¹.

Gainera, 2007 urteaz geroztik izan den bilakaerak erakusten du gehiegi direla uste dutenen ehu-nekoa (% 30-37 inguru) ez dela askorik aldatu urtea joan, urtea etorri. Azken urte honetan 3 puntu handitu da (% 34,8tik % 37,7ra). Alabaina, nahikoa direla uste dutenak nabarmen gu-txitu dira (% 45,0 2007an, eta % 29,5 2014an), eta atzerritarrak gutxi izatearen pertzepzioak ere nabarmen egin du behera (% 12tik % 2,3ra). Azken datu horiek agian 2012 urtean “ego-kiak dira” aukera sartu zelako eman dira, % 26,1ek horrela dela pentsatzen baitu.

2. grafikoa. Atzerriko biztanleriaren bolumenaren hasierako pertzepzioa



Zer iritzi duzu beste herrialde batzuetatik etorri eta Euskadin bizi diren pertsonen kopuruari buruz? (g3)


Ba al da inolako loturarik atzerriko pertsonen benetako bolumenaren eta herritarrek horri buruz duten pertzepzioaren artean? Galdera honen erantzuna 3. grafikoan topa dezakegu. Bertako biz-tanleek uste dute biztanleen % 15 dela atzerritarra. Etorkin-kopuruaren gaineko ikuspegi hori ez dator bat 2014ko urtarrilaren 1eko² benetako erroldatze-datuarekin. Hain zuzen, datu horien ara-

¹2012ko Barometroan erantzun-aukera bat gehitu zaie lehenetik zeudenei: “egokiak dira”, eta horrenbestez, alde hori kontuan hartu behar dugu emaitzak aztertzerakoan, eta batez ere eboluzioari buruzko irakurketa egiten dugunean.

²Iturria: INE. 2014ko urtarrilaren 1eko behin-behineko datuak.

bera, EAEn % 6,5 da atzerritarra. Hau da, bertako biztanleek atzerritarren bolumenari buruz duten ustea egiazko bolumenaren halako bi baino handiagoa da. Alegia, bolumenaren pertzepzioa eta erroldako datuak ez datoz inolaz ere bat.

3. grafikoa. Zure ustez, EAEn bizi diren 100 pertsonatik zenbat dira atzerritarrak?




Zure ustez, Euskadin bizi diren 100 pertsonatik gutxi gorabehera zenbat jaio dira atzerrian, Espainiatik kanpo? (g4)

Fenomeno hori errepikatu egiten da aurreko lau urteetan. Gainera, bitxia da, jendeak hautematen duen batez bestekoa beti % 15 eta % 18 artean dago (3. grafikoa). Zehazki, 2007an, hemengo jendeak uste zuen euskal gizartearen % 17,9 atzerritarra zela, eta 2008an % 16,8k uste zuen hori, 2009an % 17,2k eta 2014an % 15ek.

Galdera horren beraren erantzunak ageri dira 4. grafikoa EAEn erroldatuta dauden atzerritarrei buruzko datu erreala eman ondoren. Hori egitearen arrazoia da jakitea ea egiazko kopuruaren berri izateak eraginik ba ote duten atzerritarren bolumenaren pertzepzioan. Emaitzak erakusten du benetako kopuruaren berri izateak baduela eraginik, baina ez espero zitekeena bezain bestekoa. Izan ere, bertako biztanleen % 25,8k uste du gehiegizkoa dela atzerritarren portzentajea % 6,5ekoa izatea, % 27,6k uste du atzerritarren ehuneko hori nahikoa dela, eta % 35ek egokia.

4. grafikoa. Erroldatutako atzerritarren bolumenaren hasierako pertzepzioa eta erroldaren datua eman ondorengoa



Esaten badizut Euskadin bizi diren 100 pertsonatik 6 beste herrialde batzuetan jaiotako etorkinak direla, berdin pentsatzen jarraitzen duzu ala beste iritzi bat duzu? Zein? (g5)

Aldaketa handiena, hala ere, gutxi direla uste duten pertsonen portzentajea da, % 7,3koa izan baita. 2007. urtetik hona izan den bilakaerari erreparatuz gero, aldaketa handiak izan dira emaitza horietan, % 32tik gaur egungo % 7,3ra igaro baikara. Hein handi batean askok eta askok “egokiak dira” aukera berriaren alde egin dutelako gertatu da hori. Hala, aldagai horren denbora-segidan aldaketa ekarri du aukera berriak.

Emaitza horiek erakusten digute, oro har, egiaz Euskadin bizi direnak baino atzerritar gehiago daudenaren ustea duela euskal gizarteak. Asko dira, gainera, immigranteen kopurua dezentekoa dela uste dutenak, eta ehuneko adierazgarri batek uste du gehiegi direla. Erroldatutako atzerritarren benetako kopurua uste zutena baino bi aldiz txikiagoa dela esaten zaienean ere, jendeak eutsi egiten dio pertzepzio horri. Hala ere, nabarmentzekoa da, era berean, galdetutako pertsonen % 35aren ustez ehuneko egokia dela atzerritarren portzentajea % 6,5ekoa izatea; areago, % 7,3ren ustez txikia ere bada ehuneko hori. Horrenbestez, ondorio hau atera dezakegu: gehien-gehienek uste dute etorkinak berez direna baino gehiago direla, eta jakinarazten zaienean egiaz zenbat atzerritar dauden erroldatuta, euskal gizarteak bi pentsamolde nabarmen hartzen ditu: ia erdiak, % 53,4k, nahiko edo gehiegi direla uste du eta erdiak baino gutxiagok (% 42,3k), kopurua egokia dela uste du, edo, agian, txikiegia ere bai.

Bestalde, atzerritarren bolumenaren pertzepzioa zertxobait jaitsi da azken urtean (-1,5 puntu). Horrek krisialdiari buruz azken aldi honetan eman den informazioak izan duen eragin mediatikoa adierazten du, eta baita, etorkinak bere herrialdetara itzuli izana ere. Etorkinen artean eman den % 6,8tik % 6,5erako jaitsiera horrek, neurri handi batean behintzat, zerikusi handia du gertatu den nazionalitateen prozesuarekin, batez ere, azken urtean.

Atzerriko etorkinen bolumenaren pertzepzioari buruzko indizea

Hiru galdera horien erantzunekin (galdeketako g3, g4 eta g5 itemak) atzerriko immigranteen bolumenaren pertzepzioari buruzko indize partziala landu dugu. Oti 10 puntura doa indize hori; horrela, jarrera alarmistena eta/edo gehiegizko pertzepzioa dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta jarrera eta pertzepzio ez hain kezkatua eta zuzenagoa dutenak, 10 puntura.

Estatistika aldetik alde nabarmenak aurkitu ditugu bertako herritar talde batzuen eta besteen artean, zenbait ezaugarri soziodemografiko, sozioekonomiko, ideologiko-identitario eta psikosozial eta harremanei loturikoen arabera. Hala, immigranteen bolumenaz duten pertzepzioaren arabera, honako hau da jarrera toleranteena agertzen duten pertsonen profila (eskan puntuazio handiagoa):

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Gizonezkoak (4,89 puntu)
- 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (4,96 puntu)
- Goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (5,59) eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (5,40 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 2.500 euro baino gehiagoko diru-sarrera garbiak dituzten pertsonak (5,28 puntu)

- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura dauden pertsonak (4,94) edo axolarik ez zaienak (4,80 puntu)
 - Ikasleak (5,06) eta lanean ari diren pertsonak (5,00 puntu)
 - Estatus sozioekonomiko altua edo erdi-maila altukoa duten pertsonak (5,71 puntu)
 - Krisialdiak ia eragin ere ez dien pertsonak (4,91) edo nolabait eragin dienak (4,85 puntu)
- Ezaugarri ideologiko-identitarioak:
- Agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (5,51 puntu)
 - Batez ere euskaldun sentitzen diren pertsonak (4,83 puntu)
 - Zentro-ezkerreko ideologia duten pertsonak (5,20), eta ezkerrekoak (5,12 puntu)
 - Beren burua oso abertzaletzat duten pertsonak (4,83), eta abertzale moderatutzat dutenak (4,80 puntu)
 - Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (4,97 puntu)
- Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:
- Pertsona baikorrak (4,88) eta horri buruz iritzi garbirik ez dutenak (4,69 puntu)
 - Etorkizunari begira iritzi garbirik ez duten pertsonak (5,02) edo aurreikuspen onak dituzten pertsonak (4,92 puntu)
 - Bertakoak gehiengo diren auzoetan bizi diren pertsonak (4,93 puntu)
 - Eremu pribatuan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (5,02 puntu)
 - Eremu publikoan etorkinekin noiz edo noiz hartu-emana duten pertsonak (4,83) eta hartu-eman handia dutenak (4,76 puntu)
 - Aisialdian etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (5,22 puntu)
- Beste muturrean immigrazioarekiko jarrera uzkurragoa (eskalan puntuazio txikiagoa) duten pertsonen profila dugu. Immigrazioaren bolumenari buruzko ikuspegi gehiegizkoan adierazten da jarrera hori. Hauexek dira:
- Ezaugarri soziodemografikoak:
- Emakumezkoak (4,66 puntu)
 - 64 urtetik gorako pertsonak (4,33 puntu)
 - Ikasketarik gabeko pertsonak (4,13), eta lehen mailako ikasketak dituztenak (3,98 puntu)
- Ezaugarri sozioekonomikoak:
- Familian eta hilean gehienez ere 1.000 euroko diru-sarrera garbiak dituzten pertsonak (4,06 puntu)
 - Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (4,66 puntu)
 - Etxekoandreak (3,96 puntu)
 - Estatus sozioekonomiko baxua duten pertsonak (4,30 puntu)
 - Krisialdiak gogor astindu dituen pertsonak (4,37 puntu)
- Ezaugarri ideologiko-identitarioak:
- Pertsona katolikoak, praktikanteak (4,09) edo ez (4,44), edo beste erlijioetakoak (3,53 puntu)
 - Batez ere espainiar sentitzen diren pertsonak (4,00 puntu)

- Zentroko ideologia duten pertsonak (4,26), eta eskuinekoa dutenak (3,73 puntu)
- Beren burua nazionalista espainiartzat jotzen duten pertsonak (4,07 puntu)
- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (4,39 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorrak (4,33 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (4,37 puntu)
- Etorkinak gehiengo diren auzoetan bizi diren pertsonak (4,27), eta etorkin eta bertakoen nahasketa dagoen auzoetan bizi direnak (4,25 puntu)
- Ereku pribatuan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,52 puntu)
- Ereku publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,36 puntu)
- Aisialdian etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,36 puntu)

Etorkinen presentziaren pertzepzioa: bolumena

Datuek argi adierazten dute euskal gizarteak immigrazioari buruz duen uste edo pertzepzioa ez datorrela bat EAEn bizi diren atzerritarren bolumenarekin. Zehazki, estatistika ofizialetan erregistratuta eta errolatuta dauden atzerritarren ehunekoak baino ia bi aldiz portzentaje handiagoa hautematen du euskal gizarteak. Horrez gainera, bertan bizi diren atzerritarren kopurua baloratzeko eskatzen denean, gehienek uste dute askotxo edo gehiegi direla. Datu hori esanguratsua da, aintzat hartzen bada atzerritarren portzentajea, Euskal Autonomia Erkidegoan, nahiko apala dela, beste lurralde batzuekin alderatuz gero.

Alde horretatik, Barometroak beste datu esanguratsu bat ere erakusten du: inkestazaileak atzerritarren benetako portzentajea (% 6,5) jakinarazten denean, “askotxo edo gehiegi” direla uste dutenek kontrako bi jarrera nabarmen hartzen dituzte; hala, batzuek gehiegi edo nahiko direla esaten dute (% 53,4), eta beste batzuek kopurua egokia dela adierazten dute (% 35).

2007. urtetik hona izan den bilakaera aztertzen badugu, ikusten da, bitxia bada ere, hautematen den atzerritarren kopuruak egonkor dirauela, nahiz eta urtetik urtera igo egin den errolatutako atzerritarren kopurua. Hau da, atzerritar gehiago izateak ez du esan nahi bolumen handiagoa hautematen edo sumatzen denik.

2014ko Barometroan zertxobait gora egin du gehiegi direla usten duten pertsonen ehunekoak (+5,9), edo askotxo direla dioten ehunekoak (+0,9), eta behera egin du egokia dela (-3,7) uste dutenen ehunekoak.

Etorkinen presentzia arazotzat hautematea


Bizikidetzan eragina duen faktore nagusietako bat da immigrazioa arazotzat hautematea edo ikustea. Alderdi edo puntu hori aztertzeke, Euskadin gaur egun zer hiru arazo nagusi dauden galdetu dugu lehenik eta behin, eta modu espontaneoan, bat-batean, eman diren erantzunak bildu ditugu. Gerora, Eurobarometroan baliatzen den moduko arazo-zerrenda bat erakutsi ondoren egin dugu galdera bera. Azkenik, galdera bera egin dugu baina immigrazioa arazo pertsonaltzat harturik.

5. grafikoan jaso dira bat-bateko erantzunak. Langabezia da, alde handiarekin, inkestari erantzun diotenen adierazitako arazorik handiena (% 89,5); ondoren, arazo ekonomikoak (% 28,4), eta politikariak (% 23,7) datoz. Bat-bateko hiru erantzunetan, EAeko biztanleen % 12,1ek aipatu du immigrazioa arazo gisa, eta % 2,2k adierazi du Euskadiko arazo nagusia dela. Ikusten da, horrenbestez, krisi ekonomikoak eragina izan duena arazoak hautemateko orduan, krisiarekin lotutako arazoak baitira garrantzitsuenak jendearentzat.

2013ko barometroarekin alderatuta immigrazioa arazotzat hartzen dutenen ehunekoa % 7,2tik % 12,1era igo da. Igoera horren atzean topatu ditzakegun arazoien artean hedabideen eragina dago, izan ere immigrazioa asko hitz egin den gaia izan da azken urte honetan. Nolanahi ere, immigrazioa euskal herritarrentzako arazo moduan txikiagoa da beste hainbat arazorekin alderatuta, izan ere, oraingo egoeran euskal gizartearen % 2,2k bakarrik aipatzen du immigrazioa Euskadiko lehen arazo moduan.

Hipotesi zabalduenak dio immigrazioaren pertzepzioak okerrera egiten duela krisi ekonomiko luzearen heinean. Hala ere, emaitza horiek ez dute hipotesi hori betetzen. Beraz, zer esaten digu datu horrek, Euskadin ez dela gizarte-arazotzat hartzen immigrazioa? Hipotesi hori oso konplexua denez, ezin dugu horrelako ondorioz atera datu horretan oinarrituta. Datu horrek adierazten duena da krisiak gizartearen eragin dituen ondorio larrien ondorioz, herritarrek arazo sozioekonomikoak lehenetsi dituztela, eta gainerakoak bigarren mailan geratu direla.


5. grafikoa. Euskadiko arazoak (bat-bateko erantzunak)



Zure ustez, zein dira gaur egun Euskadik dituen 3 arazo nagusiak? (g3)

Aztertzen badugu 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014ko barometroen bilakaera (6. grafikoa), ohartuko gara azkeneko zazpi urteetako bat-bateko erantzunetan herritarrek langabezia jo dutela Euskadiko arazorik handientzat. Langabeziaren inguruko kezka izugarri egin zuen gora 2009an, krisia gogor jotzen hasi zenean, eta areagotzen jarraitu du etenik gabe 2013ra arte, eta horrela jarraitu du 2014an (% 89,5), hala, 2007tik hona % 42 handitu da langabeziarekiko kezka. Bestalde, nabarmen jaitsi da, esaterako, ETAk eta beste zenbait arazok eragindako kezka. Terrorismoaren kasuan, % 50 ingurukoa izatetik % 3,9 izatera igaro da 2014an.

6. grafikoa. Euskadiko arazo nagusien bilakaera. 2007-2014




Immigrazioaren gaian, berriz, bilakaera ez da uniforme izan. 2007 urtean, EAEko gizartearen % 15ek hartzen zuen arazotzat bat-bateko erantzunetan, baina portzentaje hori % 7,2ra jaitsi zen 2008an. Urte horretatik aurrera, immigrazioa arazotzat hartzen duten pertsonen ehunekoak gora egin zuen, harik eta 2010ean % 15,4ra iritsi zen arte. Hain zuzen, 2010ekoa izan da orain arteko ehunekorik handiena. Azken urte hauetan nolabaiteko aldaketak izan zituen, 2014an % 12,1era iritsi zen arte.

Inkesta-egileak aukeran utzitako arazo-zerrenda ikusi ondoren herritarrek emandako erantzunak adierazten ditu 7. grafikoak. Inkesta-egileak hamar arazoko zerrenda eman zien aukeran, herritarrek hiru hautatzeko. Erantzun horiek adierazten dute immigrazioa arazotzat hartzen dutenen portzentajea % 14,8ra igotzen dela, hau da, bat-batean emandako erantzunetan baino %2,7 gehiago. Hala ere, egoera ekonomikoaren ondorioz sortutako arazoak dira oraindik ere garrantzitsuenak euskal gizartearentzat: langabezia (% 81,6), bizitzaren kostua (% 35) eta pentsioak (% 26,3). Nabarmena da, beraz, arazo ekonomikoak direla, immigrazioaren gainetik, euskal gizarteari kezka gehien eragiten diotenak.

Konparatzen badira 2013ko eta 2014ko datuak, ikusten da immigrazioak gora egin duela iradokitako arazo gisa; % 11,7tik % 14,8ra igaro da, hau da, 3,1 puntu igo da.


7. grafikoa. Euskadiko arazoak (iradokitako erantzunak)



Txartel honetan aurkeztutako arazoen artean, zure ustez zein dira Euskadiko hiru nagusiak? (g2)

Bestalde, komeni da jakitea bertako herritarrek arazo pertsonaltzat hartzen ote duten immigrazioa. Eredu pertsonalak garrantzi berezia du bizikidetzan. Emaitzek argi adierazten dute euskal gizarteak ez duela halakorik ikusi edo hautematen, bat-bateko erantzunetan % 0,4k baino ez baitu aipatu lehen arazotzat, eta aipamen guztiak aintzat hartuta, berriz, % 7,5ek soilik. 2013ko datuekin alderatuz gero, immigrazioa arazo pertsonaltzat jotzen dutenen ehunekoak gora egin du, % 5,3tik % 7,5era.

8. grafikoa. Immigrazioa Euskadin arazotzat hartzeak izan duen bilakaera, iradokia eta pertsonala. 2007-2014




(g1, g2). Zein dira zuri pertsonalki gehien eragiten dizuten 3 arazoak? (gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna) (g22)

Konparazio interesgarri bat egiten da 8. grafikoa: immigrazioa arazotzat hartzen da, batik bat, inkestazaileak immigrazioaren gaia iradokitzen duenean, baina, inkestatuak bat-batean erantzuten badu edo arazo pertsonala ote den galdetzen bazaio, ez da hainbesteko arazotzat hartzen. Joera horrek adierazten du euskal gizarteak ez duela "immigrazioaren arazo" arazo larritzat har-

tzen, baldin eta gaia ez bada gizarte-debateko gaien artean sartzen; izan ere, gaia iradokitzen denean adierazten du jendeak, batik bat, gaia arazo bat izan daitekeela, eta oso jende gutxi ikusten du arazo pertsonal moduan.

9. grafikoa. Arazo pertsonal nagusien bilakaera. 2007-2009



2007tik arazo pertsonal nagusiek denboran izan duen bilakaera aztertuta (9. grafikoa), garbi ikusten da langabezia izan dela arazo pertsonal nagusia azken urte hauetan, eta horrela da oraindik ere (% 63,9), immigrazioa arazo pertsonaltzat hartzen dutenen ehunekoa, ordea, askoz ere txikiagoa da, gorakada arin bat izan badu ere azken hiru urte hauetan.

Atzerriko immigrazioa arazotzat hartzearen indizea

Hiru galdera horien erantzunekin (galdetegiko g1, g2 eta g22 itemak), pertzepzio-indize partzial bat landu dugu: atzerriko immigrazioa arazotzat hartzearen indizea. Otik 10erako eskala batean taxutu dugu indize hori. Horrela, immigrazioa arazo izatearekin gehien lotzen dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta arazotzat hartzen ez dutenak, 10 puntura. Indize hori nola landu den zehatzago jakiteko, irakurleak jo beza metodologiaren kapitulura.

Ikerketa-eremu horretan ere estatistika aldetik alde esanguratsuak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrenbestez, immigrazioa arazotzat hartzen duten ala ez galdetuta herritarrek emandako iritzien arabera, honako hau da jarrera toleranteagoa erakutsi duten pertsonen profila:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (9,44 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin ardurarik ez duten pertsonak (9,32 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Agnostikoak, ateok eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (9,62 puntu)
- Ezkerreko ideologia duten pertsonak (9,57), zentro-ezkerrekoak (9,19) eta zentrokoak (9,03 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (9,32) eta beren burua ez baikortzat eta ez ezkortzat ez duten pertsonak (9,24 puntu)
- Etorkizunari buruz iritzi garbirik ez duten pertsonak (9,27 puntu)
- Ereku pribatuan etorkinekin noiz edo noiz hartu-eman duten pertsonak (9,41) eta hartu-eman handia dutenak (9,37 puntu)
- Ereku publikoan etorkinekin noiz edo noiz hartu-eman duten pertsonak (9,27) eta hartu-eman handia dutenak (9,30 puntu)

Beste muturrean, immigrazioarekiko jarrera uzkurrena agertu duten pertsonen profila dugu. Immigrazioa arazotzat hartzen dute pertsona horiek, eta hortik beren jarrera uzkurra. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak (9,98 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonak (9,00 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Pertsona katoliko praktikanteak (8,72 puntu)
- Eskuineko ideologia duten pertsonak (8,12 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorak (8,87 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen onak dituzten pertsonak (8,89 puntu)
- Ereku pribatuan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (9,00 puntu)
- Ereku publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (8,95 puntu)

Etorkinen presentzia arazotzat hautematea

Laburbilduz, gizarte-arazotzat hartzen al da immigrazioa Euskal Autonomia Erkidegoan? 2014ko Barometroak adierazten du gizartearen gehiengoak ez duela pertsona immigranteen presentzia arazo sozial edo pertsonaltzat hartzen. Soilik % 12,1ek erantzun du, bat-batean, immigrazioa arazo bat dela, eta % 7,5ek hartzen du arazo pertsonaltzat. Inkesta-egile edo galdetzaileak immigrazioaren gaia iradokitzen duenean, neurri handiago batean

hartzen da immigrazioa arazotzat (% 14,8). Krisiak enpleguan izan ditzakeen eragin kaltegarriak, bizitzaren kostua eta pentsioak dira euskal gizartearen kezka nagusiak (iradokitako arazoaren artean).

Euskal gizarteak ez du arazotzat hartzen immigrazioa. 2013an, herritarren % 7,2k adierazi zuen immigrazioa arazo bat zela Euskal Autonomia Erkidegorako, eta 2014an % 12,1ek adierazi du iritzi hori, gorakada nabarmena izan da aurreko urtearekiko. 2008tik 2010era etorkinen presentzia arazotzat hautematen zutenen ehunekoak gora egin zuen, 2011n nabarmen egin zuen behera, eta 2012an berriro ere zertxobait gora egin zuen. 2007tik orain arte etorkinen presentzia arazotzat hartzen duten pertsonen ehunekoak 2,9 puntu egin du behera.

Krisi ekonomikoa handitzen eta denboran luzatzen aritzea, hori da gizartearen kezka handiena, agerikoa baita langabezia gora egiten ari dela, gizarte-alorreko murrizketak egiten ari direla eta Ongizate Estatua gero eta kinka larriagoan dagoela. Horiek dira debate publiko eta mediatikoan pil-pilean dauden gai nagusiak, eta ezkutatu edo bigarren maila batean geratu dira aurreko Barometroetan garrantzitsutzat jotzen ziren gainerako arazoak.

Euskal gizartean duen eragina

Atzerriko biztanleen hazkundeak euskal gizartean izan dezakeen eragina, positiboa nahiz negatiboa, aztertuko dugu atal honetan, eta zenbait alderdiri erreparatuko diogu horretarako. Horretarako, ekonomian, ongizatean, euskal identitatean eta harremanen garapenean immigrazioak dituen eraginei buruz galdetu diegu inkestak. Arloz arlo, euskal gizarteak zer iritzi duen aztertu dugu, baita iritzi horrek zer bilakaera izan duen ere. Adibidez, arlo bakoitzean honako alderdi hauei buruz galdetu diegu:

- ekonomiaren arloan, langabeziari, soldatei, lanpostuei eta abarrei buruz
- ongizatearen arloan, hezkuntza, etxebizitza, ospitale eta gizarte-laguntzei buruz
- euskal nortasunaren arloan, euskal nazionalismoaren helburuei, nortasunari, hizkuntzaren erabilerari eta garapenari buruz
- harremanen garapenari buruz

Gainera hainbat indize sintetiko prestatu eta aztertu dira -atzeritarren immigrazioaren eragin ekonomikoen pertzepzio-indizea, atzeritarren immigrazioak euskal gizartean duen eraginaren pertzepzio-indizea, immigrazioaren eragin guztiaren pertzepzio-indizea-, euskal gizartean immigrazioak duen eraginari buruzko ondorioekin amaitzeko.


Ekonomian

Krisi ekonomikoa eraginik izaten ari al da immigrazioak ekonomian dituen ondorioei buruz bertako herritarrek duten ikuspegi edo pertzepzioan? Badu bai, eraginik, eta kontuan hartuta gaur egun langabezia eta arazo ekonomikoak direla euskal gizartean kezka gehien sortzen duten gaiak, garrantzitsua da jakitea herritarrek zer balorazio eta iritzi duten immigrazioaren gaiari buruz. Oro

har, esan dezakegu, 10. eta 11. grafikoetan ikusten den moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren ustez immigrazioak eragin kaltegarriagoa duela ekonomian onuragarria baino. Baina esan behar da anbibalentzia-maila bat eta ñabardurak ere badirela, eta ez dela argi eta garbi kaltearen edo onuraren alde egiten.


Bertako herritarren % 54,9k uste du atzerritarrek langabezia areagotzen dutela Euskadin, eta % 31,4k ezetz uste du (11. grafikoa). Inkestatuen % 47,4k ez du uste immigranteak beharrezkoak direnik ekonomia-sektore jakin batzuetan lan egiteko, eta % 30,4k baietz uste du, beharrezkoak direla (11. grafikoa).

10. grafikoa. Atzerriko immigrazioaren eragin ekonomikoa Euskadin. 2010-2014




Atzerritarrek langabezia handitzen dute Euskadin (18j g).

11. grafikoa. Atzerriko immigrazioaren eragin ekonomikoa Euskadin. 2004 -2014




Soldata jaitsi egiten da hona bizitzera eta lanera datozenengatik (6a g).



Immigranteak behar ditugu gure ekonomiako sektore batzuetan lan egiteko (6c g)*

*2004, 2007, 2008 eta 2009ko barometroak: Immigranteek hemengoek nahi ez dituzten postuak betetzen dituzte.




Ekonomiak hobeto funtzionatzen du, hemengo jendeak bete nahi ez dituen postuak betetzen baitituzte etorkinek (6e g).

Aitzitik, inkestatuen % 49,5ek ez du uste soldatak EAera bizitzera eta lanera etortzen direnengatik jaisten direnik, % 40,7k, ordea, hori horrela dela uste du (11. grafikoa). Azkenik, % 32,8k uste du immigrazioarekin ekonomiak hobeto funtzionatzen duela, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako etorkinek, herritarren % 41,1ek, ordea, ez du hori uste.

Aztertuz gero 2004, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014ko barometroek izan duten bilakaera, ikusten da, krisi ekonomikoa luzatu ahala, indar handiagoa hartu dutela, zenbait kasutan, jarrera negatiboek:

- 2004. urtean, egoera ekonomikoa ona zenean eta krisirik ez zegoen garaian, inkestatuen %40k adierazi zuen immigranteen etorrerak soldaten jaitsiera zekarrela, eta %47 ez zegoen ados horrekin. 2014an, jendearen iritzia ez da oso bestelakoa: % 40k baietz uste du, etorkinek soldaten jaitsiera dakartela, eta, aldiz, % 49,5ek ez du uste horrela denik.
- Euskal gizarteak, duela zenbait urte, beharrezkotzat jotzen zuen pertsona immigranteak izatea ekonomia-sektore jakin batzuetan lan egiteko, baina urteen joanean aldatu egin da ideia horrekiko adostasun-maila. 2004an, herritarren % 80k pentsatzen zuen atzerritarren esku-lana beharrezkoa zela, 2014an ehuneko hori erdia baino gutxiago izatera iritsi da (% 30,4), 2004an desadostasun-maila % 11koa bazen, ordea, 2014an % 47,4koa izatera iritsi zen. Horrenbestez, 2004tik orain arte aldaketa handia izan da herritarren iritzian, eta orain herritarren gehiengoak pentsatzen du etorkin gehienak ez ditugula behar gure ekonomiaren zenbait sektoretan lan egiteko. Bistan denez, langabeziaren gorakadak eta zenbait lanpostutan eskaintza murrizteak eragin nabarmena izan du joera horretan.
- Ildo horretatik, bertako jendeak nahi ez dituen lanak betetzeagatik immigrazioak ekonomia-ri laguntzen diola pentsatzen duen biztanleen portzentajea 2004an % 63koa izatetik 2014an % 32,8koa izatera igaro da, 2004an hasi zen beherakada pixkanakakoa izan da, eta jaisteari ez dio utzi 2004ko barometrotik 2014ko barometrora arte. Iritzi publikoak, krisiaren eta enplegu-eskasiaren ondorioz, aldatu egin du immigrazioak gutxi ordaintzen diren lanpostu jakin batzuk betetzeko duen balio instrumentalari buruz zuen iritzia.
- Immigrazioak langabezia duen eraginari buruzko galderari erantzutean (2010eko Barometroan egin zen lehen aldiz galdera hori) ikusten da immigrazioaren eta langabeziaren igoeraren arteko loturari buruzko iritzi-jarrerak behera egin duela % 60,8tik (2010ean) % 54,9ra (2014an).

12. grafikoa. Atzerriko pertsona gehiagoren etorrerak ekar ditzakeen ondorio ekonomikoekiko kezka



Atzerriko pertsona gehiago iristeak zuri edo zure familiari modu negatiboan eragiteak kezkatzen zaitu, zehazki esparru hauetan: lana aurkitzea? (23a g)

Immigrazioak ekonomian dituen ondorioei buruzko jarrera eta pertzepzio orokor horiek antzematen dira, halaber, bertako biztanleek ekonomia pertsonalari edo familiarri buruz ematen dituzten iritzietan. Datuek 2008tik izan duten bilakaerari erreparatzen badiogu, antzematen da krisiaren eraginez areagotu egin direla balorazio negatiboak, eta, era berean, murriztu egin dela pertsona immigranteen kolektiboari aurreko urteetan egotzen zitzaion lan-funtzionalitatearekiko babesa. 12. grafikoa ikus dezakegunez, lana aurkitzeko orduan etorkin gehiago etortzeagatik genuen kezka gehitu egin da zertxobait 2008tik 2012ra. Data horretatik aurrera pixkanaka jais-ten hasten da 2014 urtera arte (% 39,4).

Esparru horretako bost galderei (galdetegiko g6a, g6c, g6e, g6e, g18j eta g23a itemak) emandako erantzunekin, atzerriko immigrazioak sortutako eragin ekonomikoaren pertzepzioari buruzko indize partziala prestatu dugu. Indizearen eskala 0tik 10 puntura doa; horrenbestez, immigrazioak ekonomian duen eraginari buruzko ikuspegi negatiboena dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta ikuspegi positiboena dutenak 10 puntura.

Ikerketa-eremu horretan ere estatistika aldetik alde esanguratsuak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrenbestez, immigrazioak ekonomian duen eraginari buruzko pertzepzio positiboa agertu eta, horren bidez, jarrera toleranteena erakutsi duten pertsonen profila honako hau da:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (5,86) edo goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (5,73 puntu)
- Hiru lurraldeetako hiriburuetan bizi direnak (5,17 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 2.500 euro baino gehiagoko diru-sarrerara garbiak dituzten pertsonak (5,61 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonak (5,52 puntu)
- Ikasleak (5,56 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua duten pertsonak (5,91 puntu)
- Krisialdiak ia eragin ere ez dien pertsonak (5,51) edo nolabait eragin dienak (5,15 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (5,58 puntu)
- Batez ere euskaldun sentitzen diren pertsonak (5,03 puntu)
- Ezkerreko ideologia duten pertsonak (5,33), eta zentro-ezkerrekoa dutenak (5,29 puntu)
- Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (5,09 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (5,14 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen onak (5,38) eta normalak dituzten pertsonak (5,33 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (5,54 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin noiz edo noiz hartu-emanena duten pertsonak (5,04) eta hartu-eman handia dutenak (5,16 puntu)
- Aisialdian etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (5,93 puntu)

Beste muturrean, immigrazioarekiko jarrera uzkurrena agertu duten pertsonen profila dugu. Immigrazioak ekonomian duen eraginari buruzko ikuspegi negatiboa dute pertsona horiek, eta hortik beren jarrera uzkurra. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak (4,26), edo ikasketarik gabekoak (4,44 puntu)
- 5.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren pertsonak (4,58 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 1.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerara garbiak dituzten pertsonak (4,61 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (4,40 puntu)
- Etxekoandreak (4,35 puntu)
- Estatus sozioekonomiko baxua duten pertsonak (4,61 puntu)
- Krisialdiak gogor astindu dituen pertsonak (4,47 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Katolizismoa ez den beste erlijio batzuetako pertsonak (4,20 puntu)
- Batez ere espainiar sentitzen diren pertsonak (4,51 puntu)
- Zentroko ideologia duten pertsonak (4,53), eta eskuinekoa dutenak (4,35 puntu)
- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (4,80 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorrak (4,67 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (4,80 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin oso hartu-eman gutxi duten pertsonak (4,95) eta inolako hartu-emanik ez dutenak (4,79 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,63 puntu)

- Aisialdian etorkinekin hartu-eman gutxi duten pertsonak (5,01) edo batere ez dutenak (4,65 puntu).


Ongizatearen arloko eraginak: irakaskuntza, etxebizitza, ospitaleak, gizarte-laguntza

Atal honetan, atzerriko pertsona gehiago etortzeak beren ongizate-egoeran izan dezakeen eraginak kezkarik sortzen ote dien galdetu zaie herritarrei (13. grafikoa); zehazki, gizarte-laguntzak eskuratzeari, irakaskuntzaren kalitateari, etxebizitzari eta osasun-arretari loturiko alderdiei buruz galdetu zaie.

Bertako biztanleria kezkatuta dago immigrazioak bere ongizatearen hainbat alderditan izan dezakeen eragin kaltegarriaz, eta, bereziki, gizarte-laguntzak eskuratzeko aukeretan eta ospitaleetako itxaronaldietan izan dezakeen eraginaz. Inkestatuen erdiek baino gehiagok (% 55,7) uste dute zenbat eta etorkin gehiago izan, orduan eta zailago izango dutela gizarte-laguntzak eskuratzeko. Kezka hori nabarmen areagotu da, izan ere, 2008an ehunekoak % 41,6koa zen, nolani ere, kezka hori jaitsi egin da zertxobait azken urte honetan (-1,3 puntu). Inkesta egin zaien hamarretik lau inguruk (% 42,3) duten beste kezka bat ospitaleetan dagoen itxarote-zerrendena da. Kezka hori areagotu egin baldin bazen ere 2008tik 2012ra (% 37,2tik % 51,3ra), data horretatik aurrera hobera eginen hasi zen item hori, horren ondorioz, kezka zertxobait behera egin zuen 2013an eta beherakada nabarmena izan du azken urte honetan (-7,3 puntu).


Gainerako gai-alorretan, kezka txikiagoa da, eta gehienek uste dute immigrazioak ez duela eraginik beren ongizatean. Hala, etxebizitza bilatzeko orduan, % 30,4ren iritziz immigrazioak badu eragina, eta % 68,3k ezetz uste du. Kezka hori, areagotu egin baldin bazen ere 2008tik 2012ra, data horretatik aurrera behera egin zuen, eta bereziki azken urte honetan, izan ere, 7,1 puntu egin du behera. Amaitzeko, inkestatutako herritar gehienek arabera (% 74,2), irakaskuntzaren kalitateak ez du okerrera egin ez eta egingo ere atzerritarrak etortzearen ondorioz. Alabaina, datuen bilakaerari erreparatzen badiogu, 2008tik hona 4,7 puntu inguru egin du gora immigranteen etorrerak kalitate okerragoko irakaskuntza jasotzea eragiten duela uste dutenen portzentajeak: 2008an, % 17,9k adierazi zuen iritzi hori, eta orain, berriz, % 22,6k adierazi du. Hala ere, azpimarratzekoa da iaiztik hona % 4k gutxiagok adierazi duela iritzi hori.

13. grafikoa. Atzerriko immigrazioaren eragina Ongizate Estatuan




Kalitate okerragoko irakaskuntza jasotzea (g23d)

Etxebizitza aurkitzea




Etxebizitza aurkitzea (g23b)

Ospitaleetan denbora gehiago itxaron behar izatea



Ospitaleetan denbora gehiago itxaron behar izatea (g23c)

Gizarte-laguntzaren bat lortzea



Gizarte-laguntzaren bat lortzea (g23f)

Hortaz, 2014ko emaitzak joan den urteko barometrokoekin alderatzen baldin baditugu ikusiko dugu, orokorrean, kezka behera egin duela aztertutako item horietan guztietan: kalitate okerrago irakaskuntza jasotzea (-4 puntu), etxebizitza bilatzea (-7,1 puntu), ospitaleetan itxarotzerrenda handiagoa izatea (-7,3 puntu), gizarte-laguntza bat lortzea (-2,3 puntu).


Laburbilduz, ikusten dugu Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleei galdetzen zaienean immigrazioak ongizate-sistemaren dimentsio horietan duen eraginari buruz, euskal herritarren kezka nagusia da immigrazioak eragin kaltegarriak izan ditzakeela gizarte-laguntzak eta osasun-arreta jasotzeko orduan, azken horrek beherakada nabarmena izan badu ere azken urtean. Ikuspegi hori, ordea, positiboagoa da etxebizitza-alorrean eta irakaskuntzaren kalitatean. Ongizatearen

alorrean 2014ko barometroan gehien nabarmentzen dena da immigrazioak ez duela gora egin Ongizate Estatuaren elementu higatzaile moduan 2013ko barometroko datuekin alderatzen baldin badugu. Izan ere, jaitsi egin da aztertu ditugun alor guztietan.


Hizkuntzaren erabilera eta hedapenerako elementuetan duen eragina

Atal honetan, atzerriko immigrazioak alderdi jakin batzuetan –besteak beste, euskal nazionalismoaren helburuetan, identitatean, eta euskararen erabilera eta hedapenean– izan dezakeen eraginari buruz zer iritzi duten galdetu zaie bertako biztanleei.

14. grafikoa. Atzerriko immigrazioaren eragina euskal gizartean




Euskal identitatea galtzea ekarriko du (g21c)




Euskal nazionalismoaren nahiak geldiaraziko ditu (g21d)

Euskararen garapena motelduko du



Euskararen garapena motelduko du (g21a)

Euskararen erabilera murriztuko du, EAEn gaur egun gehienek erabiltzen duten tokietan



Euskararen erabilera murriztuko du, EAEn gaur egun gehienek erabiltzen duten tokietan (g21b)

Galdeketa erantzun dioten gehienek (% 76,6k) ez du uste etorkinek euskal identitatea galtzea ekarriko duenik eta, orobat, ez du uste euskal nazionalismoaren helburuak geldiaraziko dituenik (% 79,2k). Euskarari dagokionez, % 70,2k adierazi du immigrazioaren fenomenoak ez duela euskararen hedapena geldiaraziko, eta % 72,6k uste du euskararen erabilera ere ez duela murriztuko gaur egun EAEn gehiengoak euskaraz dakien eremuetan.

2010etik aurrera joera-aldaketa bat izan zen eta etorkinek nazionalismoaren nahiak eragozten dituztela edo euskal identitatea galtzeko arriskuan jartzen dutela esaten duten pertsonen kopurua nabarmen jaitsi zen. Euskararen garapenaren eta erabileraren ikuspegiari dagokionez, azken urte honetan 12,9 eta 10,8 puntu jaitsi da hurrenez hurren. Ikusi egin beharko da adierazle horiek zer bilakaera duten datozen urteetan, nolabaiteko joera-aldaketa bat gertatzen den ikusteko.

Arlo honetan egindako galderen erantzunekin (galdetegiko g17e, g21a, g21b, g21c, g21d eta g23e itemak) atzerriko immigrazioak euskal gizartean duen eraginari buruzko pertzepzioaren indizea prestatu dugu. Indizearen eskala Otik 10 puntura doa; horrenbestez, immigrazioak euskal gizartean duen eraginari buruzko ikuspegi negatiboagoa dutenak 0 puntura hurbilduko dira eta ikuspegi positiboagoa dutenak 10 puntura.

Beste behin ere estatistika aldetik alde esanguratsuak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrenbestez, honako hau da immigrazioak euskal gizartean duen eraginari buruzko iritzi positiboa agertu eta, horrela, jarrera toleranteena erakutsi duten pertsonen profila:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi diren pertsonak (7,80), 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan bizi diren pertsonak (7,56) edo hiru lurraldeetako hiri-buruetan bizi direnak (7,71 puntu)
- Gipuzkoan bizi diren pertsonak (7,64) edo Araban bizi direnak (7,75 puntu)
- Erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (7,92 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonak (7,89 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua duten pertsonak (7,94 puntu)
- Krisialdiak ia eragin ere ez dien pertsonak (7,93 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Pertsona agnostiko, ateo edo erlijioarekiko indiferenteak (7,72), katolikoak, praktikanteak (7,28) edo ez-praktikanteak (7,37 puntu)
- Zentroko edo ezkerreko ideologia duten pertsonak (7,73 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Etorkizunari begira aurreikuspen normalak (7,62) edo onak dituzten pertsonak (7,96 puntu)
- Bertakoak gehiengo diren auzoetan bizi diren pertsonak (7,64 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (7,66 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (7,62 puntu)

Beste muturrean, immigrazioarekiko jarrera uzkurrena agertu duten pertsonen profila dugu. Immigrazioak euskal gizartean duen eragin sozialari buruzko ikuspegi negatiboa dute pertsona horiek, eta hortik beren jarrera uzkurra. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 20.000 eta 150.000 biztanle arteko udalerrietan bizi diren pertsonak (6,84 puntu)
- Bizkaiko lurraldean bizi diren pertsonak (7,22 puntu)
- Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak (7,14 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (7,13) eta egoera horren ardurarik ez dutenak (7,35 puntu)
- Erdi-mailako estatus sozioekonomikoa duten pertsonak (7,37), edo baxua dutenak (7,32)
- Krisialdiak nolabait eragin dien pertsonak (7,44) edo asko eragin dienak (7,18 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Katolikoa ez den beste erlijio batzuetako pertsonak (6,26 puntu)
- Eskuineko ideologia duten pertsonak (6,72 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (7,19 puntu)
- Etorkinen eta bertakoen nahasketa dagoen auzoetan bizi diren pertsonak (7,05 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin noiz edo noiz hartu-eman duten pertsonak (7,14) eta hartu-eman handia dutenak (7,11 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (7,21 puntu)
- Bertakoak gehiago diren auzoetan bizi diren pertsonak (7,64 puntu)


Iritzi orokorra: harremanen bilakaera

Immigrante gehiagoren etorrera dela-eta zenbait arlotan –hala nola ekonomian, euskal identitatean eta gizarte-ongizatean– bertako biztanleriak sumatzen duen eragina aztertuta, jakin nahi izan dugu euskal biztanleen eta atzerritarren harremana hobetu ala txartu egin den azken urtean.

Oro har, Euskadiko gizartearen gehiengoaren iritziz (% 71,3), bertako herritarren eta atzerritarren arteko harremana ez da aldatu azken urtebetean. Inkestatutako pertsonen % 17,4k uste du bertako herritarren eta etorkinen arteko harremana okerragoa dela, eta % 7,3k, berriz, hobetu egin dela.

Datu horiek 2013 urtekoekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu inkestatuen ehunekoak gora egin duela orain ere horrela dagoela uste dutenen artean, eta 2013an % 56,1 zena, orain % 71,3 izatera igaro da. Igoera hori 2013an iritzi muturrekoenak zituztenen ondorioz sortu da. Bai iaz hobera egin zuela pentsatzen zutenen ondorioz, eta bai okerrera egin zuela pentsatzen zutenen ondorioz.

15. grafikoa. Bertako biztanleen eta etorkinen arteko harremanaren bilakaera. 2007-2014




Zure ustez, euskal herritarren eta atzerritarren arteko harremanak hobera egin du azken urtebetean, okerrera, edo lehengo berean dirau? (g8)

Hemengo herritarren eta etorkinen arteko hartu-emanak 2007tik denboran izan duen bilakaerak, 15. grafikoa ikusten da, agertzen du beherakada izan dela egoerak lehen bezala jarraitzen zuela uste zutenen artean, nolana ere, euskaldun gehienentzat berdin dagoela uste dutenen jarrerak indarra hartu du berriro, eta % 56,1etik % 71,3ra igaro da. Harremanak okerrera egin duela uste dutenen ehunekoa, aldiz, bikoiztu egin da azken urteotan: 2007an % 14,6k adierazi zuen uste hori eta 2012an % 31,8k adierazi zuen, 2014an, ordea, ehuneko hori % 17,4ra jaitsi da.

Amaitzeko eta euskal gizartean immigrazioaren eraginari buruz esparru desberdinetan egindako ibilbidearen ondoren. Inkestatutako pertsonen balorazio orokor bat egiteko eskatu diegu Otik 10erako eskala batean, eskala horretan immigrazioaren eraginak oso negatiboak izango direla adieraziko da 0 zenbakiarekin, eta oso positiboak 10 zenbakiarekin. Euskal gizartearen gehien-goia banatuta dago immigrazioaren eraginak egokiak direla (% 30,6) eta positiboak (% 28,4) edo oso positiboak direla (% 28,4) uste dutenen eta immigranteen etorreraren eragina negatiboa (% 22,4) edo oso negatiboa (% 15,1) izan dela uste dutenen artean. Edonola ere, eta termometro moduan, batez bestekoa, 10etik 4,66 puntukoa da.

16. grafikoa. Euskal gizartean immigrazioak izan duen eraginaren balorazio orokorra



Etorkinen etorrerak euskal izan dituen eragin positiboak eta negatiboak (g25)

Esparru horretako bost galdereri (galdetegiko g8, g18k, g23b, g23c, g23d eta g25 itemak) emandako erantzunekin, atzerriko immigrazioak sortutako eragin orokorren pertzepzioari buruzko indize partziala landu dugu. Indizearen eskala Otik 10 puntura doa; horrenbestez, immigrazioak duen eragin orokorrari buruzko ikuspegi negatiboena dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta ikuspegi positiboena dutenak 10 puntura.

Ikerketa-eremu horretan ere estatistika aldetik alde esanguratsuak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrenbestez, honako hau da immigrazioaren eragin orokorrari buruzko pertzepzioan jarrera toleranteena erakutsi duten pertsonen profila:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Gizonezkoak (5,54 puntu)
- 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (5,71 puntu)
- Goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (6,10 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin gustura dauden pertsonak (5,69), eta egoera horren ardurarik ez dutenak (5,41 puntu)
- Ikasleak (5,90 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua duten pertsonak (6,11 puntu)
- Krisialdiak ia eragin ere ez dien pertsonak (5,76) edo nolabait eragin dienak (5,59 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (6,18 puntu)
- Ezkerreko ideologia duten pertsonak (5,83), eta zentro-ezkerrekoa dutenak (5,73 puntu)
- Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (5,55 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (5,67) eta beren burua ez ezkortzat eta ez baikortzat ez duten pertsonak (5,45 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen onak (5,64) eta normalak dituzten pertsonak (5,79 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin noiz edo noiz hartu-eman duten pertsonak (5,74) eta hartu-eman handia dutenak (5,83 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin noiz edo noiz hartu-emanena duten pertsonak (5,60) eta hartu-eman handia dutenak (5,73 puntu)
- Aisialdian etorkinekin nolabaiteko hartu-eman dutenak (5,58) edo hartu-eman handia duten pertsonak (6,12 puntu)

Beste muturrean, immigrazioarekiko jarrera uzkurrena agertu duten pertsonen profila dugu. Immigrazioari buruzko ikuspegi negatiboa dute pertsona horiek, eta hortik beren jarrera uzkurra. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Emakumezkoak (5,22 puntu)
- 65 urte eta hortik gora dituzten pertsonak (5,12 puntu)
- Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak (4,86 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (4,97 puntu)
- Etxeko lanetan diharduten pertsonak eta etxeoandreak (4,82 puntu)
- Estatus sozioekonomiko baxua duten pertsonak (5,12 puntu)
- Krisialdiaren eragin nabarmena izan duten pertsonak (4,99 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Pertsona katolikoak, praktikanteak (4,93) edo ez (5,10), eta beste erlijioetakoak (4,85 puntu)
- Eskuineko ideologia duten pertsonak (4,25 puntu)
- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (5,22 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorak (4,85 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (5,03 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (5,08 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,80 puntu)
- Aisialdian etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,88 puntu)

Immigrazioak euskal gizartean duen eragina

Euskal gizarteak immigrazioa nola ikusten duen aztertzen badugu, ikusten da euskal gizarteari kezka eragiten diotela ekonomiarekin, enpleguarekin eta ongizate-sistemaren zenbait elementurekin zerikusia duten alderdi batzuek. Bestalde, ez da horrelako kezka edo pertzepzio negatiborik ikusten nortasunarekin, euskararekin edo nortasunarekin zerikusia duten gaiekin.

Ekonomiaren gaineko eraginak aztertuz gero, efektu kaltegarriaren pertzepzioa gailentzen da onuragarriarekiko, baina modu anbibalentean. Horrenbestez, gehiago dira immigrazioak langabezia gehitu egiten duela pentsatzen dutenak. Eta, bestalde, gehiago dira lan bat aurkitzeko kezkatuta ez daudenak edo EAera etorkinak etortzeagatik soldatak jaitsi egiten direla pentsatzen dutenak. Gainera ez dute uste etorkinak behar ditugunik gure ekonomiaren hainbat sektoretan lan egiteko, eta ezta ere ekonomiak hobeto funtzionatuko duenik hemengo herritarrek nahi ez dituzten lanak etorkinek betetzen badituzte.

Aurreko urteetako barometroekin konparatuz gero, argi ikusten da handitu egin dela immigrazioak lan-merkatuan duen eraginarekiko pertzepzio kaltegarri edo negatiboa. Gero eta gehiago dira lanpostu jakin batzuk betetzeko atzerritarrik ez dela behar pentsatzen duten pertsonak, eta gero eta gutxiago bertako jendeak nahi ez dituen lanak betetzeagatik immigrazioak ekonomiari laguntzen diola uste dutenak.

Ikuspegi horrek lotura zuzena du krisi ekonomikoarekin, lanpostuak suntsitu eta baliabide gutxi dituzten herritarren arriskua eta ahultasuna areagotu egiten baitira haren ondorioz.

Lan egiteko aukera gehiago zeuden garaian, immigrazioa beharrezkoa zela uste zuten herritarrek; gaur egun, aldiz, enplegu bat topatzeko lehia gisa hartzen dute. Bestela esanda, immigrazioaren ikuspegi utilitarista eta instrumentala du gizarteak, ekonomia eta enplegua oparoaldian direnean onartzen baitu, neurri handi batean, immigrazioa.

Immigrazioak ongizate-sisteman dituen eraginei dagokienez, kezka nagusia da immigrazioak eragin kaltegarriak izan ditzakeela gizarte-laguntzak eta osasun-arreta jasotzeko orduan. 2013ko barometroarekin alderatuta, hemengo herritarren kezka nabarmen jaitsi da aztertu ditugun alderdi guztietan: irakaskuntzan, etxebizitzan, ospitaleetan sartzean eta gizarte-laguntzak jasotzeko orduan.

Aurreko barometroetan adierazi dugun moduan, gaur egun, kezka handia sortzen du immigrazioak lan-merkatuan izan dezakeen eraginak, baina, immigrazioarekiko pertzepzioari

dagokionez, immigrazioak ongizate-estatuan duen eragina da gizartean eztabaida handiena pizten duen gaia, eta, bereziki, gizarte-laguntzak eskuratzeko aukeretan duen eragina. Gizarte-alorreko murrizketak egiten ari dira administrazioak eta, aldi berean, gero eta gehiago dira gizarte-laguntzak behar dituztenak; testuinguru horretan, ondorioz, bertako herritarren iritzia okertu egin da immigrazioak ongizate-estatuan duen eragina baloratzeko garaian. Gizarte-laguntzek eragiten dute kezka gehien, atzerritarrak eta bertakoak lehia baitabilza haiek jasotzeko eta lege-aldaketak egiten hasi baitira laguntza horiek eskuratzeko baldintzak gogortzeko.

Azkenik, bertako biztanleria ez dago kezkatuta atzerritarrek euskal nazionalismoan edo identitatean izan dezaketen eraginaz, ez eta euskararen garapenean eta erabileran izan dezaketen eraginaz ere. Item guztietan, inkestatutako pertsonen hamarretik batek gutxi gorabehera badu kezka, baina gehiengoak kezkarik ez duela esan dezakegu. 2004tik 2011ra nolabaiteko igoera gertatu bazen ere, 2013tik jaisten hasi zen berriro, aurtengo mailara iritsi arte, eta oraingo kopuruak dira txikienak seriea hasi zenetik.

Datuei erreparatuta, immigrazioari buruz egiten den debate sozialak ez du nortasunetikiko eta euskararekiko lotura-eraginik ageri Euskal Autonomia Erkidegoan. Gaiak bereizten direnez, ez da sortzen gizarte osoari erasaten dion pertzepzio negatiborik. Alde horretatik, immigrazioaren problematikak lotura estuagoa du kezka sozioekonomikoekin, nortasunari buruzko kezkekin baino.

Komunitate hartzailearen eta etorkinen komunitatearen arteko bizikidetzak eta integrazioa

Komunitate hartzailearen eta etorkinen komunitatearen bizikidetzak eta integrazioaren atalean bost esparru aztertu ditugu. Horietako bakoitzean emaitzak eta horien bilakaera jaso dugu eta indize sintetikoa landu dugu herritarren profilak adierazteko.

- Bizikidetzak-ereduak
- Estereotipoak eta aurreiritziak
- Eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera
- Harremanetarako eta kultura-jarraibideei eusteko eremuak
- Begikotasuna eta integrazio-mailaren pertzepzioa


Bizikidetzak-ereduak

Atal honetan, aztertuko dugu ea bertako biztanleek begi onez ikusten duten eta babestu egiten duten immigrazioa dela-eta instituzioek, erakundeek, antolakundeek eta gizarte-mugimenduek bultzatzen duten kultura-aniztasunaren ereduak.

Bertako biztanleen % 49,7k dio (17. grafikoa) beste etnia-talde batzuetako immigrante atzerritarrek aberastu egiten dutela Euskadiko bizitza kulturala, eta % 26,1ek ez du uste hori horrela denik. 2013ko datuekin alderatuta, beherakada izan da kultura-aniztasunaren aldeko iri-

tzietan: 2013an, % 53,1 zen kultura-aniztasunaren aldekoa eta 2014an % 49,7 izan da. Halaber, zertxobait gora egin du, immigrazioak sortzen duen aberastasun kulturalarekin bat ez datozen pertsonen ehunekoak. Datu horiek 2004an lortutakoekin alderatuta, jabetuko gara orduko hartan herritarrek argi eta garbi babesten zutela kultura-aniztasuna (% 71) eta, gorabeherak gorabehera, babes hori apaltzen joan dela, gaur egungo % 49,1era iritsi arte.


17. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetzak-ereduak



Beste talde etniko batzuetako atzerritar etorkinek aberastu egiten dute Euskadiko kultura-bizitza 2004tik 2009ra: Ona da euskal gizartearentzat kultura, etnia eta erlijio desberdinez osatua izatea, aurreko barometroetan. (g18h)

Bertako biztanleen % 58,2ren iritziz, euskal gizartearentzat hobe da den-denek ohitura eta tradizio berak partekatzea, eta % 17,3 ez dator bat uste horrekin.


18. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetzak-ereduak



Euskal gizartearentzat, hobe da den-denek ohitura eta tradizio berak partekatzea (18b)

Datu horiek 2013koekin alderatzen baldin baditugu, ikusiko dugu baieztapen horrekin ados dauden pertsonen ehunekoa 2013an % 52,9 izatetik, % 58,2 izatera igaro dela 2014an, eta den-denek ohitura eta tradizio berak partekatzea garrantzitsua dela uste ez dutenen pertsonen ehunekoa jaitsi egin dela (2013an % 25,3 izatetik % 17,3 izatera 2014an). Nolanahi ere, eta joan den urteko barometroan eta 2012koan adierazi zen moduan, hautsi egin da euskal gizarteak 2011ra arte izan zuen joera, erantzun-iritzietan polarizazio bat ematen zelako, eta urte horretatik aurrera -2011- garbi zehaztuta geratzen da modelo asimilazionista bat, eta horretan, gehien-go zabal batek pentsatzen du euskal gizartearentzat hobe dela hori osatzen duten pertsona guztiek ohitura eta tradizio berak partekatzea.

19. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetzaren ereduak




Euskal gizartearentzat hobe da den-denek, bertakoek nahiz etorkin eta atzerritarrek, harrerako herrialdeko hizkuntzak hitz egitea (2004tik 2011ra: Euskal gizartearentzat hobe da den-denek, etorkinek eta bertakoek, hizkuntza bera hitz egitea) (g18c)

Ilido berean, jakin nahi izan dugu ea bertako biztanleek begi onez ikusten duten atzerritarrek eta etorkinek jatorrizko herrialdeko hizkuntzak hitz egitea (19. grafikoa). Gehiengo zabal batek (% 81,9k) pentsatzen du pertsona guztiek -immigranteek eta atzerritarrek- harrera egin dien herrialdeko hizkuntzak hitz egin beharko lituzketela. 2014ko Barometroaren adostasun-maila 2004ko Barometroaren emaitzen parekoa izan da: orduko hartan, galdeketari erantzun zioten hamarretik zortzi hizkuntza bera partekatzearen aldekoak ziren, eta iritzi hori askoz nabarmenagoa zen 2007tik 2011rako epean izan zena baino.

Galdeketari erantzun diotenen kultura-aniztasunari buruz duten iritzia aztertu ondoren, ikus dezagun beren irudiko aniztasun hori nola kudeatu beharko lituzatekeen eta zein diren bizikidetzaren eredu egokienak.

20. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetzaren ereduak




Bertakoek ahalegina egin beharko lukete etorkinen ohitura eta tradizio batzuen berri jakiteko eta haietara egokitzeko (g18a)

EAEko biztanleen % 61,2ren iritziak, bertako herritarrek ez dute zertan ahaleginik egin beharrik etorkinen zenbait ohitura eta tradizioen berri jakiteko eta haietara egokitzeko (20. grafikoa). Iritzi horrek 1,3 puntu egin du gora aurreko urtekoarekiko. Gainera, bertakoek immigranteen ohituren berri jakiteko eta haietara egokitzeko ahalegina egin beharko luketela uste dutenen ehunekoak behera egin du azken urtean: 2013an % 25,5 zen uste horretakoa, eta gaur egun % 19,4.

Euskal herritarren artean, 2007tik 2014ra gero eta gutxiagok pentsatzen dute hemengo herritarrek izan behar dutenik immigranteen ohituren berri jakiteko eta haietara egokitzeko ahalegina egin behar dutenak.

21. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetzaz-ereduak




Erabat onartuak izateko, immigranteek baztertu egin beharko lituzkete gure legediarekin bat ez datozen beren erlijio- eta kultura-alderdiak (g18i)

Inkestatutako biztanleriaren % 57,2k, bestalde, uste du pertsona immigranteek, erabat onartuak izango badira, baztertu egin beharko lituzketela bertako legeen kontra doazen beren erlijio edo kulturaren alderdiak (21. grafikoa). Baieztapen horrekiko atxikipenak gorantz egin zuen 2004. urtetik 2008ra, eta urte horretan beherantz egin zuen, 2010ean % 48,6ra iristeraino. 2011n, ordea, aldatu egiten da joera, eta gora egiten jarraitu zuen 2012ra arte; data horretatik aurrera, ordea, beheraka hasi zen, oraingo % 57,3ra iritsi arte. Adi egon beharko da datozen urteetan zer gertatzen den ikusteko, azken urteetan euskal gizartean eman zen tesi asimilazionistaren bultzadak jarraitzen duen edo azken urteotan daramagun beherapenak jarraitzen duen.

Atal honekin bukatzeko, bertako biztanleei galdetu diegu nork egin behar duen bizikidetzaz hobea lortzeko ahalegina: immigranteek egin behar duten edo ahalegin horrek partekatua izan behar duen, immigranteen aldetik eta bertako herritarren aldetik.


22. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetzaz-ereduak



Bizikidetzaz hobetzeko, guztiok egin behar dugu ahalegina, bai atzerriko etorkinek, bai bertakoek* (g18i)


*Galdera berria 2012ko Barometroan.

23. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetzaren ereduak



Euskadin bizikidetzaren hobea izateko, etorkinek ahalegin handiago beharko lukete gure ohitura eta tradizioak berenganatzen (g18g)

24. grafikoa. Zure udalerrian edo auzoan dagoen bizikidetzaren giroa eta hartu-emanen giroa, bertako herritarren eta etorkinen artean (%)



Baloratu Otik 10era zure udalerrian edo auzoan dagoen bizikidetzaren giroa eta hartu-emanen giroa, bertako herritarren eta etorkinen artean (g7)

Bertako herritarren gehiengoak pentsatzen du giro positiboa dagoela bertako herritarren eta etorkinen arteko hartu-emanetan eta bizikidetzan. Izatez, euskal gizartean iritzi desberdinak ageri dira, % 32,9ren iritzi bizikidetzaren onargarria da, % 30,2rentzat ona, eta muturreko jarrerak ere badira, bai, txarra dela pentsatzen dutenen artean (% 15,5) edo oso txarra (% 2), eta bai, oso ona dela pentsatzen dutenen artean (% 12,3), edo bikaina dela pentsatzen dutenen artean (% 1,4).

Gaiari buruzko galderen erantzunekin (galdetegiko g18 a, g18 b, g18 c, g18 g, g18 h eta g18 i itemak) euskal biztanleek bizikidetzaren ereduaren gainean duten jarrerari buruzko indizea landu dugu, 0 puntutik 10era bitartekoa. Horrela, immigrazioarekiko jarrera asimilatzaileena, uzkurrena eta negatiboena dutenak 0 puntura gerturatu dira indize horretan, eta jarrera positiboena, irekiena, pluralena, ekintzaileena eta kulturartekoena dutenak 10 puntura.

Beste behin ere estatistika aldetik alde esanguratsuak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrela, kulturartekotasunaren aldeko jokabidearen bidez jarrera tolerantzia duten pertsonen profila osatu dugu. Hauxe da:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (4,08 puntu)
- 20.000 eta 150.000 biztanle arteko udalerrietan bizi direnak (3,81) edo hiru lurraldeetako hiriburuetan bizi direnak (3,67 puntu).
- Goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (3,93 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Ikasleak (4,32 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua duten pertsonak (3,91 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (3,99 puntu)
- Ezkerreko ideologia duten pertsonak (3,86 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (3,67 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen onak dituzten pertsonak (3,93 puntu)
- Eremu pribatua etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (4,10 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin noiz edo noiz hartu-emanena duten pertsonak (3,71) eta hartu-eman handia dutenak (3,74 puntu)
- Denbora librean etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (4,31 puntu)

Beste muturrean, immigrazioarekiko ikuspegi asimilatzaileena eta, beraz, jarrera uzkurrena agertu duten pertsonen profila dugu. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 65 urte eta hortik gora dituzten pertsonak (3,16 puntu)
- 5.000 biztanletik behera dituzten udalerrietan bizi direnak (3,30 puntu) edo 5.000 eta 20.000 artean dituzten udalerrietan bizi direnak (3,18 puntu)
- Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak (3,28 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Erretiroa hartuta dauden pertsonak (3,261) eta etxekoandreak (3,13 puntu)
- Estatus sozioekonomiko baxua duten pertsonak (3,42 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Pertsona katoliko praktikanteak (3,25 puntu)
- Eskuineko ideologia duten pertsonak (3,00 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorak (3,39 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen normalak (3,63) edo txarrak dituzten pertsonak (3,43 puntu)
- Eremu pribatua etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (3,37 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin inolako elkarrekintzarik ez duten pertsonak (3,19 puntu)
- Aisialdian etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (3,12 puntu)


Estereotipoak eta aurreiritziak

Atal honetan aztertuko dugu zenbateraino dauden indarrean hemengo biztanleen artean etorkinei buruz gehien zabaldua dauden estereotipoak; hau da, azken batean, integrazioa zailtzen duten estereotipoak. Zehazki, aztertuko dugu zer ikuspegi duen hemengo biztanleriak etorkinen erlijio-praktikei buruz, gizartea zahartzearen arazoan duten eraginari buruz, zer iritzi duen gizarte-babeseko sistematik jasotzen duten onurari buruz, segurtasunaren arloan duten eraginari buruz, zergekin duten erlazioari buruz eta haien etorrerak langabeziaren gorakadan duen eraginari buruz. Zaila da estereotipo horiei guztiei aurre egitea, gizartean oso erroturik daudelako eta, hain onartuak egonik, horma edo egitura ia hautsiezina eratzen dutelako. Nahiz eta egitura hori ia aldaezina den, haren iraupenaz eta gizarte-hedaduraz zantzu batzuk ageri dira.

- Erlijio-praktikak
- Zahartzearen arazoa konpontzea
- Estereotipo negatiboak: Gizarte-babesa eta zergak: etorkinek onura handiegia jasotzen dute gizarte-babeseko sistematik. Zerga gutxiago ordaintzen dute trukean jasotzen dutena baino
- Herritarren segurtasuna: segurtasunik eza eta delinkuentzia sortzen dute

Alderdi horiek aztertu ondoren, estereotipo eta aurreiritzi jakin batzuk zenbateraino errotuta dauden adierazten duen indize sintetikoaren emaitzak aurkeztuko ditugu. Eta amaitzeko, atal hau laburbiltzeko, ondorioak aterako ditugu.

25. grafikoa. Euskal biztanleen estereotipoak




Haien erlijio-praktikek arriskuan jartzen dute gure bizimodua (g18e)

Badirudi bertako biztanleak ez daudela kezkatuta etorkinen erlijio-praktikekin. Inkestatuen % 57,8k ez du uste praktika horiek beren bizimodua arriskuan jar dezaketarik, eta, aldiz, % 19k baietz uste du (25. grafikoa). Ados ez daudenen ehunekoa, 2013ko Barometroarekin alderatzen baldin badugu, zertxobait handitu da (+0,8 puntu), eta aldiz, erlijio-praktika horiek beren bizimodua arriskuan jartzen dutela uste dutenena jaitsi egin da 2013koarekin alderatuz (-4,3 puntu).

26. grafikoan ikus dezakegun moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen zahartzeari dagokionez, datuek erakusten dute bertako herritarrek onartzen dutela etorkinak Europara etorritako zahartzearen ondorioz sortu ohi diren arazoak konpon daitezkeela (% 37,2), baina aldiz, herritarren % 31,1ek ez du uste horrela izango denik. Aurreko barometro batzuetan adierazi dugun moduan, azterketa demografikoek erakutsi badute ere hori ez dela horrela, jakin nahi genuen Europako eta Euskadiko gizartearen egiturazko arazo horrekiko ekarpen instrumentalak zenbateraino baldintza zezakeen immigrazioaren onarpena. Ikus dezakegu oraingoan baieztokoak irabazi

duela, baina aukera hori ez dela erabatekoa, gehiengo zabala ez baita bat etorri uste horrekin. Emaizta horiek iazkoekin konparatzen baldin baditugu, tesi horrekin ados daudenen artean 13 puntuko jaitsiera dagoela ikus dezakegu (2013an % 50,2 izatetik 2014an % 37,2 izatera igaro gara), eta gorakada bat igar dezakegu tesi horrekin ados ez daudenen artean, 2013an % 21,3 izatetik 2014an % 31,1 izatera igaro baita.

26. grafikoa. Etorreren etorrerak zahartzearen arazoa konpon dezake




Etorreren etorrerak zahartzearen ondorioz sortutako arazoak konpon ditzake (g18K)

Etorrinei buruzko beste estereotipo negatibo batzuei dagokienez, estereotipo horiek areagotu egin dira azken urteotan, eta gure gizartean immigrazioaren kontrako eguneroko diskurtsoan mamitu dira. Azter ditzagun, bada, estereotipo horietako batzuk. Diskurtsoek, errealitatearekin bat ez etorri arren, sinesgarritasun eta jarraipen handia izaten dute gizartean. Estereotiporik ohi-koenetako batzuk ikusiko ditugu segidan: gizarte-babesa eta zergak, herritarren segurtasuna eta nortasunaren ezaugarriak.

Gizarte-babesa eta zergak. Inkestaturen % 64,6k uste du immigranteek onura handiegia jasotzen dutela gizarte-babeseko sistematik, eta % 18k kontrakoa pentsatzen du (27. grafikoa). Adostasun-mailak 16,1 puntu egin du gora hamar urtetan, 2004. urtean % 48,5ekoa baitzen eta 2014. urtean % 64,6koa izan baita.

27. grafikoa. Gizarte-babeseko sistemaren onura jasotzea




g18d Etorrinek onura handiegia jasotzen dute gizarte-babeseko sistematik

2014. urtean zertxobait gutxitu da etorkinek gizarte-babeseko sistematik onura jasotzen dutela uste duten pertsonen kopurua (-0,2 puntu).

Bestalde, denbora-segitari erreparatuz gero, 2004an inkestatuen % 35ek ez zuen uste etorkinek onura ateratzen zutenik gizarte-babeseko sistematik, eta 2004tik 2009ra, gainera, iritzi hori zuten pertsonen ehunekoak behera egin zuen, 2009an % 12,5 izateraino. Ordea, 2009tik 2012ko barometrora, ehunekoak gora egin zuen berriro ere, eta 2013an behera egin du berriz, 2010eko balioetatik behera egin ere (%14,7), baina 2014an berriro ere gorako bidea hartu du (% 18).

Aurreko urteetan bezala, 2014ko Barometroan ere jakin nahi izan dugu hemengo biztanleriak zer ikuspegi duen etorkinek ordaintzen dituzten zergei eta trukean jasotzen duten ordainari buruz (28. grafikoa).

28. grafikoa. Immigrazioaren zergak, ekarpena eta detrakzioa



g18f Etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino.


Galdera alderantziz egin dugu 2010. urtetik aurrera, ikusita item horrek hobeto azaltzen zuela euskal gizartean indarrean den beste estereotipoetako bat; alegia, etorkinek zergetan ekarpen txikiagoa egiten dutenekoa. Galdeketari erantzun dioten % 46,8k uste du etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dutela ondoren jasotzen dutena baino, eta % 18,9k kontrako ustea du.

Nolanahi dela ere, nabarmentzekoa da kontu horren inguruan erantzunik eman ez dutenen edo jarrerarik hartu ez dutenen kopuru handia –% 34,3–. Zaila da aurreko urteekin datuak konparatzea, baina nabarmena da aurreko urteetan atzeraka zihoala etorkinen ekarpena gero eramaten dutena baino handiagoa delako ustea: 2004an, % 57,6k uste zuen gehiago eramaten zutela ekarri baino, eta, 2009an % 67,2k zuen iritzi hori (ia hamar puntu gehiago). 2010etik hona galdera egiteko modua aldatu arren, inkestatutako pertsonen pertzepzioak oso antzeko joera izan du, ia-ia ez baita aldatu 2010etik gaur arte. Hala, bertako biztanleen % 16-19ren iritzia da etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dutela ondoren jasotzen dutena baino, eta % 42,6 eta % 46,9 artean ez dator bat uste horrekin.

Herritarren segurtasuna. Hau da etorkinei kalte gehien egiten dien beste estereotipoetako bat, immigrazioa herritarren segurtasun faltarekin lotzen baitu. 29. grafikoa ikus daitekeenez, hemengo biztanleen % 41,8k uste du atzeritarrek segurtasun-falta eta delinkuentzia sortzen dutela eta, aldiz, % 33,3k ez du horrela uste.

Emaitza horiek aurreko urtekoekin alderatuz gero, ohartuko gara jaitsiera bat gertatu dela, izan ere, iaz % 49,1 izatetik 2014an % 41,8 izatera igaro baita. Hala ere, ikuspegia zabalduz gero, ikus dezakegu 2004tik 2014ra estereotipo horrek 13,2 puntu behera egin duela.


29. grafikoa. Segurtasunik eza eta delinkuentzia



g6g Atzerritarrek segurtasun-falta eta delinkuentzia handitzen dute (Etorkinen etorrerak modu negatiboan eragiten du herritarren segurtasunean)

Aztertutako estereotipoez gain, kalean entzuten diren zenbait iritzi eta aipamen jaso nahi izan ditugu aurten, finean horiek baitira euskal gizarteak immigrazioari buruz dituen estereotipo eta aurreiritzien adierazle. Hala, herritarrak estereotipo hauekin zenbateraino dauden ados jakin nahi izan dugu: “etorkinak gizarte-laguntzei esker bizi dira”, “immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria areagotzen ditu”, “etorkinek kendu egiten digute lana”, “etorkinek ez dute integratu nahi” eta “ikasle etorkinek eskoletako hezkuntza-maila jaisten dute”.

30. grafikoa. Hemengo biztanleek etorkinen inguruan dituzten estereotipoak (%)




Euskal gizartearen gehiengoak uste du etorkinak gizarte-laguntzei esker bizi direla; % 60,7k egiten du bat baieztapen horrekin. Orobat, bertako biztanleen % 46,9ren iritzi, immigrazioak are-

agotu egiten ditu matxismoa eta genero-indarkeria. Aldiz, herritarren % 52,5ek ez du uste ikasle etorkinek eskoletako hezkuntza-maila jaisten dutenik.

Immigranteak euskal gizartean integratzeko borondaterik ez dutela dioen estereotipoari dagokionez, gehienek ez dute argi beren iritzia (% 34,9k ez du jarrera zehatzik), eta ia kopuru berdinean banatuta daude horrekin ados daudenak (% 29,2) eta ados ez daudenak (% 31,3). Etorkinek lana kentzen ote diguten galdetzen zaienean, erantzunak kontrakoak izaten dira: batetik % 37,4 ados dago iritzi horrekin, eta bestetik, % 47,1ek kontrakoa uste du.

Bertako biztanleek etorkinez daukaten irudiar buruzko atal hau bukatzeko, jakin nahi izan dugu nola ikusten dituzten atzerritarrak hemengoan aldean. Horretarako, bi kolektiboak definitzeko erabiltzen diren topiko batzuk erakutsi dizkiegu galdekatuei: matxismoa, zintzotasuna, adeitasuna, ardura, langile izatea eta elkartasuna.

31a. grafikoa. Etorkinei buruzko pertzepzioa, euskal biztanleekin alderatuta




16 g. Euskaldunekin alderatuta, etorkinak ez dira/badira hain...

Oro har, esan daiteke bertako biztanleriak etorkinei buruz nahiko irudi ona duela, matxismoaren gainan izan ezik; izan ere, biztanleriaren bi herenek (% 61,6) uste dute atzerritarrak matxistagoak direla hemengoak baino. Aztertutako gainerako alderdiei erreparatzen badiegu, ikus dezakegu hemengo biztanleriarentzat etorkinak bertakoak bezain zintzoak (% 70,8) eta atseginak (% 70,4) direla, baita solidarioak (% 66,3), langileak (% 61,1) eta arduratsuak (% 61) ere. Horrez gain, euskal biztanleek beren buruaz iritzi zertxobait hobea dute atzerriko etorkinez baino:

- % 20,2k uste du atzerritarrak ez direla hain zintzoak (2013an, % 21,1ek).
- % 20,6k uste du bertakoek elkartasun handiagoa agertzen dutela (2013an, % 21,3k).
- % 31,9k uste du bertakoak arduratsuagoak direla (2013an, % 29,5ek).
- % 30,5ek uste du ez direla bertakoak bezain langileak (2013an, % 26,2k).
- % 19,4k uste du ez direla bertakoak bezain atseginak (2013an, % 18,5ek).

31b. grafikoa. Etorkinei buruzko pertzepzioa, euskal biztanleekin alderatuta




16 g. Euskaldunekin alderatuta, etorkinak ez dira/badira hain...

2013. urtetik datuek izan duten bilakaeran ikus dezakegunez, bertako biztanleen iritzia zertxobait apalagoa da matxismoa, ardurua, adeitasuna eta langile izatearekin loturiko gaietan, eta hobetu egiten da zintzotasunarekin eta elkartasunarekin loturiko gaietan.

Zurrumurruek. Erantzun guztietatik, etorkinei buruzko zurrumurrurik zabalduenak egungo krisialdi ekonomikoarekin eta baliabideak eskuratu ahal izatearekin loturikoak dira. Horrela, bertako biztanleen artean gehien entzuten den zurrumurrua da (inkesta bete duten pertsonen % 67,9k hala uste du) etorkizunak gizarte-laguntzei esker bizi direla eta onura handiegia ateratzen dutela, eta horren atzetik dator “etorkizunek lana kentzen digutela” dioena (% 45,3), eta hirugarrenik, “ezin dugula etorkin gehiago hartu, gehiegi direlako” (% 35). Biztanle gehienentzat, ordea, erantzutean egiten duten lehen aukera etorkinak gizarte-laguntzei esker bizi direla esatea da (% 37,6), eta ezin dugula etorkin gehiago hartu, gehiegi direlako (% 23,5).

32. grafikoa. Txartel honetako zurrumurruetatik, zein da, zure ustez, zure udalerrian edo auzoan gehien zabaldua dagoena? Eta ondoren? Eta hirugarrenik? (33g)



Aurreko ataletan egin dugun moduan, arlo honetako galderen erantzunekin (galdetegiko g6g, g6h, g6i, g6j, g13a, g13b, g13c, g18d, g18f eta g18m itemak) indize partzial bat landu dugu, ikusteko zenbateraino dauden ezarrita euskal biztanleengan immigrazioari buruzko zenbait estereotipo eta aurreiritzi. Gainerako indizeak bezala, honako hau ere 0 puntutik 10era taxutu dugu; beraz, estereotipoak dituzten edo bultzatzen dituztenak 0 puntura hurbilduko dira, eta errealitatearekin ongien lotzen den ikuspegia dutenak edo estereotipoen eraginagatik hain ikuspegi desitxuratua ez dutenak 10 puntura.

Beste behin ere estatistika aldetik desberdintasun esanguratsuak hauteman ditugu euskal herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrela, hauxe da estereotipoak hain barneratuta ez dituzten pertsonen profila:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Gizonezkoak (4,54 puntu)

- 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (4,95 puntu)
 - Erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (5,14) edo goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (5,05 puntu)
- Ezaugarri sozioekonomikoak:
- Familian eta hilean 1.800 eta 2.500 euro arteko diru-sarrera garbiak dituzten pertsonak (4,79 puntu)
 - Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonak (4,82 puntu)
 - Ikasleak (5,13 puntu)
 - Estatus sozioekonomiko altua duten pertsonak (5,16 puntu)
 - Krisialdiak ia eragin ere ez dien pertsonak (4,50) edo nolabait eragin dienak (4,66 puntu)
- Ezaugarri ideologiko-identitarioak:
- Agnostikoak, ateok eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (5,35 puntu)
 - Batez ere euskaldun sentitzen diren pertsonak (4,62 puntu)
 - Beren burua oso abertzaletzat duten pertsonak (4,72), eta abertzale moderatutzat dutenak (4,38 puntu)
 - Ezkerreko ideologia duten pertsonak (5,28 puntu)
 - Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (4,68 puntu)
- Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:
- Pertsona baikorrak (4,57 puntu)
 - Etorkizunari begira aurreikuspen onak (4,89) eta normalak dituzten pertsonak (4,68 puntu)
 - Eremu pribatuan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (4,77 puntu)
 - Eremu publikoan etorkinekin noiz edo noiz hartu-emanen bat duten pertsonak (4,57) eta hartu-eman handia dutenak (4,62 puntu)
 - Aisialdian etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (5,37 puntu)
- Beste muturrean, estereotipo horiek barneratuago izategatik immigrazioarekiko jarrera uzkurrena ageri duten pertsonen profila dugu. Hauexek dira:
- Ezaugarri soziodemografikoak:
- Emakumezkoak (4,29 puntu)
 - 65 urtetik gorako pertsonak (3,91 puntu)
 - Ikasketarik gabeko pertsonak (3,94) eta lehen mailako ikasketak dituztenak (3,84 puntu)
- Ezaugarri sozioekonomikoak:
- Familian eta hilean 1.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrera garbiak dituzten pertsonak (4,11 puntu)
 - Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (4,07) eta egoera horren ardurarik ez dutenak (4,37 puntu)
 - Etxeko lanetan diharduten pertsonak eta etxekoandreak (3,87 puntu)
 - Estatus sozioekonomiko baxua duten pertsonak (4,12 puntu)
 - Krisialdiak gogor astindu dituen pertsonak (4,16 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Pertsona katolikoak, praktikanteak (3,81) edo ez (4,13), edo beste erlijioetakoak (3,66 puntu)
- Batez ere espainiar sentitzen diren pertsonak (3,85), eta espainiar bezain euskaldun sentitzen direnak (4,08 puntu)
- Beren burua nazionalista espainiartzat jotzen duten pertsonak (3,83 puntu)
- Eskuineko ideologia duten pertsonak (3,34 puntu)
- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (4,17 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorak (4,17 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (4,15 puntu)
- Ereku pribatuan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,34 puntu)
- Ereku publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,03 puntu)
- Aisialdian etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,02 puntu)

Eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera: osasun-arreta, hezkuntza, laguntza juridikoa, gizarte-laguntzak, familia berriro elkartzea, boto-eskubidea, BOEak eskuratzeko aukera, diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE)

Atal honetan aztertuko dugu zer iritzi duen hemengo biztanleriak etorkinek zenbait eskubide eta zerbitzu izateko eta erabiltzeko eskubideaz. Bertako hainbat biztanleren arabera, eskubide horietako batzuek atzerriko etorkin guztien eskura egon behar lukete; beste zenbaitek uste du erregulartzat daudenentzat soilik izan behar luketela eskubide horiek; eta azkenik, beste batzuen iritziak eskubide horiek ez lukete egon behar etorkinen esku. Zer kasutan, zein eskubide eta norentzat aztertu dugu atal honetan.


Galdeketari erantzun dioten hamarretik seik baino gehiagok (% 64,9) uste du etorkin guztiek dutela osasun-arreta jasotzeko eskubidea eta atzerriar guztiek dutela eskolatzeko eskubidea (% 68,4) (33. grafikoa).

2014ko Barometroaren datuak aurreko urtekoarekin alderatuta, ikus dezakegu igoera nabarmena gertatu dela etorkin guztiek osasun-arreta eta hezkuntza jasotzeko eskubidea izan behar luketela uste duten pertsonen ehunekoan. Osasun-laguntza jasotzeko eskubidearen kasuan, % 6 egin du gora portzentajeak, eta hezkuntza jasotzeko eskubidearen kasuan % 9,6, 2013arekin alderatuta. Horiek dira, normalean, gorabeherak gorabehera, hemengoek etorkin guztientzako gehien onartzen dituzten bi eskubide-arloak.


Datu horien bilakaera aztertuz gero, ikusiko dugu 2007ra arte handituz joan zela eskubide horiek (osasun-laguntza eta hezkuntza) etorkin guztiei zegozkiela uste zutenen ehunekoa. 2009an, aldiz, bertako herritarrek irizpide murriztaileagoen alde azaldu ziren, osasun-laguntza jasotzeko eskubideari (% 66,7) eta heziketa jasotzeko eskubideari (% 59,7) dagokienez. Data horretatik aurrera, 2010 eta 2011 artean, gora egin zuen osasun-arreta guztioi dagokigula uste dutenen ehunekoak; hain zuzen, 2011koak izan ziren urteotako guztietako ehunekorik handienak: % 72,9, osasun-arretaren kasuan eta % 71,1 hezkuntzaren kasuan. Jarraian, 15 puntu egin zuen behera portzentajeak (% 57,5 osasun-arretaren kasuan eta % 52,8 hezkuntzaren kasuan); hain zuzen, 2004tik egin diren barometro guztietako ehuneko txikienak izan ziren 2012koak.

2012tik aurrera, alabaina, hobera egin du balio horrek urtetik urtera, gaur egungo balioetara iritsi arte.

33. grafikoa. Etorquinek eskubideak eta zerbitzuak izateko laguntza



g14a Osasun-laguntza jasotzeko eskubidea




g14c Hezkuntza

Aldiz, aurreko bi eskubideen aldean, beste eskubide batzuk aipatzen ditugunean –esaterako, laguntza juridikoa, gizarte-laguntzak eskuratzeko aukera, familia berriz elkartzeko laguntzak, boto-eskubidea, babes ofizialeko etxeak izateko eskubidea eta beste–, administrazio-egoera irregularrean daudenei ez ematearen aldekoak dira hemengo biztanle gehienak, eta, beraz, politika murriztaileagoaren aldekoak.


Hala, galdeketari erantzun diotenen hamarretik seik uste du administrazio-egoera erregularrean dauden atzerritarrek soilik izan beharko lituzketela doako laguntza juridikoa (% 60,3), familia berriz elkartzeko laguntzak (% 63,1), babes ofizialeko etxeak eskuratzeko eskubidea (% 61,4) (34. grafikoa), eta gutxi gorabehera hamarretik zazpi uste du horrela izan beharko lukeela gizarte-laguntzak eskuratu ahal izateko (% 71,4) eta boto-eskubidea izateko (% 67,8).

Oro har, 2004ko datuak erreferentzia modura hartuta, esan dezakegu handitu egin dela atzerritarrei zenbait zerbitzu administrazio-egoeraren arabera eman behar zaizkiela uste dutenen ehunekoak; erregularizata daudenei eman behar zaizkiela uste dutenena, hain zuzen. 2013tik 2014ra izan den bilakaera aztertuz gero, adierazle hauek gora egin dute, babes ofizialeko etxea izateko aukeraren kasuan izan ezik, bere horretan mantentzen baita.


34. grafikoa. Etorrintentzako eskubideak eta zerbitzuak




g14g Laguntza juridikoa




g14c Gizarte-laguntzak



g14e Familia berriz elkartzeko laguntzak



g14f Boto-eskubidea



g14d Babes ofizialeko etxe bat izateko eskubidea


Horrenbestez, inkesta bete dutenetatik % 30,7k uste du etorkin guztiek izan beharko luketela laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea; % 20,9k uste du guzti-guztiek izan beharko luketela gizarte-laguntzak jasotzeko eskubidea; % 17,4k uste du denek, inolako mugarik gabe, izan beharko luketela familia berriz elkartzeko eskubidea; % 13,5ek pentsatzen du botoa emateko eskubidea izan beharko luketela eta, azkenik, % 18,4k uste du babes ofizialeko etxeak izateko eskubidea izan beharko luketela.

Kasu hauetan guztietan, eskubideak guzti-guztientzako izan beharko luketela uste duten pertsonen ehunekoak mantendu edo zertxobait handitu dira 2013arekin alderatuta, baina apalagoak dira seriearen hasierako 2004ko barometroarekin alderatuta. Horrenbestez, apaldu egin da, nabarmen, eskubideen izaera unibertsala aitortzen duten pertsonen portzentajea, gero eta gehiagoren iritziz erregularizatuta daudenek soilik izan beharko lituzketelako eskubide horiek. Hala ere, beti izaten da zalantza hemengo jendearen buruetan zer ote den etorkinak erregularizatuta egoitea. Argitaratutako azken barometroetan adierazi izan dugun moduan, krisialdi ekonomikoa eta gizarte-politika batzuetako murrizketak gordin-gordinenean dauden honetan, badirudi bertako biztanleek etorkinak erregularizatze eta haien eskubideak mugatzeko mekanismoen alde egiten dutela.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratzeko aukerari buruz herritarrek zer iritzi duten jakin nahi izan dugu (35. grafikoa)³. Inkestari erantzun dioten lau herritarretatik batek (% 24,3) uste du administrazio-egoera erregularrean dauden atzeritarrek baino ez luketela eskuratu behar prestazio hori; % 35,4k uste du bertakoek izan beharko luketela lehentasuna eta bertako guztien beharizanak bete ondoren baino ez litzaiekeela eman behar eskubide hori immigranteei; % 10,1ek uste du etorkinek bertako herritarren baldintza beretan eskuratu beharko luketela oinarritzko errenta, hau da, erroldan urtebete eginda; eta % 17,8k dio etorkin guztiek jaso beharko luketela errenta hori, erroldan zenbat denbora daramaten kontuan izan gabe. Herritarren % 10,3ren iritzi, etorkin bakar batek ere ez luke aukerarik izan behar Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko.

35. grafikoa. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratzeko aukera



g12 Zer jarrera hartu beharko lukete erakundeek DBEari dagokionez?

Azken batean, euskal gizartearen gehiengo handi batek uste du etorkinei eskubide hori eskuratzeko aukera eman dakiekeela, baina muga batzuekin: kasu batzuetan, bertako herritarren beharrik ase ondoren (% 35,4), eta beste kasu batzuetan, egoera erregularrean aurkitzen baldin badira bakarrik (% 24,3) edo eskuratzeko baldintzak betetze badituzte (% 10,1).

Gaur egungo datuak eta 2013ko barometrokoak alderatuz gero, ohartuko gara aldatu egin dela iritzia; orain, gutxiago dira etorkinek diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko inolako aukerarik ez luketela izan behar uste dutenak, prestazio horrek soilik bertakoentzat izan beharko luke-

³2011. urtera arteko Barometroetan, 2011koa ere barne, hauek ziren erantzuteko aukerak: a) Pertsona immigranteek ez lukete inolaz ere jaso behar diru-sarrerak bermatzeko errentarik: soilik bertakoek jaso beharko lukete. b) Etorkin guztiek izan beharko lukete aukera oinarritzko errenta jasotzeko, baina behar duten bertako guztiek jaso ondoren baino ez. c) Egoera administratibo erregularrean dauden pertsona immigranteek soilik eskuratu behar lukete diru-sarrerak bermatzeko errentaren zerbitzua. d) Etorkinek EAeko bertako biztanleen baldintza beretan izan beharko lukete diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko aukera.

elako (2013. urtean % 14,7 izatetik gaur egun % 10,3 izatera igaro da). Errenta jasotzeko aukera izan bai baina bertako guztiek eskuratu ondoren jaso beharko luketela uste dutenen portzentajeak gora egin du (2013an % 30,6 izatetik gaur egun % 35,4 izatera). Aldiz, prestazio hori administrazio-egoera erregularrean daudenek soilik jaso beharko luketela uste dutenen proportioa bere horretan mantendu da (% 24,3 2014n eta %24,2 2013an).

Bestalde, % 62,3ren ustez, etorkinek, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenez, ez dute lanik egin nahi edo ez dute lanik bilatzen; % 19,3k, baina, ez du horrela denik pentsatzen. Halaber, bertako herritarren % 64,2ren ustez, etorkinek gehiegi baliatzen dute diru-sarrerak bermatzeko errenta, eta, azkenean, berenganatu egiten dute.

2014ko barometroko datuak aurreko urtekoekin alderatuta, etorkinek sarrerak bermatzeko errenta gehiegi baliatzen dutela eta berenganatu egiten dutela uste dutenen ehunekoak behera egin du, 2013an % 64,9 izatetik gaur egun % 64,2ra izatera, hain zuzen. Era berean, nabarmen egin du gora baieztapen horrekin ados ez daudenen portzentajeak.


Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutela-eta etorkinek ez dutela lanik egin nahi edo ez dutela lanik bilatzen uste dutenen ehunekoa 2,1 handiagoa da 2013ko barometroarekin alderatuta. Alabaina, iritzi horrekin bat ez datozen pertsonen ehunekoak gora egin du, 2013an % 17,3 izatetik gaur egun % 19,3 izatera, hain zuzen.

36. grafikoa. Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko politika

Etorkinek, oinarrizko errenta jasotzen dutenez, ez dute lanik egin nahi edo ez dute lanik bilatzen



Etorkinak neurritz kanpo baliatzen dira oinarrizko errentaz, eta ia guztia haien eskuetara doa



Eusko Jaurlaritzak, Lanbideren bidez, diru-sarrerak bermatzeko errenta deritzon zerbitzua dauka.... Zure ustez, aipatutako horietatik zer jarrera hartu beharko lukete erakundeek? (13b eta 13a)

Aurreko barometroetan azaldu izan dugun moduan, azterketa honetan hori besterik neurtzen ez dugu arren, geure buruari galdetu beharko genioke ea jarrera hori etorkinenganakoa den soilik, edo erantzunetatik ondorioztatutakoaren arabera, biztanle guztienganakoa den. Azkenaldian, krisia dela eta, eztabaida publikoa sortu da ea laguntza horiek benetan eraginkorrak diren eta


norentzako izan beharko luketen; izan ere, gerta daiteke testuinguru horren eraginez hemengo jendearen susmo txarrak eta beldurrak handitzea.

Prestakuntza profesionalarekin eta hizkuntzak ikastearekin loturiko zerbitzuak, bai etorkinen berezko hizkuntza edo ama-hizkuntza edo bai tokian tokikoak ere ikasteko


Ondoren, beste zerbitzu edota programa batzuekin jarraituz, jakin nahi izan dugu EAEko herritarrek zer iritzi duten etorkinek beste zenbait zerbitzu doan eskuratzeko; prestakuntza profesionala jasotzeko eta hizkuntzak ikasteko (bai etorkinen berezko hizkuntza edo ama-hizkuntza edo bai tokian tokikoak ere) aukerez ari gara, funtsean (37. grafikoa).

Galdeketari erantzun diotenenetatik % 32,1ek uste du atzerritarrek ez luketela izan behar esku-biderik beren ama-hizkuntzari buruzko eskolak jasotzeko; % 34,5ek uste du egoera erregularrean daudenek baino ez luketela izan behar eskubide hori; eta % 28,9k soilik adierazi du etorkin guztiek izan beharko luketela eskubidea.


37. grafikoa. Etorkinek eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko duten aukera




g15d. Ama-hizkuntza



g15c. Euskarazko eskolak



g15b. Gaztelaniazko eskolak



g15a. Prestakuntza profesionaleko ikastaroak

Euskarazko eta gaztelaniazko eskolei buruz, inkestatutako bertako herritarren hamarretik gutxi gorabehera lauk adierazi du, beren ustez, atzerritar guztiek izan beharko luketela euskarazko eskolak (% 40,2) edo gaztelaniazko eskolak (% 41,4) hartzeko aukera. Inkestatuen erdiak, berriz, uste du EAEn legez dauden herritarrek baino ez luketela izan behar horretarako eskubidea (% 50,4k euskarazko eskolak, eta % 50,6k gaztelaniazko eskolak). Oro har, bertako biztanleen iritzia da egoera erregularrean dauden etorkinek izan beharko luketela zerbitzu horiek eskuratzeko eskubidea eta, horrenbestez, 2012an antzematen hasitako joera aldaketa berretsi dute 2013ko datuek.

Atzerritarrek prestakuntza profesionala jasotzeko aukera izateari buruz, gehiengoak (% 52,2) uste du erregularizatutakoek baino ez luketela izan behar aukera hori, eta % 35,4k, berriz, guztiek izan beharko luketela. Zerbitzu horrek guztientzako izan beharko lukeela uste dutenen ehunekoak 13 puntu igo da 2012ko datuekin alderatuta.

Arlo horretako galdera gehienei emandako erantzunekin (galdetegiko g14a, g14b, g14c, g14d, g14e, g14f, g14g, g15a, g15b, g15c eta g15d itemak) indize partzial bat landu dugu, ikusteko zer jarrera duten euskal biztanleek atzerriko etorkinek eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeari buruz. Indize hori 0 eta 10 puntu artekoa da; horrela, jarrera uzkurrena edo itxiena dutenak 0 puntutik hurbilago ageri dira, eta jarrera positiboena eta irekiena dutenak 10 puntutik hurbilago.

Beste behin ere estatistika aldetik desberdintasun esanguratsuak hauteman ditugu euskal herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrela, jarrera tolerantena eta irekiena ageri duten pertsonen profil hau dute:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (6,82 puntu)
- 5.000. eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan bizi diren pertsonak (6,52), 20.000 eta 150.000 biztanle arteko udalerrietan bizi direnak (6,38) eta hiriburuetan bizi direnak (6,58 puntu).
- Erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (6,91) edo goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (6,75 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonak (6,67 puntu)
- Ikasleak (7,15 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua duten pertsonak (6,69 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (7,11 puntu)
- Ezkerreko ideologia duten pertsonak (7,25 puntu)
- Beren burua oso abertzaletzat duten pertsonak (6,59 puntu)
- Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (6,56 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Etorkizunari begira aurreikuspen onak dituzten pertsonak (6,71 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (4,98 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin noiz edo noiz hartu-emanen bat duten pertsonak (6,57) eta hartu-eman handia dutenak (6,57 puntu)
- Aisialdian etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (7,15 puntu)
- Etorkin asko dagoen auzoetan bizi diren pertsonak (6,79 puntu)

Beste muturrean dugu eskubide eta zerbitzuak eskuratzeko jarrera murriztaileena erakutsi dutenen profila, eta, beraz, immigrazioarekiko jarrera uzkurrena agertu dutenena. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 45 eta 64 urte bitarteko pertsonak (6,33) eta 65 urtetik gorakoak (6,19 puntu)
- 5.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren pertsonak (5,67 puntu)
- Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak (5,98 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (6,32 puntu)
- Langabezian daudenak (6,43), erretiroa hartu duten pertsonak (5,27), eta etxeko lanetan dihardutenak eta etxekoandreak (6,03 puntu)
- Estatus sozioekonomiko baxua duten pertsonak (6,25 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Pertsona katoliko praktikanteak (6,19) eta ez-praktikanteak (6,10 puntu)
- Zentroko ideologia duten pertsonak (5,91) eta eskuinekoa dutenak (5,35 puntu)
- Beren burua nazionalista espainiarizat jotzen duten pertsonak (5,99 puntu)
- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (6,28 puntu)


– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (6,22 puntu)
- Ereku pribatuan etorkinekin oso hartu-eman gutxi duten pertsonak (6,49) eta inolako hartu-emanik ez dutenak (6,25 puntu)
- Ereku publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (6,09 puntu)
- Aisialdian etorkinekin hartu-emanen bat duten pertsonak (6,56) edo inoiz ez dutenak (6,03 puntu)
- Etorkinen eta bertakoen nahasketa dagoen auzoetan bizi diren pertsonak (6,25 puntu)

Harremanetarako eta kultura-jarraibideei eusteko eremuak

Ondoren, bertako biztanleak eta atzerriko etorkinak non erlazionatzen diren aztertuko dugu, harremanetarako eta elkarreraginerako zer espazio dituzten. Lehenik eta behin, bizitoki-eremuen tipologia planteatu dugu (atzerritar gehiago edo gutxiago bizi diren eremuak), jakiteko galdekakutako pertsonak zein bizitoki-motatan nahiago duten bizi. Eta bestetik, atzerriko etorkinen kultura-ohiturekin lotutako gaiak planteatu dizkiegu, kultura-aniztasuneko edo kulturartekotasuneko testuinguruetan gerta daitezkeen aldaketak eta sor daitezkeen ohitura berriak zein neurritan onartzen dituzten jakiteko.

38. grafikoa. Bizitoki-eremuekin loturiko lehentasunak




g20. Non bizi nahi duzun erabaki beharko bazenu, hiru leku hauetatik zein aukeratuko zenuke?

Bizitoki-eremuei dagokienez (38. grafikoa), hemengo biztanleen gustuak ez dira askorik aldatu, egin izan diren barometroetan. Inkestatuen % 73,8k nahiago du, aukeran, bere arraza edo talde etniko bereko pertsonak gehiago diren auzoren batean bizi. Galdekatuen laurden batek (% 22,5ek) nahiago du bere auzoan inor ez izatea euskal biztanlerian gehiengoa den arraza edo talde etnikotik kanpokoa. Azkenik, %1,8k baino ez luke nahi arraza eta talde etniko askotako pertsonak bizi diren toki batean bizi.

Hemengo biztanleriak, aurreko urteetan bezala, nahiago du gaur egun bizi den antzeko tokietan bizi; izan ere, Bilboko eta Gasteizko zenbait auzo zaharretako bizpahiru tokitan izan ezik, ez dai-teke esan bilgune etniko handirik badenik hemen.

Atal hau bukatzeko, aztertuko dugu zenbaterainoko tolerantzia duen hemengo biztanleriak etorkinak hemen finkatzearen ondorioz eta haien kultura- eta erlijio-ohiturei eustearen ondorioz sortu ohi diren egoerekiko. Horretarako, zehaztasun handiagoz jokatzeko eskatu diegu inkestatuei, eta galdetu diegu ea ondo ala gaizki iruditzen zaien atzerritarrek saltokiak, jatetxeak eta janari-dendak irekitzea, beren artean beren hizkuntzan hitz egitea, beren jantziak jantzea, gurtzarako tenpluak izatea, beren ikastetxeak izatea, eta lanpostu eta toki publikoak betetzea.


39. grafikoa. Etorrinen kultura-jarraibideekiko tolerantzia-maila



g17. Ondo edo gaizki iruditzen zaizu atzerritarrek... beren janari-dendak edukitzea eta beren artean beren hizkuntzan hitz egitea

Inkestatutako hamarretik bostek (40. grafikoa) begi onez ikusten du atzerritarrek jatetxeak irekitzea (% 53,3) edo beren saltokiak jartzea (% 58,5). Bertako biztanleen hamarretik lauk ontzat jotzen dute, halaber, etorkinek beren janari-dendak edukitzea (% 42,7) edo beren artean beren hizkuntzan hitz egitea (% 51,3).

40. grafikoa. Etorkinen kultura-jarraibideekiko tolerantzia-maila




g17. Ondo edo gaizki iruditzen zaizu atzerritarrek... jatetxe exotikoak edo atzerritarrek irekitzea, beren saltokiak irekitzea

Kontu exotikoetatik urrundu ahala eta zenbait ohitura kulturalen muinera jo ahala, horiei buruz galdetuta, agerikoa da iritzi negatiboak nagusitzen direla positiboen gainetik egoera jakin batzuetan. Adibidez, atzerritarrek beren ikastetxe propioak izatea gaizki iruditzen zaio bertakoen % 43,3ri, eta beren erlijio-tenpluak eraikitzea ere gaizki iruditzen zaio beste % 32,2 bati. Bestalde, ulerkorrago ageri dira, beren jantziak jantzeko aukerarekin (% 34,4), eta plazak eta toki publikoak betetzeko duten eskubidearekin (% 34,4) baina kasu guztietan puntuazioa nahiko apala da.

Kultura-ohitura berriekiko portaera horien bilakaera aztertzen badugu, ohartuko gara 2008tik hona bertako herritarrek gero eta gutxiago onartzen dutela etorkinek beren janari-dendak edukitzea eta beren arropa bereziak jantzea.

Hala eta guztiz ere, urteek aurrera egin ahala hobetu egin da beste kultura-ohitura batzuen inguruko onarpena, esate baterako beren artean beren hizkuntzan hitz egitearen inguruan, jatetxe exotikoak edo atzerriko janariak irekitzearen inguruan, edota are gurtzarako beren tenpluak eraikitzearen inguruan, nahiz eta oraindik ere puntuazioak apalak diren.


41. grafikoa. Etorकिनen kultura-jarraibideekiko tolerantzia-maila




g17. Ondo edo gaizki iruditzen zaizu atzerritarrek... beren arropak janzea eta gurtzarako beren tenpluak eraikitzea

Nolanahi ere, datu hauek 2013ko barometrokoekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu jaitsiera bat izan dela balioespen positibo guztietan, esate baterako beren janari-dendak edukitzearen inguruan, beren jatetxe eta saltokiak irekitzearen inguruan, lanpostu eta toki publikoak betetzearen inguruan, gurtzarako beren tenpluak eraikitzearen inguruan eta beren arropa bereziak janztearen inguruan. Aurten hobera egin duen iritzi bakarra beren arropa bereziak janztearen ingurukoa da.

42. grafikoa. Etorकिनen kultura-jarraibideekiko tolerantzia-maila



(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)



g17. Ondo edo gaizki iruditzen zaizu atzeritarrek... lanpostu eta toki publikoak betetzea, ikastetxe propioak edukitzea

Arlo horretako galderei emandako erantzunekin (galdetegiko g17a, g17b, g17c, g17d, g17e, e17f, g17g, g17h, g20 eta g29 itemak) harremanetarako espazioak direla-eta euskal biztanleek duten jarrerari buruzko indize partziala landu dugu. Indize hori 0 eta 10 puntu artekoa da; horrela, elkartrukerako jarrera uzkurrena edo itxiaena dutenak 0 puntutik hurbilago ageri dira, eta jarrera pluralena eta irekiena dutenak 10 puntutik hurbilago.

Beste behin ere estatistika aldetik desberdintasun esanguratsuak hauteman ditugu euskal herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrela, jarrera toleranteena ageri duten pertsonen profil hau dute:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (6,23), 30 eta 44 urte bitartekoak (6,12) eta 45 eta 64 urte bitartekoak (5,80)
- 5.000. eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan bizi diren pertsonak (5,96), 20.000 eta 150.000 biztanle arteko udalerrietan bizi direnak (5,88) eta hiriburuetan bizi direnak (5,86 puntu).
- Bizkaian bizi diren pertsonak (6,07 puntu)
- Erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (6,37) edo goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (6,58 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 1.800 euro eta 2.500 euro arteko diru-sarrerak garbiak dituzten pertsonak (6,44) edo 2.500 eurotik gorako sarrerak dituztenak (6,50 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonak (6,21 puntu)
- Ikasleak (6,57 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua duten pertsonak (6,71 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (6,53 puntu)
- Ezkerreko ideologia duten pertsonak (6,46 puntu)
- Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (5,98 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (6,05) eta beren burua ez ezkortzat eta ez baikortzat ere ez duten pertsonak (5,85 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen onak dituzten pertsonak (6,27) eta normalak dituztenak (6,29 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (6,45 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin hartu-emanen bat duten pertsonak (6,00) eta hartu-eman handia dutenak (6,04 puntu)
- Aisialdian etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (6,96 puntu)

Beste muturrean, immigrazioarekiko jarrera uzkurrena hartzen duten pertsonak daude. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 65 urtetik gorako pertsonak (5,20 puntu)
- 5.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren pertsonak (5,03 puntu)
- Araban bizi diren pertsonak (5,53) eta Gipuzkoan bizi direnak (5,51 puntu)
- Ikasketarik ez duten pertsonak (5,15 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 1.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerara garbiak dituzten pertsonak (5,67 puntu) edo 1.000 eta 1.800 euro bitartekoak dituztenak (5,71 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (5,65) eta egoera horren ardurarik ez dutenak (5,68 puntu)
- Etxeko lanetan diharduten pertsonak eta etxeakoandreak (5,20 puntu)
- Batez besteko erdi-mailako estatus sozioekonomikoa duten pertsonak (5,84) edo baxua dutenak (5,56 puntu).

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Pertsona katoliko praktikanteak (5,27 puntu)
- Eskuineko ideologia duten pertsonak (5,19 puntu)
- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (5,65 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorrak (5,40 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (5,40 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin oso hartu-eman gutxi duten pertsonak (5,93) eta inolako hartu-emanik ez dutenak (5,59 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (5,36 puntu)
- Aisialdian etorkinekin oso hartu-eman gutxi duten pertsonak (5,92) edo inolako hartu-emanik ez dutenak (5,41 puntu)


Begikotasuna eta integrazio-mailaren pertzepzioa

Galdekatutako herritarrek hainbat herrialdeetako etorkinenganako sentitzen duten begikotasuna aztertuko dugu atal honetan.

Otik 10erako eskala batean neurtu dugu begikotasun hori, kontuan hartuta Ok esan nahi duela etorkinak ez dituztela batere begiko eta 10ek oso begiko dituztela. Hala, 44. grafikoak adierazten duenez, kultura, politika eta gizarte aldetik hurbilen dituen kolektiboak begikotasun handiagoz ikusten ditu euskal gizarteak, eta alderantziz:


- Begikotasun txikiena magrebtarrek (3,6), errumaniarrek eta Europa ekialdeko kolektiboek (4,2) izaten dute; hau da, kulturaren edo gizartearen ikuspegitik urrunekoak direnak edota aurreiritzi handienak sortzen dituztenek. Horien atzetik Pakistan (4,3) eta Asiako komunitatea datoz, eta zehazkiago, Txinako (4,8).
- Puntuazio ertainak Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako pertsonentzat dira (5,6), eta Latinoamerikako jatorri gehienentzat, hala nola Bolivia (5,4), Paraguai eta Nikaragua (5,4), Ekuador (5,4) eta Kolonia (5,2).
- Mendebaldeko Europar Batasuneko (6,4) eta Argentinako (6,1) herritarrekiko dute begikotasunik handiena, eta halaber, AEBtako jatorria duten pertsonetarako (5,9).

43. grafikoa. Etorkinenganako begikotasun-maila eta integrazteko aitortzen zaien interesa, etorkinen jatorrizko herrialdearen arabera



g19. Esan, mesedez, Otik 10erako eskalan, ondorengo herrialdeetako edo munduko eskualdeetako pertsonetarako sentitzen duzun begikotasuna. Ok esan nahi du ez dituzula batere begiko eta 10ek oso begiko dituzula.

44. grafikoa. Etorकिनenganako begikotasun-maila, etorkinen jatorrizko herrialdearen arabera



*2012 Barometrotik aurrera, Nikaragua eta Paraguaiko nazionalitateak sartu dira.

Komunitate hartzailearen eta etorkinen komunitatearen arteko bizikidetzeta eta integrazioa

Kultura anitzeko gizarte baten aldekoak dira euskal herritarrak, baina asimilazio-ikuspegi argi batetik. Aniztasuna onartzen du euskal gizarteak eta aitortzen du aberastu egiten duela gizartea bera, baina, aldi berean, bertako pertsona gehienek uste dute, bizikidetzeta hobetzeko, immigranteek bertako ohiturak eta tradizioak eskuratzen saiatu behar luketela. Nabarmentzekoa da, hala ere, % 74,1en iritziz ahalegin hori guztiok egin beharrekoa dela.

Hori horrela izanda ere, euskal gizartea ez dago bere ohitura eta tradizioei uko egiteko prest, bizikidetzeta hobetzeko xedez. Argigarria da jarrera hori, eragina baitu bizikidetzeta-ereduan eta kontrajarria baita kulturen arteko bizikidetzeta-ereduarekiko.

Asimilazio-ikuspegiak gero eta indar handiagoa duela ikusten da 2013ko barometroko emaitzak aurreko urteetako datuekin konparatuta. Immigrazioaren fenomenoaren errealitate gero eta egonkorragoa eta egiturazkoagoa da gure gizartean. Bertako herritarrak gero eta gehiago jabetzen dira gizarte-errealitate berri horretaz, etorkinen eta bertakoen arteko elkarrengana gero eta handiagoa baita eta, horren ondorioz, kulturen arteko gero eta bizikidetzeta-egoera gehiagotan egokitzen dira bertakoak, garai batean sortzen ez zitzaizkien egoeretan. Egoera berri honek asimilazioaren aldeko erreakzioak sorrarazi ohi ditu. Gorabidean diren errealitate berrien aurrean norberaren ohiturak, gure gizartean nagusi direnak, babes-tea da erantzun horien funtsa eta helburua. Gizarte-jarrera hori nahiko normala da immigrazioa gertakari nahiko urri eta apartekoa izatetik egiturazko fenomeno sozial, egonkor eta garrantzitsua izatera igarotzen ari den gizarteetan.

Ildo orokor horren baitan, euskal gizartean estereotipo batzuk gailentzen dira migrazioaren fenomenoarekin lotuta; hala nola, gehiegizko onura ateratzen dutela gizarte-babeseko sistematik, jasotzen dutena baino zerga gutxiago ordaintzen dituztela eta segurtasun faltaren

eta delinkuentziaren eragile direla. Horrez gainera, bertako biztanleriarekin alderatuta, hemengo jende gehienak uste du euskal herritarrak baino matxistagoak direla atzerritarrak. Hala ere, gehienek uste dute gu bezain zintzoak, solidarioak, adeitsuak, langileak eta atseginak direla, eta horrekin batera, uste dute beren erlijio-jardunak ez duela arriskuan jartzten gure bizi-estiloa. Halaber, etorkinek zahartzearen arazoa konpon dezaketela uste dute galdekatutako pertsona gehienek, baina uste hori indarra galtzen hasi da dagoeneko.

Bestalde, euskal gizarteak pentsatzen du gizarte-eskubideak eta -zerbitzuak eskuratzeko, immigranteek modu erregularrean bizi behar dutela Euskal Autonomia Erkidegoan. Osasunaren eta hezkuntzaren arloak dira atzerritar guztientzat hobesten diren eskubide eta zerbitzu bakarrak, atzerritarrak erregularizatuak izan ala ez. Hizkuntzak ikasteko prestakuntza eta ikastaroak jasotzeari dagokionez, gero eta nabarmenagoa da erregularizatuta dauden pertsonenganako hautua, ama-hizkuntza ikasteko aukeraren kasuan izan ezik, puntu horretan gizarte banatuta baitago inola ere horrelakorik jaso behar ez zutela uste dutenen eta erregularizatuta daudenek bakarrik jaso beharko lituzketela uste dutenen artean.

Atzerritarren usadio eta ohituren adierazpenari dagokionez, bertako biztanleek jarrera irekiagoz hartzen dituzte zerbitzu bat eman diezaieketen alderdiak eta kultura-aniztasunaren kanpoko elementutzat edo elementu estetikotzat har daitezkeen alderdiak, hala nola, merkataritza etnikoa edo atzerritarrek irekitako saltokiak. Hala ere, kultura-aniztasunarekin lotuago dauden beste elementu batzuekiko jarrera itxiagoa dute EAEko herritarrek; adibidez, ez dituzte hain begi onez hartzen beren usadio eta ohituren adierazpenak, beren jatorriko herrialdeko arropak janzteak, gurtzarako beren tenpluak eraikitzea eta lanpostu eta toki publikoak betetzea. Onarpena baino arbuioa handiagoa da, diferentziak eragiten dituzten alderdiak hezkuntza-esparruarekin loturik baldin badaude.

2013arekin alderatuta, beren artean beren hizkuntzan hitz egitearekin loturiko kultura-ohitura positibotzat hartzen dute, negatibotzat baino gehiago.

Azkenik, eta hemengo biztanleriak nazionalitateen arabera duen begikotasun-mailari dagokionez, ikus daiteke azken urteotako joera berberari eusten zaiola. Horrela, Argentinako eta EB mendebaldeko herrialdeetako pertsonetikiko begikotasuna handiagoa da, eta aldiz, kontrako aldean ditugu Magrebeko jatorria duten herritarrak eta Errumaniatik eta EB ekialdetik etorritako biztanleak. Jatorrizko herrialdearen arabera etorkinenganako begikotasunaren bilakaera aztertuz gero, Magreb, Errumania eta ekialdeko herrialdeak ageri dira beti azken lekuetan.

Eta datuok 2013ko barometroarekin alderatuta ere, nazionalitate horiek dira bertakoen artean begikotasun gutxien sortzen dutenak.

Immigrazio-politika

Azken atal honetan, galdeketari erantzun diotenen arabera euskal erakundeek zer-nolako immigrazio-politika egin behar duten aztertuko dugu. Horretarako, immigrazio-politikarik egokienari buruz, kanporatzeko arrazoiei buruz eta babes politikoa eskatzen duten pertsonekin hartu beharreko politikari buruz galdetu diegu bertako herritarrei.


- Sartzea, bertan gelditzea eta kanporatzea
- Egoera irregularrean dauden etorkinekiko politika
- Babes politikoa eskatzen duten pertsonetikiko politika

Ondoren, hartu beharreko migrazio-politikari buruzko indize sintetikoaren emaitzak aurkeztu ditugu eta, azkenik, ondorioak atera ditugu, atala laburbiltzeko.

Sartzea, bertan gelditzea eta kanporatzea

Lehenik eta behin, jakin nahi izan dugu zer iritzi duten hemengo biztanleek immigrazio-politikarik egokienari buruz eta etorkinei hemen sartzeko eskatzen zaizkien baldintzei buruz. 45. grafikoa ikus daitekeenez, galdeketari erantzun dioten herritarren % 90en iritziz sartzen utzi behar zaie, baina legezko baldintzetan: inkestatuen % 64,2ren ustez lan-kontratua dutenei baino ez zaie utzi behar sartzen, eta % 17,1en iritziz legezko beste baldintza batzuk betetzen dituzten etorkinei ere utzi behar zaie sartzen (familia berriro elkartzeko asmoa dutenei, errefuxiatuei...).

45. grafikoa. Immigrazio-politika euskal biztanleen arabera⁴



g8. Zure ustez, zein litzateke etorkinekiko immigrazio-politika egokiena?

⁴2011ra arteko Barometroetan hauek ziren galdera eta erantzuna: Zure ustez, zein litzateke langile etorkinekiko immigrazio-politika egokiena? a) Inolako lege-eragozpenik gabe sartzen uztea; b) Lan-kontratua dutenei soilik sartzen uztea; c) Atzerriko etorkinei erabat debekatzea EAEn sartzeta.


Beraz, ia pertsona guztiak dira atzerritarrei sartzen uztearen aldekoak, baldin eta immigrazio-prozesua legezko baldintzen arabera egiten bada; hau da, lan-kontratua tartean bada edo legezko beste baldintza batzuk betetzen badira. Herritarren % 8,7, berriz, etorkin guztiei sartzen uztearen aldekoa da, lege aldetik inolako oztoporik jarri gabe, eta beste % 5,9a, aldiz, etorkinei sartzen uztearen erabat kontrakoa da. Azken zifra hori, nolana ere, oso txikia da.

Bilakaerari erreparatuz gero, legezko inolako oztoporik gabe sartzearen alde daudenen ehunekoa jaitsi egin da zertxobait azken urtebetean, 2013an % 8,2 baitzen eta 2014ko barometroan % 8,7 izan baita. Guztiz etorkinak sartzearen aurka daudenen artean beherakada apal bat ikus dezakegu, % 6,4 izatetik % 5,9 izatera igaro baitira.

Ikusten da, beraz, bertako jendeak immigrazioarentzat gehien onesten duen sarbide-sistema lan-kontratuaren bidezkoa dela. Sarbiderako faktore bat bada enplegua, zein dira, bertako jendearen ustez, immigrazio-politika batek izan beharko lituzkeen irizpideak immigranteak hemen mantendu edo kanporatzeko? 46. grafikoak erakusten duenez, bertako biztanleriaren % 57k uste du lanik gabe gelditzea ez dela inor kanporatzeko arrazoi, eta hamarretik bik (% 18,2) uste du lanera datozen atzerritarrak lanik gabe geldituko balira kanporatu egin behar lituzketela.

2013ko datuekin alderatuta, ikus dezakegu axolagabeen ehunekoa zertxobait jaitsi dela % 23,6tik % 22,1era, baina langabezian geratzeak kanporatzeko arrazoi izan beharko lukeela uste dutenak ere gutxiago dira, 2013an % 21,2 izatetik 2014an % 18,2 izatera igaro baitira. Eta horren ondorioz, langabezian geratzeak ez lukeela kanporatzeko arrazoi izan beharko uste duten pertsonak gehiago dira orain, % 52,4tik % 57ra igaro baitira.

46. grafikoa. Etorkinak bertan gelditzeko eta kanporatzeko faktoreak




g6d. Lanera datozen atzerritarrak lanik gabe gelditzen badira denbora batez, kanporatu egin beharko lituzkete

Hemengo biztanleria, ordea, intrantsigenteagoa da legea betetzearen gaiarekin (47. grafikoa). Galdeketari erantzun dioten hamarretik seik (% 62,9) uste du delitu bat egiten duten atzerritarrak kanporatu egin behar direla; bostetik bati (%17,1), berriz, edo ez zaio iruditzen inor kanporatzeko arrazoia edo berdina zaio (% 14,2).

Hala, delituren bat eginez gero etorkinak kanporatzearen aldekoak direnen ehunekoak ia 3 puntu egin du gora 2011. urteaz geroztik (% 59,8tik %62,9ra); ez dakitenen ehunekoak ere gora egin du (% 11,8tik %14,2ra), eta kasu horietan etorkinak kanporatzearen kontra direnena apaldu egin da (% 25,8tik %22,1era).

Euskal gizartea zorrotzagoa da delituaren faktorearekin lanaren faktorearekin baino, eta deliturik egin duten etorkinen kasuan immigrazio-politika murriztaileagoak ezartzearen aldekoa da. Delituaren karga etorkinaren gain ikusten du, eta, lanari dagokionez, aldiz, badirudi etorkinaren aldekoago dela, eta ez dela hura baztertzearen aldekoa.

47. grafikoa. Etorkinak bertan gelditzeko eta kanporatzeko faktoreak



g6f. Kanpotik etorri den batek delituren bat eginez gero, herrialdetik kanporatu beharko lukete

Egoera irregularran dauden etorkinekiko politika

Etorkinekiko politika egokienari buruz oro har eta kanporatzeko balizko arrazoi batzuei buruz hemengo biztanleen iritzia aztertuta, jakin nahi izan dugu beren iritziz erakundeek zein ildori jarraitu beharko lioketen administrazio-egoera irregularran dauden atzerritarren kasuan.

Galdeketa bete dutenen % 54,1ek uste du lana duten atzerritarrak bakarrik erregularizatu beharko lituzkeela gobernuak (48. grafikoa); ideia hori gero eta gehiago zabaldu da 2012az geroztik, orduan hamar pertsonatik lauk bakarrik (% 41,1) ikusten zuelako horrela. Hamar pertsonatik batek (% 10,9) uste du bizileku-baimenik ez duten atzerritar guztiak kanporatu beharko lirakeela; % 15,6k, berriz, etorkin guztiak erregularizatu behar lirakeela, "paperak emanda"; eta % 11,6k, azkenik, beren herrialdera itzultzeko baliabideak eman beharko litzaizkiekeela uste du.


Kopuru horiek 2013. urtekoekin alderatzen baldin baditugu, lana duten pertsonak bakarrik erregularizatzearan alde dauden pertsonen ehunekoak 2,4 puntu egin du gora. 2012an, indarra galdu zuen enpleguak eskaintzen zuen balio instrumentala eta ziurtasuna, eta halere, data horretatik aurrera, berriro indarra hartzen hasiko da.

2012an, denak kanporatu beharko lirakeela uste duten pertsonen kopuruak gora egin du, 2011n % 8,8 izatetik 2012an % 21,3 izatera igaro baita. Gaur egun, berriro ere jaitsi egin da

egoera irregularrean dauden pertsonak kanporatu egin beharko liratekeela uste duten pertsonen ehunekoak (% 10,9).

% 15,6k uste du erakundeek etorkin guztien egoera erregularizatu beharko luketela, eta % 10ek, berriz, bizileku-baimenik ez duten atzerritar guztiak kanporatu beharko liratekeela pentsatzen du. Nahiz eta azken urteetan aldaketa handirik ez den izan, 2008ko datuekin alderatzen badugu, ikusiko dugu nola handitu den lana duten pertsonak soilik erregularizatzearen aldekoak diren ehunekoak. Etorkin guztiak erregularizatu beharko liratekeela uste dutenen ehunekoak nabarmen egin du gora 2013ko datuekin alderatuta, eta, aldiz, modu batera edo bestera –hau da, beren herrialdera itzultzeko baliabideak emanda edo denak kanporatuta– etorkinak kanporatzearen alde dauden ehunekoak gora egin du, % 22,5eraino hain zuzen.

48. grafikoa. Egoera irregularrean dauden etorkinekiko politika




g10. Zure ustez, zer egin beharko luke Gobernuak egoera "irregularrean" dauden etorkinekiko?

Babes politikoa eskatzen duten pertsonetikiko politika

Babes-politikoa eskatzen duten errefuxiatuekin egin beharreko politikari buruz hemengo jendeak zer iritzi duen ere jakin nahi izan dugu. 42. grafikoan ageri denez, % 46,2 babesa ematearen aldekoa da, beti ere egiaztatzen bada jazartzen ari zaizkiela; % 17,8 mugarik gabe babestearen aldekoa da, eta, azkenik babes-politikoa eskatzen duten pertsonen kopuru mugatu bat hartzearen aldekoa da % 18,5.

2013ko datuekin alderatuta, behera egin du nabarmen urtean kopuru mugatu bat hartzearen alde dauden ehunekoak; hori izan da alde nagusia. Babes politikoa jazartzen ari zaizkiela frogatzen dutenei eman behar zaiela uste dutenen ehunekoak 2,5 puntu egin du behera, eta behera egin du, orobat, inolako mugarik gabe babesa eman behar zaiela uste dutenen portzentajeak ere (% 20,3tik % 17,8ra).

49. grafikoa. Babes politikoa eskatzen duten pertsonetako politika



g11. Zure ustez, zer egin beharko litzateke babes politikoa eskatzen duten pertsonekin?

Arlo horretako galderei emandako erantzunekin (galdetegiko g6d, g6f, g9, g10 eta g11 itemak) hartu beharreko migrazio-politikaren gainean euskal gizarteak duen jarrerari buruzko indize partziala landu dugu. Indize hori 0 eta 10 puntu artekoa da; horrela, jarrera itxiena eta murriztaileena dutenak 0 puntutik hurbilago ageri dira, eta jarrera positiboena eta irekiena dutenak 10 puntutik hurbilago.

Beste behin ere estatistika aldetik desberdintasun esanguratsuak hauteman ditugu euskal herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrela, jarrera toleranteena eta irekiena ageri duten pertsonen profil hau dute:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (5,54 puntu)
- Erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (6,01) eta goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (5,56 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 1.800 eta 2.500 euro arteko diru-sarrerara garbiak dituzten pertsonak (5,64 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonak (5,50 puntu)
- Ikasleak (5,75 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua duten pertsonak (5,76 puntu)
- Krisialdiak ia eragin ere ez dien pertsonak (5,39) edo nolabait eragin dienak (5,36 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (5,76 puntu)
- Batez ere euskaldun sentitzen diren pertsonak (5,36 puntu)

- Ezkerreko ideologia duten pertsonak (5,84 puntu)
- Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (5,45 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (5,31 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (5,60 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin noiz edo noiz hartu-emanen bat duten pertsonak (5,39) eta hartu-eman handia dutenak (5,35 puntu)
- Aisialdian etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (5,62 puntu)

Beste muturrean, migrazio-politikarekiko ikuspegi murriztaileena erakutsi eta, beraz, immigrazioarekiko jarrera uzkurrena agertu duten pertsonen profila dugu. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 65 urtetik gorako pertsonak (4,94 puntu)
- Ikasketarik gabeko pertsonak (4,47) eta lehen mailako ikasketak dituztenak (4,84 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 1.000 €tik beherako diru-sarrerak dituztenak (5,02), eta 1.000 eta 1.800 € arteko diru-sarrerak dituztenak (5,08 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (4,98) eta egoera horren ardurarik ez dutenak (5,15 puntu)
- Etxeko lanetan diharduten pertsonak eta etxekoandreak (4,75 puntu)
- Estatus sozioekonomiko baxua duten pertsonak (4,99 puntu)
- Krisialdiak gogor astindu dituen pertsonak (4,97 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Pertsona katoliko praktikanteak (4,90) edo beste erlijioetakoak (4,68 puntu)
- Batez ere espainiar sentitzen diren pertsonak (4,82 puntu)
- Eskuineko ideologia duten pertsonak (4,75 puntu)
- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (4,99 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorrak (4,97 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin oso hartu-eman gutxi duten pertsonak (5,22) eta inolako hartu-emanik ez dutenak (5,10 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,85 puntu)
- Aisialdian etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,89 puntu)

Immigrazio-politika

Laburbilduz, euskal gizarteak immigranteen lan-egoerarekin lotzen du, neurri handi batean, migrazio-politika. Izan ere, galdekatuak izan diren pertsona gehienek onartzen dute immigranteen sarrera, baldin eta lan-kontraturik badute. Tesi horrek azken urtean indarra galdu duen arren (-2,9 puntu), ikus dezakegu, krisialdi ekonomikoaren aurreko fasean, galdeketa bete duten hamar pertsonatik zortzik baino gehiagok enplegua sartzeko arrazoitzat jotzen zuela. Hala eta guztiz ere, azken urte hauetan, krisialdi ekonomikoa dela eta, kopuru horiek behera egin dute nabarmen, eta hamar pertsonatik sei dira enplegua sartzeko arrazoitzat jotzen dutenak.

Bestalde, behin bertara etorri ondoren, jendeak ez du uste lana galtzeak immigrantea kanporatzeko arrazoi izan behar duenik; izan ere, gehienek uste dute ez direla kanporatu behar aldi batez lanik gabe geratzen diren atzerritarrak. Aldiz, delituak egin izana da, bertako jendearentzat, atzerritarrak kanporatzeko arrazoi nagusietako bat. EAEko herritarren portzentaje handi batek uste du delituren bat egin duten atzerritarrak kanporatu egin beharko lirakeela, eta, gainera, gora egin du delituak egitea etorkinak kanporatzeko arrazoi dela uste dutenen ehunekoak (% 62,9).

Lan-kontratuak garantia inplizitu batzuk dituela uste du gizarte hartzaileak, etorkinaren integrazioa pausoz pausokoa izango dela ziurtatzen diotelako neurri batean; hori horrela, etorkinak hemen finkatzeak sor dezakeen ziurgabetasuna gainditzen da.

Beraz, lan-kontratuak, sartzeko baldintza izateaz gain, atzerritarrak erregularizatzeko oinarria ere bada, bertako biztanleen begietara. Bertako jendeak uste du lan-kontratuak baldintza erabakigarria dela immigrazioa “kontrolatua” izateko; izan ere, komunikabideetan eta gizarte-diskurtsoetan nagusi den irudiaren arabera, immigrazio-fluxua masiboa eta kontrol gabekoa da, eta etorkinak “uholdeka” datoz.

Lan-kontratuak beste muturra erakusten du, gizarte-hartzailearen behar eta kopuruetara egokitutako immigrazioarena, hain zuzen. Izan ere, halaxe da; immigrazioa beharretara moldatzen da, hura legezkoa izan nahiz legez kanpokoa izan, baina gizarte hartzaileak ez du horrela ikusten.

3. Immigrazioaren aurreko tolerantzia-indizea: tipologia bat

Aurreko urteetan bezala, immigrazioarekiko tolerantzia-indizea kalkulatu dugu; 2007tik ari gara lantzen indize hori⁵. Gure barometroko 65 galderei euskal biztanleek emandako erantzunen araberaren osatzen dugu indize hori. Adierazle horrek 0 eta 100 arteko digitu bat ematen digu, eta bildutako informazio guztia laburtzen dugu digitu horretan.

Immigrazioarekiko Tolerantziaren gure definizioa aurreko urteetako bera da, hots: euskal gizarteak etorkinenganako duen enpatia-gaitasuna, estereotipo negatiboak alde batera uztea, “besteengan” konfiantza izatea eta “gu” kontzeptu malguagoa izatea (nazionalismo metodologikoa gainditzea). Hizkera arruntagoan, euskal gizartearen “ahultasunaren pertzepzio subjektiboa” neurtzeko adierazlea da immigrazioarekiko gure tolerantzia-indizea. Aurreko urteetako barometroen beste txosten batzuetan ere adierazi izan dugu: pertsonen segurtasuna, konfiantza eta orainari eta etorkizunari aurre egiteko tresnak dituztela sentitzen duten neurrian (nortasunaren berezko ezaugarrien ondorio eta emozio, ekonomia, ongizate eta abarren aldetik ingurune pertsonal eta sozial sendoa edukitzearen ondorio izan daiteke hori), mehatxu sozial eta pertsonal gutxiago sentitzen dute etorkinen etorrera dela-eta, erreparatu eta errezelo gutxiago adierazten dute, eta gure eskalan puntu gehiago eskuratzen dituzte. Eta alderantziz.

2013. urteari dagokionez, 2014. urte honetan ez dugu inolako aldaketarik egin indize hori osatzen duten 65 aldagaian.

Gurutzaketa edo goiburuko aldagaiei dagokienez, jokabideak bereiziko dituztela pentsatuta, 2014. urte honetan bi berritasun bakarrik egin ditugu: Goiburuan eta aldagai sozioekonomikoen multzoan “krisiaren eragina” aldagaia gehitu dugu (diru-sarrerak, norberaren egoera ekonomikoarekin, jarduera ekonomikoarekin eta estatusarekin gustura egotea), baita “aisialdian atzerritarrekin harremana izatea” aldagaia ere aldagai psikosozialen eta harremanekin loturikoen multzoan edo goiburuan (baikortasun-maila, etorkizunari begira dituen aurreikuspenak, bizi den auzo-mota, eremu pribatuan atzerritarrekin harremana izatea edo eremu publikoan horiekin

⁵EAEko biztanleek 40 galderari emandako erantzunak oinarritzat hartuta lortu genuen 2007ko tolerantzia-indizea. Gero, 2008an, gure Barometroa osatu egin genuen eta 22 galdera gehiago gehitu genizkion indizearen prestakuntzari, eta horrek bere balioa handitzea ekarri zuen. Beraz, 2007ko tolerantzia-indizearen datua, 2008. urtea eta hurrengoak kalkulurako oinarritzat hartutako egindako balioespen bat da. Halere, ez ginen ausartu balioespen xehatuak egiten, eta horrexegatik, euskal gizarte osoarentzako tolerantzia-indize orokorraren balioari dagokion datua baino ez dugu eskaintzen.

harremana izatea). Gainerakoan, goiburu soziodemografikoan (sexua, adina, habitata, ikasketak eta bizi den lurraldea) eta ideologiko-identitarioetan (erlijioa, euskara, sentimendua, ideologia eta nazionalismoa) aldagai berak mantendu ditugu.

Immigrazioarekiko tolerantzia-indize hau lantzeko arrazoia da, hasteko eta behin, elementu jakin batzuei buruz euskal herritarrek zer iritzi duten jakitea, eta behin elementu eta iritzi horiek jakinda, euskal gizartearen “iritzia” sintetizatuko duen elementu bat izatea, eta gertatzen ari diren sakoneko aldaketak eta joerak bereizteko tresna bat eskuratzea. Hori dela eta, pertsona bakoitzaren iritzia banaka sintetizatuko duen lanabesa behar dugu eta, aldi berean, azpitaldeetan txerta daitekeena eta azpitalde horien artean alderaketak egiteko aukera emango duena. Tresna horren bidez, informazio oso zehatza dugu euskal gizartearen pertzepzio, balio, iritzi eta jarrerei buruz eta, aldi berean, informazio osoa dugu, herritarren kolektibo edo azpitaldeetan bana daitekeena.

Gainera, datu-serieen azterketari esker ikus dezakegu euskal gizartearen barruan zer joera dau den atzeritik etorritako pertsonen aurrean dugun ikuskera, iritzi, pentsamolde, jarrera eta jokabideen fenomeno interesgarriaren inguruan, gero eta aniztasun handiagoa erakusten ari den gure bizikidetzatestu-inguru honetan. Euskal gizartea eta gure ingurune hurbila (Espainia, Frantzia, Europa hegoaldea) hedapen eta garapen ekonomiko bete-betean zen garaian hasi zen immigrazio-prozesu hori, oparoaldi horri eustekotan behar-beharrezkoa baitzen kanpotik eskulan ugari iristea. 2008tik aurrera, ordea, ekonomia izugarri moteldu da eta azken 40-50 urtetan Europan eta munduan izan den krisi ekonomiko latzena etorri da ondotik, eta immigrazio-prozesuak testuinguru horretan izan du jarraipena.

Une honetan, makroekonomiaren datuek eta mikroekonomiaren datu batzuek iragartzen dutenaren arabera, badirudi joera-aldaketa bat gertatuko dela eta epe labur eta ertainera egoera ekonomikoak eta gizarte-egoerak hobera egingo dutela. Ikusiko dugu datozen urteetan nola eragiten dion gure tolerantzia-indizeari, baina dagoeneko hasiak gara aldaketa horren lehen zantzuak ikusten eta euskal gizartearen diskurtsoa ere hobetzen ari da.


Aurreko urte hauetan aipatu izan dugu gure tolerantzia-indizeak euskal hazkunde ekonomikoaren azterketa egiteko erabiltzen den jarraibidearen oso antzekoa erabiltzen duela. Hain zuzen, urteko BPGaren bidez neurtzen da euskal hazkunde ekonomikoa. Serie honetan datu gutxi ditugu oraindik (2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014), baina ohartu gara BGP hazten den urteetan, eskutik, immigrazioarekiko tolerantzia-indizea ere hazi egiten dela, eta, aldiz, BPGaren hazkundera negatiboa denean, murrizketak gertatzen direla tolerantzia-indizearen balioetan ere.

Usteen eremuan gabilta oraindik ere, baina egiaz, gure irudipena da biak ala biak, BPG eta gure tolerantzia-indizea, gizartearen konfiantzaren edo zalantzaren adierazle direla itxura batean; hala, gizartean, politikan eta ekonomian zalantza handiak dauden egoeretan, tolerantzia-indizearen balioak ere behera egiten du, jendearen beldur eta mesfidantzaren ondorioz, eta alderantziz, konfiantza eta baikortasun handiagoko egoeretan, gure indize horren balioak ere gora egiten du, eta era horretan, gizarte-giro hobea eta tolerantzia eta konfiantza gehiagokoa islatzen du.

2014ko Barometroak, euskal gizarte osoarentzat, 56,96 puntuko tolerantzia-indizea erakusten du: joan den urtean lortu genuen balioa baino puntu eta erdi handiagoa, eta 2012koa baino hiru puntu handiagoa, izan ere, 2012 hartan hondoa jo genuen, eta horrek erakusten du, 2014. urteari begira ekonomiak eta gizarte-egoerak hobera egingo duten aurreikuspen errepikatu horiek islatu egin direla eta, hala, gure etorkizunaren inguruan nolabaiteko konfiantza berreskuratu da,

eta horrek, arindu egiten ditu gure jarrera geurekoi eta endogamikoak, alegia, azken urteetan geureganatu genituen horiek, eta gure egunerokotasunean atzerriko naziotasuna, jatorria eta/edo etorkia duten pertsonetik jarrera toleranteagoa eskaintzen dugu.


50. grafikoa. 2014ko tolerantzia-indizea



Iturria: egileek egina

2008tik aurrera indize horrek erakusten du euskal gizartearen iritzia jarrera eta jokabide barnertzaileago batzuetatik beste jarrera eta jokabide intoleranteago batzuetara lerratu dela, batez ere 2012. urtean, baina azkeneko bi urte hauetan, hots, 2013an eta 2014an, ikus dezakegu hartutako bide okerra zuzendu nahian dabilela.

51. grafikoa. Tolerantzia-indizearen bilakaera. 2007-2014




Iturria: egileek egina

Arrazoi ugari egon daitezke bai gainbehera erortzeko eta bai euskal gizarteak auto-konfiantza berreskuratzeko ere, uste dugulako atzeritarrek etortzearekiko tolerantzia handiagoa edo txikiagoa edukitzea oso fenomeno konplexua dela, eta horretan, pertsona bakoitzaren nortasunaren berezko ezaugarri indibidualez eta bizi-esperientziak gain, beste hainbat aldagai soziodemografikok, psikosozialek, ingurune pertsonal eta sozial hurbileko faktoreek, ekonomikoek, ideolo-

gikoez eta abarrek zeresan handia dutela. Hipotesi modura eta eztabaidagai gisa bakarrik, horietako batzuk mahai gainera ekarri nahiko genituzke.

Lehenik eta behin, uste dugu atzerritik etorritakoekiko konfiantza galtzeak eta tolerantziarik ez izateak zerikusi handia duela EAEko eta Espainiako ekonomiaren egoerarekin. Gure indizeak erakusten dituen joerak ez dira asko urruntzen EAEko eta Espainiako BGPak islatzen duen ongizate ekonomikoaren bilakaerak erakusten dituenetatik. Oparoaldi ekonomikoko garaietan gure indizeak balio handiko uneak bizi izaten ditu, eta alderantziz.

52. grafikoa. BPGaren urtetik urterako aldaketa-tasak (%) 2008-2014



Iturria: INE, Eustat eta egileek egin

Uste dugu, halaber, diskurtso, jarrera eta jokabide intoleranteagoak indartzeak baduela zerikusia horiei eusten dietenentzat “inpunitate-eremuak zabaltzearekin” Hain zuzen ere, 2012ko lehen hiruhilekoan Euskadiko eta Espainiako gizarteek medioen eta erakundeen partetik jasan genuen bonbardaketari buruz ari gara, gure ekonomien orainari eta etorkizunari buruzko hainbat mezu katastrofista zabaltzen zituztela (arriku-primak, murrizketak hezkuntzan eta osasunean, hazkundearen murrizpena, erreskateak, etxegabetze-aginduak, langabezia eta abar). Estatuko instituzio gorenek, gobernu zentralak eta alderdi nagusiek, gobernuan egon nahiz oposizioan egon, atzerriko etorkin batzuen (irregularren) osasun-eskubideetan murrizketak egiteko lurra erein zuten, eta lan horrek bere fruituak eman zituen 2012ko apirilaren amaieran (osasun-txartela kentzea).

Gainera, uste dugu immigrazio-prozesuak berak ere jarrerarik toleranteenak ahuldu eta “errealitatearen ispiluan” jarri zituela. Hau da, tolerantziaren aldeko jarrera erakustea errazagoa zen gauzak ongi zihoazenean, immigrazio-kopuruak txikiak zirenean eta urte batzuetan EAEn lan egin ondoren beren sorterrietara itzuliko zirela uste zenean. Ikusi dugunean gero eta jende gehiago etortzen hasi dela, beren herrietara itzultzeko asmorik ez dutela, beren bizi-proiektuak hemen jarriak dituztela eta egoera ekonomikoak eta sozialak okerrera egin duela, orduan, dar-dar egin dute diskurtso, jarrera eta jokabide tolerante epelek, batez ere atzerriko immigranteekin zuzenean “lehian” aritu behar dutenen artean.

2013tik aurrera tolerantzia-indizeak hobera egingo badu, faktore ugariaren ondorioz izan daiteke, baina guk zenbait aldagai zirriborratuko genituzke, gure iritziz hipotesi modura konfiantza berreskuratzen lagundu ahal izan dutelako.

Alde batetik, gure ingurunerik hurbilenean, EAEn, diskurtso, jarrera eta jokabide intolerante eta xenofoboekiko gizarteak gero eta permisibitate handiagoz jokatzeari erakundeek eman dioten erantzuna nabarmena izan da, 2015eko maiatzeko hauteskundeen aurreko kanpainaraino gutxienez, intolerantziarekiko eta diskriminazioarekiko “inpunitatezko eremu” horiek mugatuz. 2014ko urte honen erdialderaino ez da pitzadurarik izan, kolore desberdinetako alderdietako politikari batzuek eta erakunde batzuek izan dituzten zenbait aldrebeskeria alde batera utzita. Pertsona guztientzat osasun-txartelari bere horretan eustea, bereizketarik egin gabe gizarte-laguntzei bere horretan eustea eta EAeko erakunde goren guztiek, Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek, baita hirugarren sektoreak ere, diskurtso barneratzaileak sustatzea, eta gainera, iritzi-preskribatzaile independente garrantzitsu baten laguntza bereziarekin, hots, Arartekoarekin, beti ezarri baititu zorrotzasun handiz injustiziaren, bazterketaren eta diskriminazioaren marra gorriak.

Horrez gain, udalen eremutik batez ere (euskal udal konprometituen sare bat dago), baina baita goragoko eremuen laguntzarekin, azken urte hauetan asko ugalduta dira herritarren ekimenak, “kaleko” jendea protagonistatzat hartzen dituztenak, hirugarren sektoreko erakundeetan baina baita gizarte, kultura eta herrigintzako beste esparru zabalago batzuetan ere askotan beren borondatez lanean ari direnak, eta horiek guztiek aurre egin diete eta gogor egin diete egunez egun diskurtso, jarrera eta jokabide intoleranteago hauei (atzerriko immigranteekiko estereotipo negatibo eta errepikakor faltsu horiei), bertako auzo eta udalerrietan eguneroko bizikidetzak hobetuz.

Ziurrenik, gure indizea hobetzeko ere funtsezkoa izango da EAerako eta Espainiarako hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak 2014. urte honetarako onak eta hurrengoetarako hobeak izatea, hauteskundeetako aurre-kanpaina amaiezin honetan hedabideek gau eta egun errepikatzen duten moduan. Horregatik guztiagatik, uste dugu 2015eko emaitzek azken bi urte hauetakoen bidetik joan beharko luketela.


2008ko finantza-krisiarekin hasitako krisialdi ekonomiko, sozial eta politikoaren zikloa amaitzear dagoela dirudien honetan, garrantzitsua da azpimarratzea euskal gizarteak espero zitekeen baino hobeto jakin duela egoera txarrari aurre egiten, eta hala, krisi ekonomiko sakona bizi izan dugun arren eta oraindik ere jasaten ari garen arren, hori ez da aitzakia izan etorkinekiko diskurtso eta jarrera tolerantziazko edota erradikalizatzeak. Egia da, halere, joan den urteko txostenean esaten genuen moduan, “euskal gizarteak ez duela krisiaren aurretik zuen konfiantzarik, baina esan liteke jakin duela, oro har, zuhertasunez eta soseguz irauten eta jasan ditugun eta jasaten ari garen garai txar hauei aurre egiten, immigrazioa arazo bihurtu gabe eta etorkizunei egoeraren errua egotzi gabe”. Eta orain, krisiaren unerik larrienak igaro direla dirudien honetan, badirudi euskal gizarteak atzerriko immigrazioaren aurrean dituen diskurtsoak, jarrerak, jokabideak eta iritziak ere hobetzen hasiak direla.

Laburbilduz, badirudi etorkizunerako ditugun aurreikuspenak alderdi guztietan hobetzen ari direla eta, sortzen ari den eszenatoki berri horretan, euskal gizartearen (eta Espainiakoaren) erronkarik handiena dibertsitatearen kudeaketa izango dela. Harrera ez da, dagoeneko, lehentasuna (garatuak ditugu, jadanik, mekanismoak, baliabideak, zerbitzuak, izapideak, protokoloak eta abar horri erantzuteko): orain, dibertsitate handiko euskal gizarte honetan, integrazio-prozesuek eta kudeaketa-prozesuek dute lehentasuna, eta dibertsitate hori handiagoa izango da, besteak beste, horren beharra duelako ongi kokatuta egoteko, XXI. mendean lehiatu ahal izateko eta herritar guztien artean ongizatea sustatzeko, bazterkeriarik gabe.

Beste urte batzuetan bezala, galdeketa bete duten pertsonen hamar arlotan emandako puntuazioak batuz lortzen dugu gure tolerantzia-indizea: etorkinen biztanleriaren BOLUMENaren per-

tzepzioa; atzerriko immigrazioa ARAZOTZAT hartzea; euskal EKONOMIAN duen eraginari buruzko iritzia; EUSKAL GIZARTEAN duen eraginari buruzko iritzia; BIZIKIDETZA-EREDUEI buruzko pertzepzioa; ESTEREOTIPOEK irautea; ESKUBIDEAK eta zerbitzuak eskura izateari buruzko jarrera; HARREMANETARAKO ESPAZIOEI buruzko iritzia; IMMIGRAZIO-POLITIKARI buruzko ikuspegia; eta atzerriko immigrazioak gure gizartean dituen ERABATEKO ERAGINEI buruzko pertzepzioa.

53. grafikoa. Puntuazioen bilakaera 10 arloetan. 2008-2014



Iturria: egileek egina

Euskal gizarteak arlo horietan izan duen jokabidearen bilakaera ez da uniformea izan urteotan guztietan. Horrenbestez, puntu hauek azpimarra ditzakegu:

- immigrazioa arazotzat hartzeari buruz, hobekuntza nabarmena izan da euskal iritzian eta gizarteak, oro har, ez du "arazotzat" hartzen fenomeno hori. Baditugu hori baino arazo garrantzitsuagoak, horietako bat immigrazioa izan daitekeela pentsatzen denbora alferrik galtzeko;
- immigrazioak kulturalki euskal gizartean eragina izan dezakeen galdetuta, euskal gizartearen pertzepzioa eta jarrera tolerantzia eta konfiantzazkoa da, eta hobera egiten ari da azken urteotan. Etorkinek eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko duten aukerari buruz, ikus dezakegu azken bi urte hauetan nolabait ere hobera egin duela egoerak, nahiz eta euskal gizartea, oraindik, ez den 2011ko posizioetara iritsi;
- euskal gizarteak dituen jarrerak, sinesmenak eta iritziak pixkanaka tolerantzia eta konfiantza gutxiagoko posizio batzuetara lerratzen ari dira immigrazioaren bolumenari buruz duten iritzia galdetutakoan, eta gertaera hori bereziki esanguratsua da gizarte-parametroak aldatzen ari garenean: harreratik dibertsitatearen bizikidetzara;
- atzerriko biztanleekin harremanak izateko eremuei buruz eta horien etorrerak euskal gizartean izan dituen ondorio orokorrei buruz galdetutakoan, berriz, euskal gizartearen jarrerak erdibidean kokatzen dira, baina azken bi urte hauetan hobekuntza arin bat ikus daiteke;
- atzerriko immigrazioak euskal ekonomian duen eraginari buruzko pertzepzioari dagokionez eta immigrazio-politiken aurrean hartu beharko genukeen jarrerari dagokionez, eus-

kal gizartearen iritziak zertxobait okerrera egin du urteotan guztietan, 2013an eta 2014an gorakada arin bat hauteman bazen ere, eta konfiantza galdu du immigrazioaren eragin positiboetan, nahiz eta oraindik ere tarteko balioei eusten dien;

- azkenik, bi arlo bereziki aintzat hartzekoak dira, tolerantzia-maila txikiak bi arlo horietan izan direlako. Alde batetik, euskal gizarteak atzerriko immigrazioari buruz dituen estereotipo negatiboek bere horretan jarraitzen dute, azken bi urteetan arinki hobera egin dugun arren. Eta jarrera, iritzi eta jokabideetan nabarmentzen den bizikidetzaren ereduari dagokionez (“asimilazio-eredu biguna”, dekantazio bidez) urtetik urtera gero eta jarrera intransigente, uzkur eta intoleranteagoetara lerratzen ari dira.

Aurreko txostenetan egin izan dugun bezala, pertsona-talde batzuek eta besteek immigrazioarekiko dituzten iritzi, pertzepzio, jokabide eta jarreretan egon daitezkeen aldeak aztertu ditugu aurtengo txosten honetan. Euskal gizartearen oraindik ere ez dugu hauteman muturreko talderik, hots, ez dago muturreko puntuaziorik duen azpitalderik gure tolerantzia-indizean: orain arteko azterketetan eskuratu ditugun segmentazio guztietan, talde batek eskuratu duen puntuazio txikiena 47,98 puntukoa izan da, eta handiena, 72,62 puntukoa. Hau da, eskuratutako biztanle-segmentu guztiak tarte horretan daude.

Gurutzaketako edo goiburuko hainbat aldagai baliatu ditugu bereizketa egiteko eta, herritarrek immigrazioarekiko agertu duten tolerantzia-mailaren arabera, euskal biztanleak talde batean edo bestean sailkatzeko. Aurten, aldagai soziodemografikoak (5), ideologiko-identitarioak (5), sozioekonomikoak (5) eta psikosozialak eta harremanekin loturikoak (6) baliatu ditugu.

Aldagai horien artean esanguratsuak eta bereizleak direnak hautemateko, aldagai biko analisia egin dugu, aurreko urteetako ildoari jarraituz. Analisi hori egiteko beharrezkoa da mendeko aldagai batekin eta aldagai aske batekin lan egitea, aldagai baten ANOVA analisia aplikatuta. Alde biko analisia, mugatua izanagatik ere, ezinbestekoa da, eta aldagai anitzeko beste edozein analisisiren aurretik egin beharrezkoa. Mugatua da, aldagai soziodemografiko aske batek ezkutatu egin dezakeelako elkarri eragiten dioten beste aldagai batzuen eragina edo ondorioa. Adibidez, elkarri oso lotutako aldagaiak izaten dira batzuetan, eta alde biko analisi batean zaila da horietako bakoitzak duen eginkizuna bereiztea; aldiz, aldagai anitzeko analisiak bakoitza bere lekuan jartzen du. Immigrazioari buruzko jarrerekin zerikusia duten kontuak aztertzen ditugunean, maiz nahasi egiten dira aldagai hauek: “adina” (hezkuntza-mailari, euskaraz hitz egiteari edo ez egiteari, lanbideari eta abarri lotua), “hezkuntza-maila” (adinari, estatusari, diru-sarrereri eta abarri lotua), “lanbidea” (estatusari, hezkuntza-mailari, diru-sarrereri eta abarri lotua) eta “estatusa” (hezkuntza-mailari, diru-sarrereri eta abarri lotua). Horregatik, bereiz aztertzen baditugu bi aldagai horiek, baliagarri izango dira taldeak diskriminatzen (adibidez, gazteak jarrera irekiekin lotzen dira, eta adinekoak jarrera itxiagoekin; edo esaten da heziketa gutxien duten pertsonak ez direla heziketa gehien dutenak bezain toleranteak), baina, elkarrekin aztertzen baditugu, gerta daiteke baten baino gehiagoren eragina ez nabaritzea.

Eta horrelaxe gertatzen da beste aldagai hauekin ere: ideologia politikoarekin, euskal identitatearen edota espainiar identitatearen sentimendu subjektiboarekin, euskal edo espainiar nazionalismo-mailarekin eta abarrekin.

Bigarrenik, eta aurreko aldagai bakarrek eta bi aldagaiko analisiak osatze aldera, aldagai anitzeko metodologiak baliatu ditugu. Izan ere, metodologia horiek lagundu egiten digute aldagaien arteko harremanak hobeto ulertzen, geroari aurre hartzeko ahalmenik handiena dutenak

nabarmetzen, aldagai batzuen eta besteen eragin gurutzatuak saihestuz eta indargabetuz, eta zer errealitatetan bizi garen hobeto jakiteko aukera emanez.

Urtero bezala, azterketa errazenekin hasiko gara, aldagai bikoekin. 2014ko Barometroan baliatutako aldagai soziodemografikoen analisiak aurreko azterketetan atera genituen ondorioak azpimarratu ditu berriro ere: atzerriko immigrazioarekiko tolerantzia handiagoa eta tolerantzia txikiagoa erakusten duten taldeak daude euskal biztanleen artean; euskal biztanleen artean talde batzuek puntuazio askoz handiagoak lortzen dituzte tolerantzia-indizean (talde irekiagoek eta toleranteagoek) eta beste talde batzuek puntuazio nabarmen txikiagoak lortzen dituzte (atzerriko immigrazioarekiko uzkurrago eta itxiago jokatzen duten taldeek):

- immigrazioarekin tolerantzia handiagoa erakusten dute nabarmen gizonezkoek (57,88 puntu) emakumezkoek baino (56,12 puntu)
- immigrazioarekiko nabarmen toleranteagoak dira 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (60,03 puntu) eta 30 eta 44 urte artekoak (58,03 puntu), 65 urtekoak eta hortik gorakoak baino (54,05 puntu)
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (62,48 puntu) eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (62,20 puntu), ikasketarik ez dutenak (53,51 puntu) eta lehen mailako ikasketak dituztenak baino (52,38 puntu)
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira hiriburuetan bizi diren pertsonak (58,27 puntu), 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi direnak baino (55,07 puntu).
- immigrazioarekiko nabarmen toleranteagoak dira pertsona agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (63,34 puntu) katolikoak baino, horiek praktikanteak izan (53,07 puntu) edo ez (55,07 puntu), edo beste erlijio batzuetakoak baino (52,15 puntu)
- immigrazioarekiko nabarmen toleranteagoak dira euskaraz hitz egiten duten pertsonak (58,52 puntu), euskaraz hitz egiten ez dutenak baino (55,60 puntu)
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira euskaldun soilik edo espainiar baino gehiago euskaldun sentitzen direnak (58,02 puntu), espainiar soilik edo euskaldun baino gehiago espainiar sentitzen direla esan dutenak baino (53,84 puntu).
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira ezkerreko ideologia duten pertsonak (62,23 puntu) eta zentro ezkerrekoak (59,36 puntu) eskuinekoak baino (48,80 puntu)
- immigrazioarekiko nabarmen toleranteagoak dira etxean 1.800 eta 2.500 € arteko diru-sarrerak dituztenak (60,31 puntu), 1.000 €-tik beherako diru-sarrerak dituztenak baino (54,80 puntu)
- immigrazioarekiko nabarmen toleranteagoak dira beren egungo egoera ekonomikoarekin gustura dauden pertsonak (59,88 puntu), gustura ez daudenak baino (54,17 puntu)
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira ikasten ari diren pertsonak (62,17 puntu), etxeko lanetan aritzen direnak baino (52,34 puntu)
- immigrazioarekiko nabarmen toleranteagoak dira estatus altua eta erdi-mailako altua dutenak (63,29 puntu), estatus baxua edo erdi-mailako baxua dutenak baino (54,73 puntu)
- immigrazioarekiko nabarmen toleranteagoak dira krisiaren eragin txikia jasan duten pertsonak (58,94 puntu) edo eragin ertaina jasan dutenak (58,45 puntu), krisiaren eragin handia jasan dutenak baino (54,69 puntu).
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira baikorrak direla dioten pertsonak (58,80 puntu) edo horri buruz iritzi garbirik ez dutenak (57,05 puntu), ezkorrek direla dioten pertsonak baino (54,36 puntu)
- immigrazioarekiko nabarmen toleranteagoak dira etorkizunari begira aurreikuspen onak dituzten pertsonak (59,98 puntu) eta aurreikuspen normalak dituztenak (59,62 puntu), aurreikuspen txarrak dituztela diotenak baino (54,60 puntu)

- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira bizilagun gehienak bertakoak diren auzoetan bizi direnak (58,10 puntu), hainbat jatorritako pertsonak nahasten diren auzoetan bizi direnak baino (54,60 puntu)
- immigrazioarekiko nabarmen toleranteagoak dira eremu pribatuan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (60,76 puntu), haiekin inolako hartu-emanik ez dutela esaten dutenak (55,70 puntu) edo noiz edo noiz hartu-emanak dituztenak (57,71 puntu) baino.
- immigrazioarekiko nabarmen toleranteagoak dira eremu publikoan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (58,47 puntu) edo noiz edo noiz hartu-emanak dituztenak (58,37 puntu), haiekin inolako hartu-emanik ez dutela esaten dutenak baino (53,88 puntu)
- immigrazioarekiko nabarmen toleranteagoak dira aisialdiko eremuetan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (63,80 puntu), haiekin inolako hartu-emanik ez dutela esaten dutenak baino (53,33 puntu)

7. taula. Immigrazioarekiko tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak

Tolerantzia-atalase txikiena duten pertsonen profila	Aldagaia	Esangura	Tolerantzia-atalase handiena duten pertsonen profila
Emakumezkoak	Sexua	0,020	Gizonezkoak
64 urte eta gehiago	Adina	0,000	18 - 44 urte
Lehen mailako ikasketak, ikasketarik ez	Ikasketak	0,000	Goi- eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak
5.000 biztanlerarte	Habitat	0,040	Hiriburuak
Katolikoak, praktikanteak edo ez, beste erlijioa	Erljioa	0,000	Agnostikoak, ateoak edo erlijioarekiko axolarik ez
Erdaldunak	Hizkuntza	0,000	Euskaldunak
Batez ere espainiar sentitzen direnak	Identitate-sentimendua	0,000	Batez ere euskaldun sentitzen direnak
Eskuina	Ideologia	0,000	Ezkerra eta zentro-ezkerra
Hilean 1.000 €, gehienez	Diru-sarrerak	0,000	Hilean 1.800 eta 2.500 € artean
Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez daudenak	Egoera ekonomikoa	0,000	Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura daudenak
Etxeko lanetan aritzen direnak	Lanbidea	0,000	Ikasleak
Estatus baxua eta erdi-mailako baxua	Estatusa	0,000	Estatus altua eta erdi-mailako altua
Eragin handia	Krisiaren eragina	0,000	Eragin baxua eta ertaina
Ezkorrak	Baikortasuna	0,000	Baikorrak eta ezaxolak
Aurreikuspen txarrak dituztenak	Etorkizuna	0,000	Aurreikuspen onak eta normalak dituztenak
Etorkinak eta bertakoak nahasita	Auzoa	0,001	Bertakoak gehiengo
Elkarreraginik ez edo zenbaitetan	Elkarreragina eremu pribatuan	0,000	Hartu-eman handia
Inolako elkarreraginik ez	Elkarreragina eremu publikoan	0,000	Hartu-eman handia edo nolabaitekoa
Inolako elkarreraginik ez	Elkarreragina asian	0,000	Hartu-eman handia

Iturria: egileek egina

Datu horiek eta aurreko urteetan jasotakoak alderatuta, ia ez dugu aipatzeko moduko alderik nabaritu. 2013. urte honetan, sexuaren aldagaia erabakigarria izan da berriro ere, 2009. urtean izan zen bezalaxe, baina ikus dezakegun moduan, gizonen eta emakumeen arteko aldea ñabar-

duretan dago. Nolanahi ere, aurten ez dira erabakigarriak izan ez lurraldearen aldagaia eta ez nazionalismo subjektiboaren maila ere.

Aldagai aske gehienak bereizleak dira EAEko biztanleen jarreretik, nahiz eta batzuk besteak baino gehiago izan. Gainera, jakin badakigu aldagai soziodemografiko, ideologiko-identitario, sozioekonomiko eta nortasunarekin eta kulturartekotasunarekin loturiko batzuek oso harreman estua dutela elkarren artean, elkar indartzen dutela, elkarren ondoan ezartzen direla edo elkar indargabetzen dutela.

Elkarreragin horiek argitzeko eta gerta daitezkeen eragin konbinatuak indargabetzeko, aldagai anitzeko metodologia bat aplikatzen ari gara azken urteetan, AID deritzona. Segmentazio-zuhaitz bat ematen digu metodologia horrek, euskal herritarren tipologia zenbaitek osatua, eta tipologia horiek gutxi gorabehera bat datoz atzerriko immigrazioarekiko talde irekiagoak eta toleranteagoak edo itxiagoak eta uzkurragoak osatzen dituzten pertsonekin.

Azkenik, aldagai aske guztiekin lan eginez (21 guztira) beste segmentazio bat landu dugu. Aurreko urteetan bezala, aldagai anitzeko metodologia horren aplikazioaren helburua ez da zehatz, zorrotz eta eztabaiaezina izatea; hau da, asmoa ez da tolerantzia handia edo txikia erakusten duten jarrerekin lotutako aldagaiei buruzko debatea ixtea. Aitzitik, errealitatea ikusteko eta ulertzeko modu xume bat baino ez dugu eskaini nahi. Badakigu proposatzen dugun tipologia horixe besterik ez dela: tipologia bat, sartu ditugun aldagaiek, bildu ditugun bezala bilduta, sortutako tipologia.

2014. urte honetan, lehen segmentazio-aldagaia, berriro ere, erlijioa da, 2010ean izan zen bezalaxe, eta bigarren maila batera bultzatu du ikasketak aldagaia (heziketa-maila), nahiz eta hori izaten den euskal gizartean erabakigarritasun handieneko aldagaia gehienetan. Hau da, 2014an tolerantzia-indizean izandako alderik handienak ez dira ikasketak-mailaren arabera gertatu, baizik eta erlijio-sinesmenaren arabera: euskal gizarteak atzerriko immigrazioaren aurrean dituen iritzi, pertzepzio, jarrera eta sinesmenak ongien aurreikusteko aukera ematen duen aldagaia da hau.

Horrez gain, 2014ko Barometro honetan eta gure segmentazioan, oso adierazgarriak dira, oraindik ere, kutsu psikosozialagoa duten alderdiak (etorkizunari begira dituen aurreikuspenak, baikortasun-maila...) eta elkarreragin sozialari buruzkoak jasotzen dituzten aldagaiak, eta protagonismo txikiagoa dute zaugarritasunarekin loturiko izaera ekonomikoko aldagaiek (krisiaren ondorioa alde batera uzten badugu), ez direlako hain bereizleak eta segmentazio-zuhaitzetik desageritzen direlako aurreikuspenak egiteko aldagai nagusi modura.

Zehazki, hauek dira gure segmentazio-zuhaitzaren aldagai iragarleak eta zuhaitz hori bere maila guztietan osatzeko aukera eman dutenak, garrantziaren arabera sailkatuta:

- 1. mailan: erlijio-sinesmena (es. 0,000);
- 2. mailan: ideologia (es. 0,000) eta heziketa-maila (es. 0,000);
- 3. mailan: etorkizunari begirako aurreikuspenak (es. 0,000), bizi den auzoan dagoen jatorri-aniztasuna (es. 0,000) eta krisiaren eragina (es. 0,000);
- 4. mailan: habitataren tamaina (es. 0,000), eremu pribatuan atzerritik etorritako pertsonekin harremanak izatea (es. 0,001) eta baikortasun-maila (es. 0,033);
- 5. mailan: aisialdiko eremuetan atzerritik etorritako pertsonekin harremanak izatea (es. 0,012).

Aldagai horiekin 11 tipo edo segmentu atera ditugu guztira. Segmentazio-zuhaitzaren 54. grafikoan, euskal gizarte osoaren batez bestekotik gorako puntuazioa lortu dutenak eta hortik beherako puntuazioa dutenak azpimarratu ditugu, berdez aurrenekoak eta gorritz bigarrenak. Hauek dira 11 segmentuak, tolerantziarik handiena erakusten dutenetatik tolerantziarik txikiena erakusten dutenetara ordenatuta:

1. Ateoak, agnostikoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak eta erdi-mailako nahiz goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak: 69,908 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 9,9 dira.
2. Ateoak, agnostikoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak, bigarren nahiz lehen mailako ikasketak dituztenak edo ikasketarik gabeak, eta etorkizunari begira aurreikuspen onak/arruntak dituztenak: 64,461 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 8,9 dira.
3. Pertsona katolikoak, praktikanteak izan edo ez, edo beste erlijio batzuetako sinestunak, ezkerreko edo zentro-ezkerreko ideologia dutenak, pertsona autoktonoak gailentzen diren auzoetan edo etorkinen presentzia handikoetan bizi direnak, eta eremu pribatuan atzerriko pertsonekin harreman handia dutenak edo noiz edo noiz harremanen bat dutenak: 61,398 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 10,4 dira.
4. Pertsona katolikoak, praktikanteak izan edo ez, edo beste erlijio batzuetako sinestunak, zentroko edo eskuineko ideologia dutenak, krisiaren eragin txikia edo ertaina jasan dutenak, eta 5.000 eta 150.000 biztanle arteko udalerrietan bizi direnak: 57,076 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 13,1 dira.
5. Ateoak, agnostikoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak, bigarren nahiz lehen mailako ikasketak dituztenak edo ikasketarik gabeak, eta etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituztenak: 56,689 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 11,0 dira.
6. Pertsona katolikoak, praktikanteak izan edo ez, edo beste erlijio batzuetako sinestunak, ezkerreko edo zentro-ezkerreko ideologia dutenak, pertsona autoktonoak gailentzen diren auzoetan edo etorkinen presentzia handikoetan bizi direnak, eta eremu pribatuan atzerriko pertsonekin inolako harremanik ez dutenak: 55,403 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 10,6 dira.
7. Pertsona katolikoak, praktikanteak izan edo ez, edo beste erlijio batzuetako sinestunak, zentroko edo eskuineko ideologia dutenak, krisiaren eragin txikia edo ertaina jasan dutenak, eta 5.000 biztanletik beherako udalerrietan eta hiriburuetan bizi direnak, eta aisialdian atzerriko pertsonekin harreman handia dutenak edo noiz edo noiz harremanen bat dutenak: 53,307 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 5,8 dira.
8. Pertsona katolikoak, praktikanteak izan edo ez, edo beste erlijio batzuetako sinestunak, ezkerreko edo zentro-ezkerreko ideologia dutenak, eta pertsona autoktonoak eta atzerriko etorkinak nolabait ere nahastuta dauden auzoetan bizi direnak: 51,413 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 7,9 dira.
9. Pertsona katolikoak, praktikanteak izan edo ez, edo beste erlijio batzuetako sinestunak, zentroko edo eskuineko ideologia dutenak, krisiaren eragin handia jasan dutenak, eta

beren buruak baikortzat dutenak: 50,789 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 5,7 dira.

10. Pertsona katolikoak, praktikanteak izan edo ez, edo beste erlijio batzuetako sinestunak, zentroko edo eskuineko ideologia dutenak, krisiaren eragin txikia edo ertaina jasan dutenak, eta 5.000 biztanletik beherako udalerrietan eta hiriburuetan bizi direnak, eta aisialdian atzerriko pertsonekin inolako harremanik ez dutenak: 47,007 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 6,5 dira.
11. Pertsona katolikoak, praktikanteak izan edo ez, edo beste erlijio batzuetako sinestunak, zentroko edo eskuineko ideologia dutenak, krisiaren eragin handia jasan dutenak, eta beren buruak ezkortzat edo tartekotzat dutenak (inoiz ez baikortzat): 46,206 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 10,2 dira.

Urtero esaten dugun moduan, euskal biztanleriaren segmentazio horrek ez du erabat zehatza izan nahi. Joerak adierazi nahi ditu. Kontua ez da zehatz-mehatz adieraztea zenbat taldek osatzen duten EAEn atzerriko immigrazioarekiko jarreraren panorama; aitzitik, helburua da aldagai garrantzitsuak identifikatzea atzerriko immigrazioarekiko portaera, jarrera, iritzi eta balio tolerantetarako eta ez hain tolerantetarako aurreikusteko, eta zenbait zertzelada adierazkor ematea gizarte-talde irekienak eta tolerantetarako direnen profilak zehazteko, bai eta jarrera itxi eta intolerantetarako adierazten dituztenenak ere.

Ereduaren aurreikuspen-gaitasuna, gutxiago edo gehiago, aurreko urteetako antzekoa da. Oro har, bariantza osoaren % 27,53 azaltzea lortu dugu, 2013an azaltzea lortu genuenaren oso antzekoa (% 27,65), eta azken urteetako ildo berean (2012an bariantza osoaren % 23,77 eta 2011n %28,31 azaldu genuen). Horrenbestez, 2010etik hona bariantza osoaren % 25-30 inguru azaltzea lortu dugu urtero, eta hor finkatu da indizearen ahalmena (aurreko urteetan, jarrerak eta iritzia aurreikusteko ereduaren ahalmena % 10 eta 15 artekoa izaten zen beti), ohiko aldagai soziodemografiko, ekonomiko eta ideologiko-identitarioez gain aldagai psikosozialagoak eta harremanekin lotuagoak gehitu ondoren.

Gogoeta hori lanean jarraitzeko akuilua da: jarraitu egin behar dugu beste aldagai aske batzuk bilatzen eta hautematen, immigranteen etorrerarekin zerikusia duten gaietan euskal gizartearen erantzunak zergatik diren era batekoak edo bestekoak zehaztasun handiagoz esplikatzen ahal izateko. Badirudi norbanakoen arteko aldeak egon daitezkeela bariantza osoaren edo era bateko edo besteko iritzi eta jarrera asko eta askoren atzean. Ikertzen jarraituko dugu datozen urteetan.

4. Euskal biztanleriaren talde handiak

Analisi tipologikoa oso grafikoa da, eta lagungarria euskaldunen artean herritar-mota asko dau dela ikusteko eta bakoitzaren ezaugarriak zein diren jakiteko, atzerriko immigrazioaren aurrean duten tolerantzia-maila handiago edo txikiagoaren berri emango baitigu. Horrez gain, oso erabilgarria zaigu talde horiek 0 puntutik 100era bitarteko continuumean kokatzeko eta horien artean dauden desberdintasunak begiesteko, horien tolerantzia-mailari nahiz talde horiek deskribatzen dituzten aldagaiei dagokienez; hots soziodemografikoak, sozioekonomikoak, ideologiko-identitarioak, psikosozialak eta harremanekin loturikoak, eta abar.

Dena den, nahiko informazio lausoa ematen digute talde horiek, gure indizea osatzen duten arlo edo dimentsioetan dituzten desberdintasunei buruz. Hau da, badakigu, oro har, indizean talde batzuek besteek baino puntuazio handiagoa lortzen dutela, baina ez dakigu gure indizea osatzen duten hamar arloetan desberdintzen diren, edota hamar horietako batean edo bestean soilik.

Hori dela eta, aldagai anitzeko beste analisi bat aplikatu dugu, sailkapen-azterketa bat, informazio gehiago lortzeko asmoz, eta immigrazioarekiko jarrera, balio eta sinesmenekin loturiko aldagaien artean euskal biztanleak gehien bereizten dituzten aldagai horietan sakontzeko asmoz. Horrez gain, analisi horren bidez biztanleen sailkapenak egin nahi izan ditugu, euskal biztanleek immigrazioari buruz dituzten jarrera desberdinak agerian uzteko eta aurreko eta hurrengo urteei begira erraz alderatzeko eta kontrastatzeko moduko informazioa eskuratu ahal izateko.

Aurreko urteetan erabili dugun metodologiari jarraituz, eta datuak konparatze aldera, aurreko barometroetan finkatutako hiru talde handietan sailkatu ditugu euskal biztanleak: atzerriko immigrazioaren aurrean toleranteak, anbibalenteak eta uzkurak. Hala, sortzen ari diren joerak nabarmentzeko aukera izango dugu.

Definitu ditugun hamar arloetan, immigrazioarekiko tolerantzia-indizea kalkulatzeko oinarri diren hamar arlo horietan, herritar bakoitzak lortutako puntuazioak dira euskal biztanleria hiru talde horietan sailkatzeko irizpidetzat erabili diren aldagaiak. Aurreko barometroetan erabilitako aldagai berak, alegia. Hau da, arlo bakoitzean lortutako puntuazioaren arabera (0tik 100era) sailkatu ditugu euskal biztanleak. Arloak honako hauek dira: etorkinen biztanleriaren BOLUMENAREN pertzepzioa; atzerriko immigrazioa ARAZOTZAT hartzea; euskal EKONOMIAN duen eraginari buruzko iritzia; EUSKAL GIZARTEAN duen eraginari buruzko iritzia; BIZIKIDETZA-EREDUEI buruzko pertzepzioa; ESTEREOTIPOEK irautea; ESKUBIDEAK eta zerbitzuak eskura izateari buruzko jarrera; HARREMANETARAKO ESPAZIOEI buruzko iritzia; IMMIGRAZIO-POLITIKARI

buruzko ikuspegia; eta atzerriko immigrazioak gure gizartean dituen ERABATEKO ERAGINEI buruzko pertzepzioa.

Tarteko aldagaiak direnez (zenbakizkoak), “k means” deritzon aldagai anitzeko sailkapen-analisia aplikatzea erabaki dugu, eta laginean bildutako multzo osoa hiru taldetan sailkatu dugu: atzerriko immigrazioarekiko pertsona toleranteak, anibalenteak eta uzkurak. Teknika horrekin, irizpide erlatiboen bidez sailkatuko da euskal gizartea hiru talde horietan. Hau da, datu-basea osatzen duten pertsona guztien artean toleranteen osatuko dute toleranteen multzoa, hamar arloetan puntuaziorik handienak eskuratzen dituztenek; datu-baseko pertsona guztien artean tolerantzia gutxien ageri dutenek osatuko dute uzkurren taldea, puntuazio txikienak dituztenek, alegia; eta bi talde horietatik gehien urruntzen direnek osatuko dute anibalenteena, erdibideko puntuazioak eskuratzen dituztenek, alegia.

K-means sailkapen-analisiaren estatistika-prozesuetan talde barneko homogeneotasuna eta taldeen arteko heterogeneotasuna aztertuz gero, ondorioztatu dugu banaketa onargarria dela eta, egiaz, hiru talde berezitu daudela. Talde horien artean, nola ez, herritar toleranteen eta herritar uzkurren arteko aldeak azpimarratu daitezke batez ere. Azken urteetan nahiko antzekoak izan dira pertsona anibalenteen eta uzkurren eta anibalenteen eta toleranteen arteko tartekak, baina 2014an, anibalenteen eta uzkurren artekoa txikiagoa izan da anibalente eta toleranteen artekoa baino. Gainera, 2014. urtean talde barneko heterogeneotasun gehixeago ikusi dugu pertsona uzkurren konglomeratuan. Edonola ere, eta nahiz eta anibalenteen taldearen eta beste bien arteko tartekak ez oso handiak izan, hiru taldeen artekoak (taldeen arteko heterogeneotasuna) behar bezain handiak dira, taldeen barnean sortzen diren batez besteko aldeak baino handiagoak (talde barneko homogeneotasuna), eta, horrenbestez, ontzat eman dezakegu sailkapena.

Galdeketako itemei emandako erantzunen arabera eta hamar arloetan eskuratutako puntuen arabera, talde bateko edo besteko kideztat jotzen da pertsona bakoitza, eta behin hori eginda, taldeek zer jarrera eta jokabide duten azter dezakegu. Nolanahi ere, hiru multzoen arteko desberdintasunak nabarmenak dira, eta horixe adierazten dute aztertutako eremu bakoitzean talde bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioek (azken konglomeratuen zentroetan lortutako puntuazioek). Hor ikus dezakegu aztertutako arlo bakoitzean toleranteen taldeak lortutako puntuazioa altuagoa dela anibalenteen taldeak lortutakoa baino eta, era berean, anibalenteen taldeak puntuazio handiagoa lortzen duela uzkurren taldeak baino. Aldagai guztiek F balio esanguratsuak dituztela dio bariantza-analisiak, eta horrek adierazten du finkatutako taldeen artean alde esanguratsuak daudela, aztertutako aldagai guztietan.

Pertsona toleranteen taldeak, aurreko urteetan bezala, balore handiagoak erakusten ditu arlo guztietan: ez dute ikuspegi hain distortsionatua atzerriko immigrazioaren egungo bolumenarekiko, ez dute uste immigrazioa arazo bat denik, immigrazioak ekonomian, gizarte osoarengan eta euskal gizarte eta kulturarengan alderdi eta efektu onuragarriak dituela onartzen dute, irekiagoak dira administrazioak egin beharko lukeen immigrazio-politikari buruzko iritzietan, ez dute bizikidetzareduak erabat asimilaziozkoak izan behar dutenik pentsatzen, estereotipo gutxiago dituzte, jarrera ireki eta unibertsalagoa ageri dute etorkinek eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko izan beharko luketen aukerari dagokionez eta horien harreman-eremuak irekiago daude pertsonen arteko truke eta elkarreragineran.

Kontrako muturrean, uzkur jotzen duten pertsonen taldeak puntuazio oso baxuak ditu eremu guztietan, immigrazio atzeritarra arazotzat hartzeko eremuan izan ezik. Argi geratu da, beraz, uzkurren taldeak ere ez duela immigrazioa arazotzat hartzen.

Era berean, tarteko puntuazioa lortu du euskal gizartearekiko ondorio orokorren esparruan, hein batean, atzerriko immigrazioaren alde onak aitortzen badituzte ere.


Gainerako balioetan, aldiz, atzerriko immigrazioarekiko jarrera nabarmen intoleranteak adierazten ditu talde horrek, eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeari dagokionez puntuazioak hobera egin arren. Pertsona uzkurren taldearen iritziz horrek agerian uzten du gure gizartearen zati batek jarrera itxia duela etorkinekiko, asko edo gutxi izan eta horiek arazotzat hartu ala ez; izan ere, jarrera horiek etorkinen etorrera bera baino lehenagokoak dira askotan.

8. taula. Azken konglomeratuen zentroak 2014

	Konglomeratua		
	Toleranteak	Anbibalenteak	Uzkurak
Bolumenaren pertzepzioa	6,17	4,25	2,87
Arazoaren pertzepzioa	9,80	9,04	8,36
Ekonomian dituen eraginak	6,90	4,39	2,64
Euskal gizartearen dituen eraginak	8,43	7,71	5,21
Immigrazio-politika	6,38	4,82	3,93
Erabateko eraginak	7,02	5,16	2,97
Bizikidetzaren ereduak	4,51	3,19	2,59
Estereotipoak	6,14	3,70	2,81
Eskubideak eskura izatea	7,90	5,97	4,73
Harreman-espazioak	7,47	5,35	3,83

Iturria: egileek egina

55. grafikoa. Taldeen puntuazioa hamar arloetan (azken zentroak)




Iturria: egileek egina

Azkenik, anbibalenteen taldeak tarteko puntuazioak ditu eremu guztietan. Batzuetan gertuago dago uzkurren taldetik eta, beste batzuetan, aldiz, toleranteen taldetik, baina oro har, talde horren puntuazioak gertuago daude pertsona uzkurren taldetik: euskal gizartearekiko ondorioak (kulturalak) eta ondorio orokorrak jasotzen dituzten eremuetan bakarrik gerturatzen dira gehiago toleranteen taldera.

Oro har, hiru taldeen arteko jokabide berezitua aurreko urteetan izandakoaren oso antzekoa da, horien artean alderaketak egiten hasiz gero. Baina talde bakoitzak izandako jokabidea eta lortutako puntuazioak aurreko barometroetakoekin alderatuz gero, nabarmentzeko moduko hainbat aldaketa izan direla ohartuko gara. Batzuek eta besteek arlo bakoitzean lortutako puntuazioei erreparatu besterik ez dago:

- Pertsona toleranteen taldeak aurreko urtean baino jarrera hobea azaldu du bizikidetzareduekin, immigrazioarekiko estereotipo negatiboekin eta euskal gizartearekiko ondorioekin (kulturalak) lotutako arlo guztietan, eta bere horretan mantendu da immigrazioa arazotzat hartzen duten espazioekin eta harremanetarako espazioekin lotutako arloetan. Bestalde, pixka bat okerrera egin du gainerako arlo guztietan: bolumenarekiko pentsamenduak, euskal ekonomiarekiko ondorioak, immigrazio-politika, eraginak guztira, eta eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera.

56. grafikoa. Toleranteen taldea: bilakaera hamar arloetan




Iturria: egileek egina

- Pertsona anbibalenteen taldeak 2013. urtean baino posizio hobea lortu du euskal gizartearengan eragindako ondorioen (kulturalak), immigrazio-politikaren, eta eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukeraren inguruko jarrerarekin lotutako esparruetan. Gainerako eremuetan pixka bat behera egin dute horien puntuazioek, horren tolerantetia ez diren posizioetara jaitsiz. Horien artean, bizikidetzareduetako eta estereotipo negatiboetako jarrerak jasotzen dituzten eremuak gailentzen dira, horietan lortu baitute puntuaziorik okerrera.
- Pertsona uzkurren taldeak jarrera hobea agertu du aztertutako arlo gehienetan: euskal ekonomiarekiko ondorioak, immigrazio-politika, eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera, harreman-espazioak, bizikidetzareduak eta immigrazioarekiko estereotipoak. Antzeko


jarrera mantendu du euskal gizartearekiko ondorioei (kulturalak) eta ondorio globalei dagokienez, eta pixka bat behera egin du immigrazioa arazotzat hartzen duen eremuari eta atzerritarren bolumenari dagokienez.

57. grafikoa. Anbibalenteen taldea: bilakaera hamar arloetan



Iturria: egileek egina

58. grafikoa. Uzkurren taldea: bilakaera hamar arloetan




Iturria: egileek egina

2014ko barometroan immigrazioarekiko tolerantzia-indizean talde bakoitzak batez beste lortu duen puntuazioa kalkulatu eta ikusi besterik ez dago aurreko urteekin alderatuta 2014an izan diren aldaketa horietaz konturatzeko: pertsona tolerantzen taldeak 70,72 puntu eskuratu ditu, 2013. urtearen antzera; pertsona anbibalenteen taldeak 53,60 puntu, aurreko urtean baino zertxobait gutxiago; eta pertsona uzkurren taldeak 39,93 puntu, 2013ko puntuazioaren oso antzekoa. Estatistika aldetik, hiru puntuazioek alde esanguratsuak islatzen dituzte elkarren artean.

Horrek esan nahi du alde handiak daudela talde bat edo bestea osatzen duten pertsonen pertzepzio, iritzi, jarrera eta sinesmenetan.

59. grafikoa. Taldeek tolerantzia-indizean lortutako puntuak




Iturria: egileek egina

Azken urteetan osatutako taldeekiko aldaketa batzuk daude (60. grafikoa):

- Toleranteen taldeak aurreko urtearen antzeko puntuazioa lortu du, 2011n (handiena) eta 2009an (baxuena) markatutako mugen artean: talde honek 2 puntuko gorabeherak izan ditu aztertutako urteetan.
- Anbibalenteen taldeak 2013an lortutako puntuazioa baino zertxobait baxuagoa du, baina talde horren goiko bandaren antzekoa halere: haren tolerantzia 2013an baino zertxobait baxuagoa da.
- Pertsona uzkurren taldeak 2013ko puntuazioa baino pixka bat handiagoa lortu du, eta aurreko urteetako maila mantendu du (2012an salbu).

60. grafikoa. Talde nagusiek tolerantzia-indizean lortutako puntuen bilakaera




Iturria: egileek egina

Taldeen tamainari dagokionez, 2014an galdutako eremu pixka bat berreskuratu dugula ikus dezakegu: pertsona tolerantteen taldeak euskal gizartearen 10 pertsona bakoitzeko 4 hartzen ditu barne; anbibalenteen taldeak 10etik beste 4, eta uzkurren taldeak, aldiz, ia-ia gainerako beste 2ak.


Banaketa horrek azaltzen duen moduan, eta euskal gizarteak jatorri atzerritarreko biztanleekiko duen tolerantzia orokorra handitu arren (indize globalean 1,5 puntu baino gehiago egin du hobera), anbibalenteen taldeak ia 1,5 puntu galdu ditu eta tolerantzenak, berriz, hamarren bat, eta galera horiek ez dira ia konpentsatu pertsona uzkurren taldearen puntuazioa 1,8 handitzean: 2013. urtearekin alderatuta, 2014an pertsona tolerante eta anbibalenteen taldeek kideak irabazi dituzte eta uzkurren taldeak, berriz, galdu.

61. grafikoa. Taldeen 2014ko tamaina



Iturria: egileek egina

62. grafikoa. Talde nagusien tamainaren 2014ko bilakaera



Iturria: egileek egina

Aurreko urteekin alderatzen badugu talde horiek zer-nola osatuta dauden, zer tamaina duten eta tolerantzia-escalan non dauden, ondorio hauek atera ditzakegu:

- Pertsona tolerantteen taldea 70 puntutik hurbil mantentzen da urteak joan urteak etorri, baina talde horren bolumena askoz aldakorragoa eta ausazkoagoa da, azken urteetan % 35-40 inguruan egonkortu dela badirudi ere. 2014an, talde anbibalentera igaro ziren pertsonak berreskuratu dira (3 puntu baino gehiago), punturik galdu gabe.
- Pertsona anbibalenteen taldea erdibidean ibili da urte hauetan guztietan, 49-56 puntu artean, eta 2009an oso talde jendetsua izan bazen ere, euskal gizartearen % 40 inguruan egonkortu da. 2014an 5 puntu baino gehiago irabazi ditu, baina goitik 3 puntu galdu ditu (beren jarrera hobetu duten eta tolerantteen taldera igaro diren pertsonak) eta 8 irabazi ditu azpitik, eta hala, talde honek 2013an uzkurren taldean zeuden pertsona asko berreskuratu ditu. Eta hori guztia, ikusi dugun moduan, oso tolerantzia gutxi galduta (1,5 puntu indize partikularrean).

- Pertsona uzkurren taldea 35 eta 40 puntu artean ibili da aztertutako urte gehienetan (2012an salbu), eta euskal biztanleriaren % 20ra gerturatu da. Kideak galtzeaz gain, talde honek bere diskurtsoak, jarrerak, sinesmenak, iritziak, pertzepzioak eta jarrerak zertxobait arindu ditu immigrazio atzerritarrari dagokionez.

2012an toleranteen eta uzkurren artean ireki zen tarte murrizten jarraitzen dugu 2014an: orduan 38 puntukoa zen tarte hori eta 2014an 30 puntukoa izan da, gutxi gorabehera.

Indizeko 65 itemak multzokatu ditugun 10 eremuetan lortutako puntuazio partzialen arabera zehaztu dugu pertsona bakoitza zein taldetakoa den, eta pertsonak talde batean eta bestean zuzen banatu ditugula egiaztatzeko, analisi bereizle bat egin dugu, aurreko urteetan bezala.

Aldagai anitzeko analisi-mota horrek, sailkapena egiteaz gain, gizabanako bakoitza dagokion taldean zuzen banatu dugun ala ez jakiteko aukera ematen digu. Kasu honetan, gizabanako bakoitzak aztertutako hamar eremuetako bakoitzean lortutako puntuazioak dira aldagai askeak, eta talde bateko edo besteko (tolerante, anbibalente, uzkur) kide izatea da mendeko aldagaia. Analisi horrek gure usteak berresteko eta gizabanakoak taldeka zuzen banatu ditugula egiaztatzeko aukera ematen digu, baina azter ditzagun aurrez funtzio bereizleak, gizabanako bakoitza talde batean edo bestean modu egokian banatzeko aukera ematen digutenak.


Bi funtzio bereizleen azterketak argi uzten du biak ere bereizleak direla, baina lehenak (horrek azaltzen du bariantzaren % 95,2) bigarrenak baino askoz gehiago bereizten du (bariantza osoaren % 4,8 soilik azaltzen du bigarrenak). I. Funtziorako .909 eta II. Funtziorako .443 korrelazio kanonikoek eta Wilkins eta Chi lanba karratuko kontraste erabat esanguratsuek (es. 0.000) bi aldagaiak esanguratsuak direla adierazten dute, nahiz eta bigarrenak korrelazio ertain-baxua izan eta bariantza azaltzeko laguntza handirik ez eman.

Funtzio bakoitza osatzen duten aldagaiei dagokienez, egiturazko matrizearen analisiak honako hau adierazten digu:

- Lehen funtzio bereizleak ia eremu guztiak biltzen ditu, baina lehen funtzio horretan, honako hauek dira, batez ere, eremurik bereizleenak: atzerriko immigrazioak dituen eragin ekonomikoei buruzko pertzepzioa eta atzerriko immigrazioak euskal gizartearengan dituen erabateko eraginak. Honako hauek ere funtzio horretan esku hartzen dute: harremanetarako espazioen pertzepzioa, immigrazioaren bolumenari buruzko pertzepzioa, eskubideak eskura izateari buruzko pertzepzioa, immigrazio-politikari buruzko iritzia, eta bizikidetz espazioei buruzko pertzepzioa.
- Bigarren funtzioak, funtsean, honako eremu hauek hartzen ditu barne: euskal gizartearekiko ondorio kulturalen pertzepzioa eta estereotipoen pertzepzioa.

Lehen funtzioak toleranteen taldea bereizten du pertsona uzkurren taldearekiko, eta bigarren funtzioak anbibalenteen taldea bereizten du, batik bat, pertsona uzkurren (batez ere) eta toleranteen taldearekiko. Edonola ere, badirudi bi funtzioek ondo asko diskriminatzen dituztela hiru taldeak; izan ere, azterketa diskriminatzaileak pertsonen % 94,9 sailkatzen du modu egokian (taldekatutako kasu originalen % 94,9 eta balidazio gurutzatu bidez taldekatutako kasu balidatuen % 94,1 sailkatuta).

63. grafikoa. EAEko biztanle-taldeen 2014ko lurralde-mapa



Iturria: egileek egina

Amaitzeko, aztertutako hiru talde horietakoa izatearekin gehien lotuta dauden aldagai soziodemografikoak, sozioekonomikoak, ideologiko-identitarioak, harremani loturikoak eta psikosozialak aztertzea erabaki genuen. Hau da, zein ezaugarri lotzen diren modu esanguratsuan pertsona tolerante, anbibalente eta uzkuurren taldeekin. Horretarako, kontingentzia-taulak eta korrespondentzia sinpleen AFC analisi faktoriala erabili ditugu (64. grafikoa), oso irtenbide grafiko argigarria eta intuitiboa eskaintzen dutelako, eta oso koherentea delako aurreko atalean deskribatutako tipologiaren profilekin.

Hala, Chisquare delakoak estatistikoki balio esanguratsua duela ($\text{ChiSquare} = 752,205$, es. 0,000), eta ezaugarrien eta pertsona tolerante, anbibalente eta uzkuurren taldeen arteko loturak adierazten dituela egiaztatu ostean, honako lotura hauek antzeman ditugu:

- Pertsona toleranteen taldea: gizonetzkoak dira batik bat, bigarren mailako eta erdi- eta goimailako unibertsitate-ikasketak dituzte, gazteak dira (18 eta 44 urte bitartekoak), euskaraz hitz egiten dute, hirietan bizi dira, agnostikoak dira, ateoak edo erlijioarekiko axolarik gabeak, ezkerrekoak eta erdi-ezkerrekoak dira, euskaldunak sentitzen dira, beren ekonomia-egoerarekin gustura daude, beren familia-unitateak 1.800 eurotik gorako sarrerak dituzten hilean, lanean daude edo ikasleak dira, estatus sozioekonomiko erdi-mailako altukoak edo altukoak dira, krisialdiaren eragin ertaina edo baxua jasan dute, baikorrak dira, etorkizuna-

- Pertsona uzkurren taldea (hainbat ezaugarri partekatzen ditu pertsona anbigalenteen taldearekin): emakumezkoak dira batik bat, 65 urte edo hortik gorakoak, ez dute ikasketarik edo lehen mailako ikasketak dituzte, 20 eta 150.000 biztanle arteko udalerrietan bizi dira, katolikoak (praktikanteak eta ez praktikanteak) eta beste erlijio batzuetakoak dira, ez dute euskaraz hitz egiten, zentroko edo eskuineko ideologia dute, beren burua soilik espainiarizatzen dute edo euskaldun bezain espainiarizatzen dute, langabezian daude edo etxeoandreak dira, ez daude gustura beren egoera ekonomikoarekin, familian 1.000 €-tik beherako diru-sarrera garbiak dituzte hilean, estatus sozioekonomiko baxua eta erdi-mailako baxua dute, krisialdiak asko eragin die, ezkorrak dira, etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzte, etorkinak eta tokikoak nahasten diren auzoetan bizi dira, bizitza pribatuan harreman gutxi dute atzeritarrekin eta ez dute inolako elkarreraginik edo harremanik etorkinekin, ezta esfera publikoan edo aisialdian ere.

AFC honetan, soilik hiru kategoriako aldagai batekin lan egiten dugunez (pertsona-taldeak), bi dimentsio baino ez ditugu atera analisi horretatik, eta bariantzaren % 100 azaltzen dute bi dimentsio horiek. Egia esan, lehen dimentsioak azaltzen du ia bariantza osoa (% 88,4), eta bigarrenak azalpen-balio oso txikia du (gainerako % 11,6a).

5. Ondorioak

2014ko Barometro honen inguruan aipatu ditugun datu guztien artean, honako ondorio hauek azpimarratu beharko genituzkeela uste dugu:

1. Behin baino gehiagotan hitz egin dugu krisialdi ekonomikoaz, geldialdi ekonomiko eta sozialaz, eta ongizate espainiarraren eta euskaldunaren estatuko krisialdiaz, baina ez dugu aldaketa handiegirik ikusi euskal biztanleriak atzerriko immigrazioarekiko mantentzen dituen jarrerei, iritziei, sinismenei, usteei eta balioei dagokienez. Gure erkidegoaren jarrerek ilun-argiak, kontraesanak eta anbibalentziak izaten jarraitzen dute.
2. 2014ko Barometroko datuetan behar bezala islatzen da, 2012. urtean izandako gainbephera garbiaren ostean, euskal gizartearen erantzunetan zertxobait berreskuratu dela atzerriko etorkinekiko tolerantzia-maila. 2014an hobera egin dute 2013ko datuek, eta gure indizea 56,96 puntukoa izan da.
3. Gure tolerantzia-indizea hertsiki loturik dago etorkizunari begirako mesfidantza eta zalan-tza-giroarekin. Hori dela eta, nekez berreskuratuko dugu immigrazioarekiko tolerantzia-maila gaur egungo krisi ekonomikoa gainditu eta euskal gizartearen ongizatearekin loturiko jarraibideak argi eta garbi ezarri arte; izan ere, finantza-krisiaren ondorengo aldian sumatzen da bestelako harreman batzuk izango direla indarrean gizarte, politika, ekonomia eta lanaren arloan, eta, hortaz, behar-beharrezkoa da jarraibide horiek finkatzea. Azken urteetako datuek testuinguru sozioekonomikoaren hobekuntza islatzen dute, eta horiek eragina izan dute gure barometroan.
4. Gure datuen arabera, atzerriko immigrazioaren fenomeno normalizatzen ari da: lanarekin, ekonomiarekin eta etikarekin (ustelkeria politikoa) loturiko kezka larrien testuinguru honetan, euskal herritarrek ez dute, inola ere, arazotzat hartzen immigrazioaren gaia.
5. Dena den, euskal herritarrak kezkatuta eta mesfidati agertzen dira atzerriko etorkinekiko bizikidetza-ereduekin eta estereotipo negatiboekin loturiko alderdiei dagokienez, jarrera orokorrekin hobera egin arren. Une honetan ezinbestekoa da gero eta handiagoa den gizarte-aniztasuna kudeatzea (integrazio, bizikidetza eta gizarte-kohesiorako prozesuak); beraz, politikaren, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren arloetako klase zuzendariak biziki garrantzitsuak eta erreferenteak izango dira, prozesu horietan modu arrakastatsuan buru izan behar baitute.

6. Euskal herritarrak tolerantteen, anbibalenteen eta uzkurren taldeetan sailkatzen ditugunean, 2014an honako aldaketa hauek ikusi ditugu: a) tolerantteen taldeak kideak irabazi ditu (3 puntu irabazi ditu anbibalenteen taldetik) eta bere tolerantzia-mailak mantendu ditu; b) anbibalenteen taldeak kideak galdu ditu goitik (3 puntu gehitu dira tolerantteen taldera), baina irabazi egin ditu behetik, 8 puntu gehitu baititu uzkurren taldetik, bere jarrera tolerantetia ia galdu gabe; c) uzkurren taldeak 8 puntu galdu ditu eta horiek anbibalenteen taldera gehitu dira, baina gainera, jarrerak hobera egin dute zertxobait, eta intolerantzia arindu egin da pixka bat; horrenbestez, jarrerak hobera egin dute atzerriko immigrazioarekiko tolerantziari dagokionez.
7. Joan den urtean murriztu egin zen pertsona tolerante, anbibalente eta uzkurren arteko aldea, eta honako honek ere behera egin du: oro har, euskal gizartea erdi mailako puntuan kokatzen da (56,96 puntu), tolerantteen taldea 70,72 puntura iritsi da, anbibalenteen taldeak 53,36 puntu lortu ditu eta uzkurren taldeak, aldiz, 39,93.
8. Aldagai bereizleen artean, aurten erlijio-sinesmen aldakorra nabarmendu nahi dugu, horrexek baitu indarrik handiena balioak, jarrerak eta sinesmenak diskriminatzeko eta iragartzeko, ikasketa-maila bigarren mailan utziz: beren burua erlijioarekiko ateo, agnostiko edo axolagabetzat jotzen duten pertsonen tolerantzia-maila altuagoak dituzte; erlijio katolikoan edo beste erlijioen batean sinesten dutenek, aldiz, horren tolerantetia ez diren jarrerak, iritziak eta jokabideak mantentzen dituzte, horiekin lotutako osagai dogmatikoa dela-eta, beharbada.
9. 2014ko Barometroko datuen arabera, atzerriko immigrazioarekiko horren tolerantetia ez diren pertsonen hiru profil daude: 1) modu objektiboan eta subjektiboan, kalteberatasun pertsonal eta sozial handia bizi duten pertsonak (kualifikazio-maila baxua, kalitate txiki-lanak, diru-sarrerak txikiak, gogobetetze-maila txikia ekonomiari dagokionez, krisialdiak bereziki kaltetutako pertsonak, etorkizunari begira ziurgabetasun handiagoa eta ezkortasun handiagoa bizi duten pertsonak); 2) ideologiari dagokionez, nortasun dogmatikoa eta/edo autoritarioa duten pertsonak (pertsona zaharragoak dira, erdialdeko edo eskuineko ideologia politikoa dute, espainiarrak sentitzen dira batik bat, eta erlijioen batean sinetsi eta/edo praktikatzeko dute); 3) atzerriko pertsonekin harremanetan jartzen ez diren eta euskal gizartearen aniztasuna kontuan hartu gabe bizi diren pertsonak (ez dituzte harremanak mantentzen esfera pribatuan, publikoan, espazioetan eta aisialdian).

ERANSKINA

Honako hauek dira arlo bakoitzari esleitutako aldagaiak eta egin ditugun haztapenak::

- **BOLUMENA.** Etorकिन bolumenaren pertzepzioa, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
 - 3. galdera: Otik (gehiagi), 1 (nahikoa), 2 (kopuru egokia) eta 3ra (gutxi edo ez dira nahikoa) kodetua;
 - 5. galdera: Otik (gehiagi), 1 (nahikoa), 2 (kopuru egokia) eta 3ra (gutxi edo ez dira nahikoa) kodetua;
 - 4. galdera: Otik (% 30 baino gehiago), 1 (% 21-30), 2 (% 11-20), 3 (% 6-10) eta 4ra (% 0-5) kodetua.
- **ARAZOA.** Arazotzat hartzea, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
 - 1. galdera: Otik (arazoa 1. aipamenean), 1 (arazoa 2. aipamenean), 2 (arazoa 3. aipamenean) eta 3ra (ez da aipatzen) kodetua;
 - 2. galdera: Otik (arazoa 1. aipamenean), 1 (arazoa 2. aipamenean), 2 (arazoa 3. aipamenean) eta 3ra (ez da aipatzen) kodetua;
 - 22. galdera: Otik (arazoa 1. aipamenean), 1 (arazoa 2. aipamenean), 2 (arazoa 3. aipamenean) eta 3ra (ez da aipatzen) kodetua.
- **EKONOM.** Ekonomian dituen eraginak, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
 - 6a galdera: Otik (erabat ados), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua;
 - 6c galdera: Otik (erabat kontra), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat ados) kodetua;
 - 6e galdera: Otik (erabat kontra), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat ados) kodetua;
 - 18j galdera: Otik (erabat ados), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua;
 - 23a galdera: 0 (bai) eta 2 (ez) kodetua.
- **EUSKGIZARTEA.** Euskal gizartean dituen eraginak, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
 - 18e galdera: Otik (erabat ados), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua;
 - 21a galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua;
 - 21b galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua;
 - 21c galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua;
 - 21d galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua;
 - 23e galdera: 0 (bai) eta 2 (ez) kodetua.
- **ERAGINAK.** Eraginak guztira, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
 - 8. galdera: Otik (okertu egin da), 0,5era (berdin gelditu da) eta 1era (hobetu egin da) kodetua;
 - 18k galdera: Otik (erabat kontra), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat ados) kodetua;
 - 23b galdera: 0 (bai) eta 1 (ez) kodetua;
 - 23c galdera: 0 (bai) eta 1 (ez) kodetua;
 - 23d galdera: 0 (bai) eta 1 (ez) kodetua;
 - 25. galdera: Otik (negatiboak) 4ra (positiboak) kodetua.
- **BIZIKIDETZA.** Bizikidetza-ereduak, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
 - 18a galdera: Otik (erabat kontra), 0,25, 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat ados) kodetua;
 - 18b galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua;
 - 18c galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua;

- 18. galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua;
 - 18h galdera: Otik (erabat kontra), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat ados) kodetua;
 - p18i: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua.
- ESTEREOT. Estereotipoak, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
 - 6g galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua;
 - 6h galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua;
 - 6i galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua;
 - 6j galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua;
 - 13a galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua;
 - 13b galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua;
 - 13c galdera: Otik (erabat kontra), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat ados) kodetua;
 - 18d galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua;
 - 18f galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua;
 - 18m galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua.
- ESKUBIDEAK. Eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
 - 14a galdera: Otik (inork), 0,75era (erregularizatutakoek) eta 1,5era (guztiek) kodetua;
 - 14b galdera: Otik (inork), 0,75era (erregularizatutakoek) eta 1,5era (guztiek) kodetua;
 - 14c galdera: Otik (inork), 0,5era (erregularizatutakoek) eta 1era (guztiek) kodetua;
 - 14d galdera: Otik (inork), 0,5era (erregularizatutakoek) eta 1era (guztiek) kodetua;
 - 14e galdera: Otik (inork), 0,5era (erregularizatutakoek) eta 1era (guztiek) kodetua;
 - 14f galdera: Otik (inork), 0,5era (erregularizatutakoek) eta 1era (guztiek) kodetua;
 - 14g galdera: Otik (inork), 0,5era (erregularizatutakoek) eta 1era (guztiek) kodetua;
 - 15a galdera: Otik (inork), 0,25era (erregularizatutakoek) eta 0,5era (guztiek) kodetua;
 - 15b galdera: Otik (inork), 0,25era (erregularizatutakoek) eta 0,5era (guztiek) kodetua;
 - 15c galdera: Otik (inork), 0,25era (erregularizatutakoek) eta 0,5era (guztiek) kodetua;
 - 15d galdera: Otik (inork), 0,25era (erregularizatutakoek) eta 0,5era (guztiek) kodetua.
- HARREMANAK. Harremanetarako eta kultura-jarraibideei eusteko espazioak, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
 - 17a galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin) eta 1era (ondo) kodetua;
 - 17b galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin) eta 1era (ondo) kodetua;
 - 17c galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin) eta 1era (ondo) kodetua;
 - 17d galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin) eta 1era (ondo) kodetua;
 - 17e galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin) eta 1era (ondo) kodetua;
 - 17f galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin) eta 1era (ondo) kodetua;
 - 17g galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin) eta 1era (ondo) kodetua;
 - 17h galdera: Otik (gaizki), 0,5era (berdin) eta 1era (ondo) kodetua;
 - 20 galdera: Otik (desberdinik ez), 0,5era (desberdin batzuk) eta 1era (desberdin asko) kodetua;
 - 29 galdera: Otik (Otik 3ra), 0,5era (4tik 6ra) eta 1era (7tik 10era) kodetua.
- POLITIKA. Immigrazio-politika, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria:
 - 6d galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua;
 - 6f galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua;
 - 9. galdera: Otik (erabat debekatu), 1,5 eta 3ra (oztoporik ez) kodetua;

- 10. galdera: Otik (guztiak kanporatu), 1 (itzultzeko bitartekoak), 2 (langileak erregularizatu) eta 3ra (guztiak erregularizatu) kodetua;
- 11. galdera: Otik (inoiz ez), 0,5era (“baldintzak”) eta 1era (mugarik ez) kodetua.

Galdeketari erantzun dioten pertsonen 65 aldagairi emandako erantzunez osatutako indize batekin lan egitean, beste zailtasun bat izan dugu, urtero bezala: galdeketari erantzun dioten pertsonen galdera gehienei erantzun dieten arren, askotan ez dira galderaren bati erantzuteko gai izan edo ez dute galderaren bat erantzun nahi izan, eta horrek tolerantzia-indizean pertsona horien azken puntuazioa kalkulatzeko eragozten digu.

Erantzun baliodun gehienak ez galtzeko, galdutakoak (erantzun ez direnak) ordezkatzeko dituzten balioak (erantzunak) ematea erabaki dugu. Aurreko urteetako sistema bera erabili dugu horretarako: 65 aldagai zuzen guztietan, datu-base osoaren batez besteko puntuazioa eman diogu galdutako balioari. Galdutako balioak egotzita, arloz arloko puntuazioak kalkulatu ditugu eta, hori egin ostean, puntuazio osoa eskuratu dugu tolerantzia-indizean.



BAROMETROA 2014
ATZERRIKO IMMIGRAZIOAREKIKO PERTZEPZIOAK ETA JARRERAK

Galdeketa-zenbakia	
Data (eguna-hilabetea-urtea)	
Udalerrria	
Probintzia	
Inkestagilea	

Egun on / Arratsalde on. IKUSPEGI Immigrazioaren Euskal Behatokia atzerriko immigrazioarekiko euskal herritarren iritziri buruzko ikerketa egiten ari da. Horrenbestez, zure laguntza preziatuaren beharra dugu, galdera-sorta bati erantzuteko. Zure erantzunak anonimatuan eta sekretupean gordeko direla bermatzen du Unibertsitateak; izan ere, erantzunak multzoan bakarrik aztertuko dira. Kontuan hartu ez dagoela erantzun zuzenik edo okerrik, ez da azterketa, immigrazioarekin zerikusia duten zenbait galderari buruz zure benetako iritzia jakin nahi dugu bakar-bakarrik.

1. Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun **3 arazo nagusiak?** (Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)

	1º	2º	3º
Langabezia	1	1	1
Drogak	2	2	2
Herritarren segurtasun eza	3	3	3
Terrorismoa, ETA	4	4	4
Azpiegiturak	5	5	5
Osasuna, osasun-sistema	6	6	6
Etxebizitza	7	7	7
Arazo ekonomikoak	8	8	8
Enpleguaren kalitatearekin lotutako arazoak	9	9	9
Nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-arazoak	10	10	10
Korruptzioa eta iruzurra	11	11	11
Pentsioak	12	12	12
Politikariak, alderdi politikoak, gobernua	13	13	13
Gerrak, orokorrean	14	14	14
Justizia-administrazioa	15	15	15
Arazo sozialak	16	16	16
Arrazakeria	17	17	17
Immigrazioa	18	18	18
Emakumearen aurkako indarkeria	19	19	19
Gazteekin zerikusia duten arazoak	20	20	20
Balioen krisialdia	21	21	21
Hezkuntza	22	22	22
Ingurumen-arazoak	23	23	23
Zerbitzu publikoen funtzionamendua	24	24	24
Nazionalismoak	25	25	25
Emakumearekin lotutako arazoak (berdintasuna...)	26	26	26
Nazioarteko terrorismoa	27	27	27
Kezka eta egoera pertsonalak	28	28	28
Beste erantzun batzuk	29	29	29
Bat ere ez	30	30	30
Ez daki / Ez du erantzuten	0	0	0

2. Txartel honetan ageri diren arazoetatik (1. txartela erakutsi) zein dira, zure iritziz, Euskadiko **3 arazo garrantzitsuenak?** (IRAKURRI ERANTZUN GUZTIAK ozenki: 3 erantzun gehienez)

	1º	2º	3º
Pentsioak	1	1	1
Immigrazioa	2	2	2
Osasun sistema	3	3	3
Terrorismoa	4	4	4
Atzeritarren integrazioa	5	5	5
Gizarte-elkartasun falta	6	6	6
Bizitzaren kostua	7	7	7
Hazkunde ekonomikoa	8	8	8
Hirugarren adinekoak zaintzea	9	9	9
Minusbaliatuak zaintzea	10	10	10
Langabezia	11	11	11
Delinkuentzia	12	12	12
Aberatsen eta pobreen arteko desberdintasunak	13	13	13
Garraioa eta azpiegiturak	14	14	14
Hezkuntza	15	15	15
Ingurumena errespetatzea	16	16	16
Globalizazioa	17	17	17
Ed/Ede	0	0	0

3. Beste herrialde batzuetatik etorri eta Euskadin bizi diren **etorkin kopurua**, zure iritziz, ... (2. txartela erakutsi)?

Handiegia da	1
Nahikoa da	2
Egokia da	3
Txikia da	4
Ez da nahikoa	5
Ez daki / Ez du erantzuten	0

4. Euskadin bizi diren 100 pertsonetatik **zenbat** dira, zure ustez, **atzerriko etorkinak** (alegia, Espainiatik kanpoko herrialdeetatik etorriak)? (ED/EE=99)

5. Nik esango banizu Euskadin bizi diren pertsonen %7 gutxi gorabehera beste herrialdeetako etorkinak direla, berdin pentsatzen al duzu edo... (2. txartela erakutsi)?

Handiegia da	1
Nahikoa da	2
Egokia da	3
Txikia da	4
Ez da nahikoa	5
Ez daki / Ez du erantzuten	0

6. Txartel hau erabilita (erakutsi 3. txartela), esan iezadazu zenbate-raino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin (1= erabat ados; 2= ados; 3 = ez ados ez kontra; 4 = kontra; 5 = erabat kontra; 6 = ez daki/ez du erantzuten):

	EA	A	E A E K	K	EK	ED EE
a) Jendea bizitzera eta lan egitera etortzen denez, oro har, soldaten zenbatekoak behera egiten du.	1	2	3	4	5	0
b) Ikasle immigranteek jaitsi egiten dute eskolako hezkuntza-maila	1	2	3	4	5	0
c) Etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko	1	2	3	4	5	0
d) Lanera etortzen diren atzeritarren denboraldi batez langabezia geratu gero, kanpora bidali beharko lirateke.	1	2	3	4	5	0
e) Etorkinei esker, ekonomiak hobera egiten du, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako.	1	2	3	4	5	0
f) Hona etorri den norbaitek delituren bat egiten badu, herrialdeak kanpora bidali beharko litzateke.	1	2	3	4	5	0
g) Atzerriko etorkinen presentziak segurtasun falta eta delinkuentzia eragiten ditu	1	2	3	4	5	0
h) Immigranteek lana kentzen digute	1	2	3	4	5	0
i) Immigrazioak handitu egiten ditu matxismoa eta genero-indarkeria	1	2	3	4	5	0
j) Immigranteek ez dute integratu nahi	1	2	3	4	5	0
k) Etorkinek neurritz kanpo erabiltzen dute EAEko osasun-sistema eta kolapsatu egiten dituzte larrialdi-zerbitzuak.	1	2	3	4	5	0
l) Etorkinek babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eskuratu dituzte.	1	2	3	4	5	0

7. Oti 10era bitarteko eskala batean (0 oso txarra, eta 10, bikaina), zenbat puntu emango zenizkioke zure udalerrian edo auzoan bertakoen eta atzeritarren artean dagoen bizikidetzaren eta harreman-giroari?

Oso txarra	Bikaina										Ed
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

8. Euskal herritarren eta atzerriko jendearen arteko harremanak, zure ustez, hobera egin du, txarrera egin du, edo duela urtebete bezalako da?

Hobera egin du	1
Berdin jarraitzen du	2
Txarrera egin du	3
Ez daki / Ez du erantzuten	0

9. Zure ustez, zer politika-mota litzateke egokiena immigranteen kasurako?

Inolako lege-trabarrak gabe sartzten uztea	1
Lan-kontratuak dutenik bakarrik sartzten uztea	2
Legezko beste baldintza batzuk betetzen dituzten pertsonen sartzten uztea: familia berriz biltzea, ikasleak, errefuxiatuak...	3
Erabat debekatzea etorkin atzeritarren sartzera	4
Ed/Ede	0

10. Zure ustez, zer egin beharko luke Gobernuak erregularizatu gabeko immigranteekin? (EZ AIPATU: bat-bateko erantzuna)

Guztiak erregularizatu, "paperak" eman	1
Lana dutenak bakarrik erregularizatu	2
Bitartekoak eman guztiak beren herrialdera itzultzeko	3
Guztiak kanpora bidali	4
Ed/Ede	0

11. Eta babes politikoa eskatzen duten pertsonekin, zure ustez, zer egi-tea izango litzateke egokiena? (EZ AIPATU: bat-bateko erantzuna)

Mugarik gabe hartu	1
Hartu, ihesi dabilzala egiaztatzen bada	2
Hartu, baina urtean kopuru jakin bat baino ez	3
Ez hartu, inola ere	4
Ed/Ede	0

12. Eusko Jaurlaritzak, Lanbideren bidez, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta izeneko zerbitzua ematen du, Oinarritzko Errenta esaten dioguna. Zerbitzu horren bidez, hileroko diru-kopuru bat ematen zaie premia larrian daudenei, gabezia handiak dituztenei, pobrezia-egoeran daudenei eta abarrei, bai bertakoei bai etorkinei, baldintza jakin batzuk betetzen baldin badituzte, hala nola gutxienez hiru urtez EAEn erroldatuta egotea (edo urte bat EAEn, eta bost Espainian, Gizarte Segurantzaren ordainduta).

Zer jarrera izan behar lukete erakundeek? (4. TXARTELA erakutsi)

Pertsona immigranteek ez lukete inolaz ere jaso behar diru-sarrerak bermatzeko errentarik: hemengo pertsonentzat soilik izan behar lirateke halako laguntzak.	1
Pertsona immigrante guztiak aukera izan behar lukete diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko, baina, betiere, hemengo pertsona guztiak jaso ostean.	2
Egoera administratibo erregularrean dauden pertsona immigranteek soilik eskuratu behar lukete diru-sarrerak bermatzeko errentaren zerbitzua.	3
Lehen aipatutako baldintzetan izan behar lukete aukera pertsona immigranteek diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko, hau da, urtebetez erroldatuta egon ostean.	4
Pertsona guztiak, hemengoek zein immigranteek, izan behar lukete aukera diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko, baldin eta hala behar badute, erroldatze-denbora kontuan hartu gabe.	5
Ed/Ee	0

13. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren gai horretan askotariko iritziak daude. Esaldi hauekin ados zauden edo ez jakin nahi nuke (1= oso ados; 2= ados; 3 = ez ados, ez kontra; 4 = kontra; 5 = oso kontra): (3. TXARTELA erakutsi)

	OA	A	EZ A EZ K	K	OK	ED
a) Etorkinak gehiegi baliatzen dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaz eta laguntza guztiak bereganatzen dituzte	1	2	3	4	5	0
b) Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren ondorioz, etorkinek ez dute lanik egin nahi edo ez dute lana bilatzen, bestela ere kobratzen baitute	1	2	3	4	5	0
c) Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin loturiko iruzurra egonez gero, berdin-berdin egiten dute iruzur bertakoek nahiz etorkinek	1	2	3	4	5	0

14. Orain, bertakoek dituzten zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere egoera beretan **izan behar lituzkete eskubide horiek?** (irakurri eskubideak eta erakutsi 5. txartela):

	Denek	Legez daudenek	Inork ez	ED
a) Seme-alabentzako hezkuntza	1	2	3	0
b) Osasun-zerbitzua	1	2	3	0
c) Gizarte-laguntza: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, GLL...	1	2	3	0
d) Babes ofizialeko etxebizitza	1	2	3	0
e) Senide gertuoenak ekartzea	1	2	3	0
f) Bozkatzeko eskubidea	1	2	3	0
g) Zerbitzu juridikoa	1	2	3	0

15. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek **doan** izan beharko lituzkete zerbitzu hauek (irakurri zerbitzuak irakurri eta erakutsi 6. txartela):

	Denek	Legez daudenek	Inork ez	ED
a) Lanbide-heziketako ikastaroak	1	2	3	0
b) Gaztelaniako eskolak	1	2	3	0
c) Euskarako eskolak	1	2	3	0
d) Jatorrizko hizkuntzako eskolak	1	2	3	0

16. **Atzerriko pertsonak** nolakoak iruditzen zaizkizu, **Euskadikoekin alderatuta** (banan-banan irakurri)?

	Gehiago	Berdin	Gutxiago	Ed
a) adeitsuak	1	2	3	0
b) langileak	1	2	3	0
c) arduratsuak	1	2	3	0
d) matxistak	1	2	3	0
e) solidarioak	1	2	3	0
f) zintzoak	1	2	3	0

17. **Ondo edo gaizki** iruditzen zaizu **atzerriko pertsonak...** (banan-banan irakurri)?

	Ondo	Berdin	Gaizki	Ed
a) Haien dendak irekitzea	1	2	3	0
b) Haien artean beraien hizkuntza erabiltzea	1	2	3	0
c) Jatorrizko herrialdean bezala jantzea	1	2	3	0
d) Berariazko elikadura-dendak izatea	1	2	3	0
e) Haien erlijioetako tenpluak eraikitzea	1	2	3	0
f) Haien ikastetxe pribatuak izatea	1	2	3	0
g) Plaza eta espazio publikoak hartzea	1	2	3	0
h) Sukaldaritza exotikoa edo atzerriko sukaldaritza duten jatetxeak irekitzea	1	2	3	0

18. Txartel hau erabilita (erakutsi 3. txartela), esan iezadazu **zenbate-raino zauden ados edo ez** esaldi horietan adierazten denarekin (1 = erabat ados; 2 = ados; 3 = ez ados ez kontra; 4 = kontra; 5 = erabat kontra; 6 = ez daki):

	EA	A	EZ A EZ K	K	EK	ED
a) Euskadin bizikidetzat hobetzeko, hemengoek ahalgindu beharko lukete etorkinen ohiturak eta usadioak ezagutzen eta horietara egokitzen.	1	2	3	4	5	0
b) Euskal gizartearentzat hobe da bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea.	1	2	3	4	5	0
c) Euskal gizartearentzat hobe da guzti-guztiok, immigranteek eta bertakoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea.	1	2	3	4	5	0

	EA	A	EZ A EZ K	K	EK	ED
d) Pertsona etorkinek onura handiegia lortzen dute gizarte-babesaren sistematik.	1	2	3	4	5	0
e) Immigranteen erlijio-jarduerak arriskuan jartzen dute gure bizimodua.	1	2	3	4	5	0
f) Etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino	1	2	3	4	5	0
g) Euskadin bizikidetzat hobetzeko, immigranteek gure ohiturak eta usadioak hartzen ahalgindu beharko liriteke.	1	2	3	4	5	0
h) Beste talde etnikoetako etorkin atzerritarrek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dute	1	2	3	4	5	0
i) Erabat onartuak izateko, etorkinek gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren edo erlijioaren alderdiei uko egin behar diete	1	2	3	4	5	0
j) Atzerriko etorkinen presentziak Euskadin langabezia handiagoa izatea dakar	1	2	3	4	5	0
k) Europako populazioaren zahartzeak eragindako arazoak konpon ditzakete Europara datozen etorkinek	1	2	3	4	5	0
l) Bizikidetzat hobetzeko, guztiok egin behar dugu ahalgindu bat, bai pertsona atzerritarrek, bai hemengoek ere.	1	2	3	4	5	0
m) Immigranteak gizarte-laguntzei esker bizi dira eta gehiegi erabiltzen dituzte	1	2	3	4	5	0
n) Etorkinek ez dituzte arauak betetzen eta ez dute gizalegez jokaten.	1	2	3	4	5	0

19. Esan iezadazu, mesedez, 0tik 10era bitarteko puntuazioa duzula, zenbatekoa den munduko herrialde edo eskualde hauetako pertsonenganako sentitzen duzun **sinpatia**; kontuan izan, 0 sinpatia eza dela eta 10 sinpatia handia (erakutsi 7.txartela).

	Sinpatia eza										Sinpatia handia										Ed				
a) Mendebaldeko Europar Batasuna	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
b) Errumania eta Ekialdeko Europar Batasuna	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
c) Ekuador	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
d) Afrika beltza, Saharaz hegoaldekoa	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
e) Bolivia	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
f) Maroko, Aljeria, Magreb	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
g) Ameriketako Estatu Batuak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
h) Kolonia	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
i) Argentina	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
j) Pakistan	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
k) Txina, Korea, ...	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
l) Paraguai, Nikaragua	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	

20. Non bizi nahi duzun erabaki beharko bazenu, zein aukeraturiko zenuke **hiru udalerrri- edo auzo-mota hauetatik**

Euskal biztanleen gehiengoaren aldean beste arraza edo talde etniko batzuetako inor ez duen udalerrri edo auzo bat	1
Euskal biztanleen gehiengoaren aldean beste arraza edo talde etniko batzuetako biztanle batzuk dituen udalerrri edo auzo bat	2
Euskal biztanleen gehiengoaren aldean beste arraza edo talde etniko batzuetako biztanle asko dituen udalerrri edo auzo bat	3
Ed/Edo	0

21. Txartel hau erabilia (erakutsi 3. txartela), esan iezadazu **zenbateraino zauden ados edo ez** esaldi horietan adierazten denarekin (1= erabat ados; 2= ados; 3= ez ados ez kontra; 4= kontra; 5= erabat kontra):

	EA	A	E A E K	K	EK	ED
a) Etorrin atzerritarrek iristeak euskararen garapena geldiaraziko du	1	2	3	4	5	0
b) Gaur egun euskara nagusi den eremuetan euskaraz gutxiago hitz egingo da atzerriko etorkinak iristearen ondorioz	1	2	3	4	5	0
c) Immigrante atzerritarrek etortzeak euskal nortasuna galtzea ekarriko du	1	2	3	4	5	0
d) Immigrante atzerritarrek etortzeak geldiarazi egingo ditu abertzaletasunaren helburuak	1	2	3	4	5	0

22. Gaia aldatuko dugu. Pertsonalki **zein 3 arazok ukitzen zaituzte gehien?** (Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)

	1º	2º	3º
Langabezia	1	1	1
Drogak	2	2	2
Herritarren segurtasun eza	3	3	3
Terrorismoa, ETA	4	4	4
Azpiegiturak	5	5	5
Osasuna, osasun-sistema	6	6	6
Etxebizitza	7	7	7
Arazo ekonomikoak	8	8	8
Enpleguaren kalitatearekin lotutako arazoak	9	9	9
Nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-arazoak	10	10	10
Korruptzioa eta iruzurra	11	11	11
Pentsioak	12	12	12
Politikariak, alderdi politikoak, gobernuak	13	13	13
Gerrak, orokorrean	14	14	14
Justizia administrazioa	15	15	15
Arazo sozialak	16	16	16
Arrazakeria	17	17	17
Immigrazioa	18	18	18
Emakumearen aurkako indarkeria	19	19	19
Gazteekin zerikusia duten arazoak	20	20	20
Baloreen krisialdia	21	21	21
Hezkuntza	22	22	22
Ingurumen-arazoak	23	23	23
Zerbitzu publikoen funtzionamendua	24	24	24
Nazionalismoak	25	25	25
Emakumearekin lotutako arazoak (berdintasuna...)	26	26	26
Nazioarteko terrorismoa	27	27	27
Kezka eta egoera pertsonalak	28	28	28
Beste erantzun batzuk	29	29	29
Bat ere ez	30	30	30
Ed/Ede	0	0	0

23. Etorrin gehiago etortzeak zuri eta zure familiakoei honako **kalte** hauek eragitea kezkatzen zaitu:

	Bai	Ez	Ed
a) Lana aurkitzea	1	2	0
b) Etxebizitza izatea	1	2	0
c) Ospitaleetan gehiago itxarotzea	1	2	0
d) Kalitate gutxiagoko irakaskuntza jasotzea	1	2	0
e) Nortasun kulturala galtzea	1	2	0
f) Gizarte-laguntza izatea	1	2	0

24. Batzuetan, jendeak dio bertako pertsonen lehenetsia izan behar luketela immigranteen ondoan, laguntzei eta gizarte-zerbitzuei dagokienez. Beste batzuek diote, berriz, laguntzak eta gizarte-zerbitzuak, lehen-lehenik, beharrik handiena dutenentzat izan behar direla, izan immigrante edo izan bertako. Zein da zure iritzia? (aurkeztu 8 txartela)

Laguntzak eta gizarte-zerbitzuak lortzeko, bertako pertsonen lehenetsia izan behar dute, eta ez immigranteek	1
Laguntzak eta gizarte-zerbitzuak, lehen-lehenik, beharrik handiena dutenentzat izan behar dira, izan immigrante edo izan bertako	2
Ed/Ede	0

25. Orokorrean hartuta, zure ustez, atzerriko pertsonak etortzeak, **ondorio positiboak edo negatiboak** eragiten dizkio euskal gizarte-ari? (erakutsi 9. txartela) Puntua ezazu, mesedez, 0tik (oso ondorio negatiboak) 10era (oso ondorio positiboak).

Negatiboak										Positiboak		Ed
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	

26. Oro har, nolakoa zarela esango zenuke: pesimista edo optimista? 0tik 10era bitarteko eskalan (0 pesimista da, eta 10, berriz, optimista), non kokatuko zenuke zeure burua?

Pesimista										Optimista		Ed
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	

27. Zer-nolako eragina ari da izaten egungo krisialdia zuregan? Eman, mesedez, 0tik 10era bitarteko puntuazioa (0 eraginik ez, eta 10, eragin handia).

Eraginik ez										Eragin handia		Ns
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	

28. Epe ertainean eta epe luzean, zure ustez, aukera onak edo txarrak izango dituzu etorkizunean? 0tik 10era bitarteko eskalan (0 aukera oso txarrak, eta 10, berriz, aukera bikainak), non kokatuko zenuke zeure burua?

Aukera oso txarrak										Aukera bikainak		Ed
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	

29. Zure auzoko errealitate soziala laburki azaldu behar bazenu aniztasun etnikoa edo arraza-aniztasuna aintzat hartuz, zer esango zenuke? 0tik 10era bitarteko eskala batean (0k esan nahi du zure bizilagun gehienak EAEn edo Espainian jaioak direla, eta 10ek esan nahi du atzerrian jaiotako jende asko dagoela), non kokatuko zenuke zeure auzoa?

Hemengoak										Immigranteak		Ns
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	

30. Pentsatu zure lanegun arrunt batean, jaikitzen zarenetik oheratzen zaren arte; zure ustez, zenbat atzerritarrekin duzu harremana zeure etxean, zure gurasoenean edo zure lanean? Ez naiz ari kalean ikusten dituzunei buruz, ez eta harremana beste leku batzuetan duzunei buruz ere.

--	--	--

31. Eta egun arrunt baten buruan, zure ustez, zenbat atzerritarrekin duzu harremana beste leku batzuetan? Ez naiz ari kalean ikusten dituzunei buruz, nolabait harremana duzunei buruz baizik: kioskoan, kafetegian, dendetan, garraio publikoetan, eta abarretan.

--	--	--

32. Zure udalerrian edo auzoan, zenbatean behin izaten duzu harremana eta/edo zenbatean behin ibiltzen zara aisialdian beste herrialde batzuetako jendearekin, atzerritarrekin (ez euskal herritarrekin eta ez espainiarrekin)? (Irakurri aukerak)

Inoiz ere ez	1
Zenbaitetan	2
Askotan	3
Sarri-sarri	4
Etengabe	5
Ez daki / Ez du erantzun	0

33. Txartel honetako zurrumurruetatik, zein da, zure ustez, zure udalerrian edo auzoan gehien zabaldua dagoena? Eta ondoren? Eta hirugarrenik? (Erakutsi 10. txartela).

	1º	2º	3º
Ezin dugu etorkin gehiago onartu; gehiegi dira.	1	1	1
Etorkinek gizarte-laguntzei esker bizi dira eta neurriz kanpo erabiltzen dituzte.	2	2	2
Etorkinek lana kentzen digute.	3	3	3
Immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria areagotzen ditu.	4	4	4
Etorkinek ez dute hemen gizarteratu nahi.	5	5	5
Etorkinek neurriz kanpo erabiltzen dute EAEko osasun-sistema eta kolapsatu egiten dituzte larrialdi-zerbitzuak.	6	6	6
Ikasle etorkinek jaitsi egiten dute eskoletako hezkuntza-maila.	7	7	7
Etorkinek babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eskuratzen dituzte.	8	8	8
Immigrazioak delinkuentzia areagotzen du.	9	9	9
Atzerriko dendariak ez dute zergarik ordaintzen.	10	10	10
Etorkinek ez dituzte arauak betetzen eta ez dute gizalegeaz jokutzen.	11	11	11
Ez daki / Ez du erantzun	0	0	0

ERREKALDEN BAKARRIK

34. Gaia aldatuko dugu. Ba al dakizu zerbait bertakoen eta etorkinen arteko bizikidetzaz hobetzeko 2013an Errekalde auzoan egindako kanpaina bati buruz?

Bai	1	JARRAITU 35. galderarekin
Ez	2	JARRAITU 36. galderarekin
Ed/Ee	0	JARRAITU 36. galderarekin

35. Gogoan al duzu kanpainaren izena edo eslogana?

Bai, Bilbao Be Inclusive	1
Bai, beste izen bat	2
Ez	3
Ed/Ee	0

36. **GUZTIENTZAT.** Ikusi al duzu logo hau inoiz? (Erakutsi 15. txartela)

Bai	1	JARRAITU 37. galderarekin
Ez	2	JARRAITU 38. galderarekin
Ed/Ee	0	JARRAITU 38. galderarekin

37. Non ikusi duzu?

Auzoan	1
Prentsan	2
Gaztelekun	3
Beste lekuren batean	4
Ed/Ee	0

38. Kanpainari buruz dakizuna kontuan hartuta, zer iruditzen zaizu? Zenbat puntu ematen dizkiozu 0tik 10era bitarteko eskala batean (0, oso txarra, eta 10, bikaina)?

Oso txarra											Bikaina	Ed
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	

MILA ESKER ZURE LAGUNTZAGATIK

GUZTIEK

- A. Inkesta bete duen pertsonaren **sexua**

Gizonezkoa	1
Emakumezkoa	2

- B. Esango didazu zenbat **urte** bete dituzun azken urtebetetzean?

- C. Bizitokia. Lurralde historikoa

Araba	1
Bizkaia	2
Gipuzkoa	3
Ed/Ede	0

- D. Habitat:

5.000 biztanle edo gutxiago	1
5.001 - 20.000 biztanle	2
20.001 - 150.000 biztanle	3
Hiriburua	4
Ed/Ede	0

- E. Euskara badakizu?

Bai	1
Ez	2
Ed/Ede	0

- F. Esango didazu amaitu duzun ikasketak-maila gorena zein den?

Ikasketarik ez, oinarritzko ikasketak edo OHO bukatu gabe	1
Lehen mailako ikasketak: OHO, oinarritzko batxilergoa, LH I	2
Bigarren mailako ikasketak: UBI, BBB, goi-mailako batxilergoa, LH II	3
Unibertsitate-ikasketak erntainak: diplomatura	4
Goi-mailako unibertsitate-ikasketak	5
Ed/Ede	0

- G. **Erligioaren arloan**, nola definitzen duzu zure burua?

Katoliko elizkoia	1
Katoliko ez-elizkoia	2
Beste erlijio bat	3
Agnostikoa, atea, neutroa	4
Ed/Ede	0

- H. Esango zenidake, mesedez, zure etxean hilean, gutxi gorabehera, zenbateko sarrera garbia izaten duzuen, kontzeptu guztiak kontuan hartuta? Erreparatu, ez dizudala kopuru zehatza eskatzen, jarraian dituzun kopuru-tarte hauekiko bat aukeratu behar baituzu (erakutsi 10. txartela):

1.000 € baino gutxiago (166.000 pezeta inguru)	1
1.001 eta 1.800 € artean (166.000 eta 300.000 pezeta artean.)	2
1.801 eta 2.500 € artean (300.000 eta 415.000 pezeta artean)	3
2.500 € baino gehiago (415.000 pezeta baino gehiago)	4
Ed/Ede	0

- I. Oro har, zenbateraino zaude gustura zure etxeko **egoera ekonomikoarekin**? Mesedez, adierazi eskala honetan zenbatekoa den zure satisfazio-maila (erakutsi 11. txartela):

Erabat asegabea											Erabat gustura	Ed
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	

J. Ekonomia-jarduerari dagokionez, zein da egoera une honetan?

Lanean, autonomia edo soldatapekoa	1	K galdera: Zein izan da edo da lanbidea edo jarduerara?
Erretiratu, pentsionista, errentaduna	2	
Langabezian, lan bila	3	
Etxeoandrea	4	K galdera: Zure etxean diru-sarrera handien duen pertsonaren lanbidea edo jarduerara zein da? eta L galderako ikasketak?
Ikaslea	5	
Ed/Ede	0	K galdera: 0

L. BAKARRIK etxeoandreak eta ikasleak: Zer ikasketak du zure etxean diru-sarrera handien duen pertsonak?

Ikasketarik ez, oinarritzko ikasketak edo OHO bukatu gabe	1
Lehen mailako ikasketak: OHO, oinarritzko batxilergoa, LH I	2
Bigarren mailako ikasketak: UBI, BBB, goi-mailako batxilergoa, LH II	3
Unibertsitate-ikasketak: diplomatura	4
Goi-mailako unibertsitate-ikasketak	5
Ed/Ede	0

K: LANBIDEA EDO JARDUERA	Egungo jarduera	Aurreko jarduera
BERE KONTURAKO LANGILEA		
1.J: Nekazari/Abeltzain, ustiapen txikian (langile finko 1 baino gehiago ez)	1	1
2.J: Nekazari/Abeltzain, ustiapen handian (langile finkoak izan ditzake, edo ez)	2	2
3.J: Autonomia (langilerik gabe)	3	3
4.J: Negozio txikiko enpresaburua (1etik 5era arteko langile finkoak edo behin-behinekoak)	4	4
5.J: Negozio handiko enpresaburua (6 langile edo gehiago, finkoak edo behin-behinekoak)	5	5
6.J: Bere konturako langilea, langilerik gabe edo 6 langile baino gutxiago (haien jarduera garatzeko, profesional horiek maila ertaineko edo goi-mailako titulu aitortua behar dute: OLT, Aparejadorea, Sendagilea, Abokatua, Arkitektoa, etab.)	6	6
BESTEREN KONTURAKO LANGILEA (Sektore pribatua edo publikoa):		
7.J: 6 langile baino gutxiagoren arduraduna	7	7
8.J: 6 langile edo gehiagoren arduraduna	8	8
9.J: Langile profesionala (haien jarduera garatzeko, maila ertaineko edo goi-mailako titulu aitortua behar dute: OLT, Aparejadorea, Sendagilea, Abokatua, Arkitektoa, Irakaslea, Maisu/maistra, etab.)	9	9
10.J: Aginte ertaina (departamentuburua, atalburua, bulegoburua, langilezaina, arduraduna, etab.)	10	10
11.J: Bestelako langileak, batik bat bulego-eginkizunak dituztenak (ez profesionalak, ez zuzendariak, ez aginte ertainekoak: Idazkariak, Laguntzaileak, Kontulariak.)	11	11
12.J: Bestelako langileak, batik bat bulegoz kanpoko eginkizunak dituztenak (saltzaileak, merkataritzaz-ordetzariak, dendariak, tabernariak, banatzaileak, postariak, etab.)	12	12
13.J: Eskulangile kualifikatua (lanbideari begira, lanbide-prestakuntza edo ikasketak praktikokoak izan dituztenak: tailer-maisuak, tailer-ofizialak, etab.)	13	13
14.J: Eskulangile ez-kualifikatua (peoiak, langile ez-kualifikatuak.)	14	14
EZ DUTE LAN EGITEN		
15.J: Erretiratu/Pentsionista/Errentaduna eta lan egiten ez duten bestelakoak	15	
16.J: Langabetua (3 hilabete baino gehiago langabezian)	16	
Langabetua (3 hilabete baino gutxiago langabezian)	17	
ZEIN ZEN PERTSONA HORREN AZKEN LANBIDEA EDO JARDUERA? (idatzi eta sailkatu aurreko jardueraren batean, bigarren zutabean)		

M. Politikari buruz hitz egiten denean, normalean, ezkerria eta eskuina hitzak erabiltzen dira. Txartel honetan, zenbait lauki ageri dira, ezker muturretik (0) eskuin muturrera (10) sailkatuta. Zein laukitan kokatuko zenuke zure burua? (erakutsi 12. txartela)

Ezker muturra											Eskuin muturra											Ed
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

N. Politikari buruzko ari garaia, Euskadiri eta euskalgintzari erreferentzia egiten diogunean, askotan, **espainismoaz (nazionalismo espainiarra) eta **euskal nazionalismoaz** hitz egiten da. Esango zenidake, mesedez, non kokatuko zenukeen zure burua 0tik (gehieneko euskal nazionalismoa) 10era (gehieneko espainismoa) bitarteko eskala honetan? (erakutsi 13. txartela)**

Euskal nazionalismoa											Espainismoa											Ed
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

O. Jarraian dituzun esaldi horietatik, zein esaldik adierazten ditu ondoren zure sentimenduak? (guztiak irakurri)

Espainola bakarrik sentitzen naiz	1
Euskalduna baino espainolagoa sentitzen naiz	2
Euskaldun bezain espainol sentitzen naiz	3
Espainola baino euskaldunagoa sentitzen naiz	4
Euskalduna bakarrik sentitzen naiz	5
Ed/Ede	0

Izena: _____


Telefonoa: _____

Udalerrria: _____

ADIERAZI DATU HORIEK ELKARRIZKETA BENETAN EGIN DELA EGIAZTATZEKO ESKATU ZAIZKIOLA


EAEko populazioaren segmentazio-zuhaitza eta tipologiak tolerantzia-indizean duten kokapenaren arabera

Tolerantzia-indizea 2014



Erligioaren arloan, nola definitzen duzu zure burua
P balio zuzendua=0,000, F=119,017, g1=1, g2=874

Agnostikoa; ateo; ezaxola; <faltako balioa>




Ikasketa-maila

P balio zuzendua=0,000, F=32,595, g1=1, g2=259

Bigarren mailakoak: UBI, BBB, goi-mailako batxilergoa, LHII;
Ikasketarik ez, oinarrikoak edo OHO bukatu gabe;
Lehen mailakoak: OHO, oinarriko batxilergoa, LHI

Goi-mailako unibertsitate ikasketak;
Unibertsitate-ikasketa ertainak:
diplomatura




Etorkizuna


P balio zuzendua=0,003, F=13,694, g1=1, g2=172

Normala; Ona


Txarra; <faltako balioa>



2




5



1

Ezkerra; Zentro-ezkerra




Auzoa


P balio zuzendua=0,000, F=18,860, g1=1, g2=251

Nahastea

Bertokoak; Immigranteak




8




Elkarreragin pribatua
P balio zuzendua=0,001, F=13,177, g1=1, g2=182

Bat ere ez

Zenbait; Altua




6



3

Katoliko ez-elizkoa; Katoliko elizkoa; Beste erlijio bat




Ideologia

P balio zuzendua=0,000, F=29,326, g1=1, g2=613

Ezkerra; Zentro-ezkerra

Zentroa; Eskuina; <faltako balioa>




Krisia

P balio zuzendua=0,000, F=24,650, g1=1, g2=360

Eragin ertaina; Eragin baxua

Eragin altua




Bizitokia


P balio zuzendua=0,000, F=24,228, g1=1, g2=221

20.001etik 150.000 biztanletara;
5.001etik 20.000 biztanletara

5.000 biztanlerarte; Hiriburuak




4




Elkarreragina aisialdian
P balio zuzendua=0,012, F=9,259, g1=1, g2=106

Inoi ere ez

Baxua; Altua




10




7

Baikorra

Ezkorra; Ezaxola



9



11